goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2014-10-24
EGUBAKOITZA
614. ZENBAKIA
14. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM

## "Inoren mehatxu barik jardutea ederra da"



**Rafaela Romero**
PSE-EEren bozeramailea

## 'Peter Pan' Bilboko Euskaldunan

Bergarako Musika Eskolakoek bi saio egingo dituzte | 31

Gipuzkoako 600 erretiratu eta pentsiodun inguru Oñatin | 6



Txatxilipurdi: bi hamarkada aisialdia euskaraz lantzen | 11



Imuntzo eta Beloki, Kepa Junkera... VI. trikiti jaialdian, Oñatin | 21



# LIBURUTEGIAK ASKEAK, DENONDAKO ETA DOAKOAK

Gaur, urriak 24, Liburutegien Nazioarteko Eguna da; herririk herri antolatu dituzte zerbitzu hori goraipatzeko ospakizunak

IKUS 4. ORRIALDEA ETA 'HERRIAK' SAILA

Herritar bat Arrasateko Udal Bibliotekan, argitalpen bat eskuetan duela. | JAGOBA DOMINGO

# Irizpide aldaketarekin, diru banaketa berria euskarazko hedabideen artean

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak joan den astean eman zuen ezagutzera euskarazko hedabideentzako diru laguntzen ebazpena. Orain arteko irizpideak aldatu, eta irismenari eman diote garrantzi handiena. Horrek aldaketak eragin ditu batzuen eta besteen zenbakietan. | 2



**ORDU ALDAKETA**
Neguko ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko hiruretan ordu biak izango dira. Ez ahaztu!

iker, s.l.
sukaldeak | etxea | armairuak
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
dica



IRAITZ AGIRRE | 9
MAIDER ARREGI | 9
AGURNE BARRUSO | 40
DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 9 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

# Tokikoak irizpideekin ados eta

Hedabideentzako diru-laguntzek eragin duten eztabaida dela-eta, euskaragatik ez ezik, jardun

**JULEN IRIONDO** | ARRASATE

Joan den astean eman zuen jakitera Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskarazko hedabideetara bideratutako diru-laguntzen ebazpena, eta laguntzotara bideratutako 4.875.000 euroak nola banatuta geratu diren hizpide bihurtu da. Bi datu ematearren, aurreko urtean 60.000 euro gehiago jasotzetik zetorren Berria egunkariak, iaz baino 208.000 euro gutxiago jasoko ditu aurten –Hizkuntza Politikarako sailburuorde Patxi Baztarrikak ñabardura egin eta kopurua 97.000 eurokoa dela dio–; euskarazko tokiko hedabideak batzen dituen Tokikom elkarteko kideek, berriz, iaz baino 180.000 euro gehiago jasoko dituzte denera, aurreko urteetan beherakadak izan eta gero –2012an aurreko urtean baino %18 gutxiago jaso zuten euskarazko tokiko hedabideek–. Egoera zaila leuntzea eragin du Tokikomeko kideentzat.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diru-laguntzak emateko irizpide berriek eragin dute aldaketa, neurri handi batean. Orain arte ez bezala, hedabide bakoitzaren irismenari eman dio garrantzia gehien; hau da, hedabide bakoitza irits daitekeen publiko potentziala kontuan hartuta, zenbat jenderengana iristen den hartu dute gehien kontuan. Hori horrela, tokiko hedabideen esparrua, adibidez, nazio mailakoena baino txikiagoa izanik –eta irakurle kopurua kontsideragarria den kasuetan–, oro har, irizpide aldaketak mesede egin die hedabide gertukoenei –ez guztiei–

**Irizpide berriak, "egokiagoak"**

Tokikomen eta elkartea osatzen duten hedabideetako ordezkariek diote dirua banatzeko irizpide berriak lehengoak baino egokiagoak iruditzen zaizkiela. Ez dute erabateko pozik agertzen, jakitun direlako euskarazko beste zenbait hedabidek kopuru txikiagoa jasoko dutela.

Honela, askok aipatzen dute diru-laguntzen banaketarako irizpideak fintzeko eta irizpideok Jaurlaritzak sektorearekin kontrastatzeko ahalegina egiteko beharra. Hortik harago, baina, ezinbesteko ikusten dute hedabideotara bideratzen diren diru-laguntzak ez daitezela bakarrik euskararen sustapenagatik izan; beste iturri batzuk ireki ditzaten ere eskatzen diete erakundeei. Tokikomeko zuzendari Alaitz Artolazabalek dio, adibidez, hedabideek "jarduera ekonomiko-industrialagatik" ere jaso behar luketela dirua, "beste sektore batzuetan egin den bezala". Erakundeek dioten bezala sektorea estrategikoa bada, hori praktikan gehiago erakusteko eskatzen dute.

**ALAITZ ARTOLAZABAL** | TOKIKOMEKO ZUZENDARIA

## "Efizientzia lortzeko lan handia egiten ari dira tokiko hedabideak"



J.I.

Eusko Jaurlaritzaren ebazpenari eta Tokikomeko hedabideen egoerari buruz mintzo da Artolazabal.

**Ze iritzi duzu Jaurlaritzaren ebazpenaren ondorioz Tokikomeko hedabideei iritsiko zaizkien kopuruei buruz?**

Tokiko hedabideek oso funtzio garrantzitsua betetzen dute, gertuko edukien erakargarritasunean oinarrituta, euskara gure etxeetaraino heltzeko. Lan horri esker, kapilarizazio handia lortzen da, euskarazko edukiak oso profil desberdinetako jendearengana eramanez eta mintzagai bihurtuz. Lan handia egiten ari dira tokiko hedabideak eta Tokikom efizientzia eta eraginkortasuna lortzeko asmoz: profesionalizazioa, apustu teknologiko sendoa, sinergiak eta eraginkortasuna garatzeko ahaleginak... Salto kualitatibo bat eman da, eta horretan inbertsio handia egin da, tokiko hedabideek izan dituzten eta dituzten baliabide murritzekin, eta borondate eta esfortzu askorekin. Hori guztia ikusita, uler liteke Jaurlaritzak nolabaiteko aitortza egin diola lan horri guztiari ebazpen honen bidez. Tokiko hedabideek jasoko duten poltsa, oro har, handiagoa da aurten, eta hori datu pozgarria da. Batetik, azken urteotan jaso dituzten laguntzen beheranzko joera eten egin delako, eta, bestetik, ondorioz, Tokikomeko hedabide gehienek –ez guztiek– laguntza handiagoa izango dutelako banan-banan hartuta. Baina komeni da perspektiba ez galtzea: 2010ekoekin konparatuta, esaterako, Tokikomeko bazkideek aurten jasoko duten bataz besteko laguntza txikiagoa da duela lau urtekoa baino.

**Banatzeko zegoen diru kopurua iazko bera izanda, besteetan gertatzen den moduan, batzuk gehiago jasotzen badute, beste batzuk gutxiago...**

Arazoaren muina da gure hizkuntz komunitatearen tamaina txikia: merkatua oso txikia da, eta euskaratik eta euskaraz sorturiko edukiak zabaltzeko negozioa ez da errentagarria egungo negozio eredua aplikatuz behintzat. Horrek euskara bultzatzeko konpromiso publikoa duten erakunde publikoen babesaren beharrean jartzen gaitu, eta gure autofinantzatze gaitasuna mugatu egiten du, negozioa dibertsifikatu ezean. Poltsa honen tamaina gora-behera, bada kontuan hartu beharreko alde garrantzitsu bat. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren diru-laguntzak hedabideen jarduerak dituen bi dimentsioetako bakarrera bideratuta daude: euskararen eta euskal komunitatearen sustapenera, hain zuzen ere. Baina euskal hedabideon jarduerak badu beste alde bat: ekonomikoa, industriala, eta horrek gainditu egiten du sailburuordetzaren irismena. Euskararen alorrean betetzen dugun funtzioa ondo garatzeko, beste alderdi batzuk ere garatu behar ditugu hedabideok, lehiakortasuna lortze aldera: berrikuntza, prestakuntza, inbertsioak, garapen teknologikoa... eta horiek ez dagozkio zuzenean. Benetan estrategikotzat jotzen badira, euskal hedabideen sektoreari beste ate batzuk ireki behar zaizkio erakundeen partetik, eta jarduera ekonomiko-industrial hori ere lagundu, beste sektore batzuetan egin den bezalaxe. Eta diru-laguntzak ez dira jarduera horri laguntzeko bide bakarra. Gure erakunde publikoen publizitate-inbertsioa, esaterako, hutsaren hurrengoa da diskurtso publikoan "estrategikotzat" jotzen den sektorean.

> **"Arazoaren muina da gure hizkuntz komunitatearen tamaina txikia"**

**Zer deritzozu sailburuordetzak irismena lehenetsi izanari?**

Bai, hala da, agian lehen aipaturiko bi dimentsio horietatik bakarrera bideratuta egoteagatik. Nire ustez, epe luzeko eraginkortasuna hedabideen lehiakortasunean dago, eta lehiakortasuna ez da egun batetik bestera lortzen. Lehiakortasun hori lortzeko beste aldagai batzuk ere baloratu beharko lirateke: besteak beste, sektorean, Hekimenen baitan lantzen ari garen eta Jaurlaritzarekin ere landu nahiko genituzkeen kalitatea, berrikuntza edo eraginkortasun soziala. Gure sektorean neurtzen horren zaila den irismena, azken helburua litzateke, lortu nahi den inpaktua. Hori da guztion helburua, baina horrekin batera neurtu beharko lirateke emaitzak, eta emaitza horretara heltzeko landutako prozesua ere kontuan hartu beharko litzateke, azken helburu hori lortzeko bidean.

**Zein da Tokikom osatzen duten hedabideen egoera ekonomikoa?**

Tokikomeko hedabide askok egun bizi duten egoera larria da, krisi ekonomiko orokorraz aparte, sektorea birplanteatzera bultzatzen gaituen krisi bat ere bizi baitugu. Birplanteatze horrek epe luzera begira jartzera behartzen gaitu, eta hori zaila da epe motzeko arnasa soilik duzunean. Gainera, batetik, aurrez aipaturiko merkatuaren tamainaren eta errentagarritasun ekonomiko eskasaren ondorioz, zaila da merkatu globalean lehiakor izatea; bestetik, horrek erakunde publikoen babesaren beharra eragiten du, eta haiekiko dependentzia ekonomikoa. Bizi garen ezagutzaren eta komunikazioaren aroan, Tokikomeko hedabideen balioa da balio jakin batzuk konpartitzen dituen euskal komunitatea sortzea, eta horretan izan nahi dugu lehiakor. Komunitatea sortzeko lan horretan, ordea, azpiegitura tangibletik baino gehiago intangibletik behar da, eta hori, tamalez, ez da egun diru-laguntzak emateko finkaturik dauden kostu estandarraren parametroetan islatzen. Lehiakortasuna lortzeko bidean, tokiko hedabideek salto kualitatibo bat eman dute, eta, aurrera begira, hortik jarraitu nahi dute, baina hori lortzeko baldintza ekonomiko hobeak behar dira: egonkortasuna eta ekiparatzea lortu behar dira. Gure borondatea da erakunde publikoekin sektorearen babes hori lantzen joatea, baina, era berean, autofinantzatzea ere lantzen joan nahi dugu, egungo bidetik, harpidetzak, publizitatea eta bestelako zerbitzuen eskaintza landuz, bizi izan ditugun diru-laguntzen gorabeheren eragina minimizatzeko.

> **"Erakundeen partetik beste ate batzuk ireki behar zaizkio sektoreari"**

**Zein behar luke sektorearen estrategia edo jarduteko modua aurrera begira, Tokikomen irudiko?**

Horren desberdinak garen hedabideak biltzen dituen neurrian, batzen gaituenean zentratu beharko luke, azken finean horrek sinestaraziko baitigu sektore bat garela eta modu horretan sinestaraziko baitiegu besteei sektore bat garela.

**PATXI BAZTARRIKA**
EUSKO JAURLARITZA

## "Ez hedabidea, ez Jaurlaritza; irakurlea da hedabide baten epaile"



IREKIA

Hizkuntza politikarako sailburuordea da Baztarrika.

**Zergatik lehenetsi duzue irismena laguntzak banatzeko irizpideetan?**

Guk helburu bat dugu ororen gainetik: euskararen erabilera areagotzea etengabe, eta horrek esan nahi du, hedabideen kasuan, kontsumoa handitzea, irakurleak areagotzea, prentsa idatziaren kasuan; helburu horri erantzuteko jartzen ditugu irizpideak, eta irizpide horietan irismenarena da nagusia. Zergatik? Ze, zenbat eta proportzio altuagoan iritsi hedabide bat hartzaile horiengana, orduan eta babes edo sustapen handiagoa izan behar du guztiona den diru publikotik. Euskarazko hedabideek nahitaezkoa dute babes instituzionala, eta babes instituzionalak izan behar du irakurleen babesaren pareko. Ze hedabide baten epailea ez da Jaurlaritza, ez da hedabidea bera, baizik eta da irakurlea.

**Banaketak zeresana eragin du...**

Batzuek atera duten zarataren gainean: orain arte eman gabeko datu bat emango dut: *Berria*-k aurten jaitsi du bere aurrekontua 485.000 euro. Aurrekontua jaitsi duenez, laguntzak banatzeko iazko irizpideak erabili izan balira, aurrekontua jaitsi hutsagatik, 110.000 euro gutxiago jasoko zituen aurten. Beraz, iazkoarekiko benetako diferentzia ez da 208.000 eurokoa, baizik eta 97.000koa. Eta hori 1,3 milioi euroko laguntzatik. Gainera, Jaurlaritzaren laguntza da *Berria*-ren aurrekontuaren %21,38; hedabideek, oro har, jasotzen duten diru laguntza, batez beste, da aurrekontuaren %18,72. Beraz, diskriminaziorik egotekotan, *Berria*-ri dagokionez, da diskriminazio positiboa.

**Elkarrizketa osoa:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

# fintzeko borondatez


Tokikomeko hainbat aldizkari.

## industrialagatik ere laguntzak behar direla dio Tokikomek

### Tokikomeko hedabideak

**1.** Zein dira tokiko hedabideek, zehazki zuenak, zuen komunitateari egiten dizkiozuen ekarpenak?

**2.** Zein da zuen egoera ekonomikoa? Zein zuen egoera baliabideei dagokienez?

**3.** Laguntzetarako dagoen dirua kudeatzeko moduari zer deritzozue?


GOIENA

**IBAN ARANTZABAL**
GOIENA

**1.** "Euskara heltzea ahalik eta etxe gehienetara, eta komunitateak bizitzea ez soilik hartzaile modura, baita komunitateko gainerako kideekin interakzioan ere".

**2.** "Krisi bikoitza bizi dugu: sektorearena eta ekonomikoa. Egoerak Goienan ere badu eragina: jende gutxiagorekin dihardugu, produktuak egokituko ditugu, denok egoitza bakarrean egonda gastuak murriztu ditugu, publizitatea behera... Gainera, 2012an hedabideen poltsatik %18 gutxiago jasotzetik gatoz tokikook".

**3.** "Hobeak dira irizpideok, bezeroak aintzat hartzen dituelako. Penaz, giroa gaiztotuta sumatzen dugu, eta ez da ona euskararentzat. Instituzioen eta alderdien borroketatik kanpo gura genuke euskara. Espero dugu administrazioetan, guztietan, euskara eta euskarazko hedabideak lehentasuna izatea, estrategikotasuna praktikara eramanez".


J.I.

**GORKA ZABALETA**
BALEIKE

**1.** "Lehena eta oinarrizkoena, gertuko informazioa euskaraz eskaintzea. Funtsezkoa: herritarrak euskararen unibertsora erakartzen ditugu".

**2.** "Gure gaitasun ekonomikoak ez du ematen gure komunitatearentzat nahiko genukeen komunikazio proiektua osatzeko. Mugatuta gaude. Ez daukagu inbertsioak egiteko ahalmenik. Jaurlaritzaren laguntzak lagunduko du urteko zenbakiak berdintzen. Baina urte zailetatik gatoz. Murrizketak egin behar izan ditugu, batez ere aldizkarian".

**3.** "Gaur egungo ereduarekin urtero izango da kalapita, poltsak ez duelako ematen denon beharrak asetzeko. Eredua aldatu behar da. Administrazioak aitortu behar digu industria sektore izaera, eta ate berriak zabaldu, sektore modura garatzeko, inbertsioak egin ahal izateko".


J.I.

**XABIER GOIENETXE**
AIKOR

**1.** "Txorierriko etxe gehienen kasuan, etxeotara sartzen den euskarazko komunikabide bakarra gara; eta erdal etxeetan ere eragin handia du, seme-alabaren bat edo ilobaren bat euskalduna izateagatik".

**2.** "Bost langile ditugu, beste zeregin batzuetan ere ibiltzen direnak. Krisia hasi zenetik, egoera ez da ona. Jaurlaritzaren laguntza igo egin da oraingoan, baina hilabeteko soldata ordaintzeko adina baino ez. Egindako lana ez da oraindik ere ordaintzen; lan boluntario asko ere badago langileenaz gain, eta hori sekula ez da ordainduko".

**3.** "Irizpide berriak aurrekoak baino askoz egokiagoak direla uste dugu. Baina arazoa sakonagoa da: gutxi badago, hori banatzea beti izango da problematikoa. Bestetik, guk zergatik ezin dugu Bizkaian publizitate instituzionala hartu beste batzuk hartzen duten bezala? Ez dugu batere, eta laguntzetara jo behar".


HIRINET

**EÑAUT IRAETA**
HIRINET

**1.** "Gu, berez, euskara elkarte bat gara [GEU elkartea], helburu duena Gasteizen euskararen erabilera sustatzea, eta euskaldunon arteko harreman sarea trinkotzea. Eta horretarako, euskarazko eta tokiko hedabideak beste tresna bat dira".

**2.** "Ditugun baliabideak urriak dira. 2012an sortu zen Hirinet, eta lortzen ari garena da mantentzea eta pixkanaka haztea, baina ez baliabideei dagokienez, baizik eta komunitateari dagokionez: gero eta ezagunago gara, irakurle eta jarraitzaile gehiago ditugu, baina baliabideak urriak dira".

**3.** "Uste dut argi dagoela ez dela nahikoa hedabideetara bideratzen den diruarekin. Irizpideak aldatu dira, bestalde, baina erabiltzen diren baremoak-eta ez ditugu ondo ezagutzen. Jaurlaritzak sektorearekin kontrastatu beharko lituzke, eta diru-laguntzen irizpideak adostu".


PIL-PILEAN

**EGOITZ UNAMUNO**
PIL-PILEAN

**1.** "Soraluzen komunikazio esparru propioa sortu eta euskara hutsean jardutea bera da ekarpen garrantzitsuena. Herriaren kohesioa eta nortasuna lantzeko tresna garrantzitsuenetakoa ere bada gure hedabidea".

**2.** "Aurreikuspen ekonomiko kaxkarrak zirela-eta, 2012an hamabostekari izatetik hilabetekari izatera pasatu ginen, eta langileen diru-saria ere murriztu egin genuen. Zorionez lan-taldean proiektuarekiko konpromiso eta kohesio handia dago, eta, horri esker, aldizkaria eta webgunea garatzen eta hobetzen jarraitzen dugu, inoiz baino indar handiagoarekin".

**3.** "Penagarria da sortu den egoera eta giroa. Kaltetuena sektorea bera da, bai gizarteari begira ematen den irudiagatik eta eragileen artean sortzen diren arrakalengatik ere bai. Sektorearen eta erakundeen arteko elkarlan estuagoa behar da".

IKUSPUNTUA



**URKO ARISTI**
TOKIKOMEKO PRESIDENTEA

## Egutera eta laiotza

Mendiak beti ditu bi aurpegi: egutera eta laiotza. Eguterarik gabe ez dago laiotzik, eta laiotzik ezean, eguterarik ez. Eguzkiak berak argia ez ezik, itzala ere sortzen duelako. Eta optimistak eguzki izpipean dagoenari begiratuko dio; pesimistak, aldiz, ilunari. Baina errealistak biei erreparatu beharko lieke.

Eusko Jaurlaritzak hedabideentzako laguntzen kopurua jakitera ematearekin batera hasi da ekaitza. Zenbait komunikabidek, *Berria*-k batez ere, beherakada itzela izan dute. Eta hori pena da. Gureetako batzuk ere bai. Jakin badakigu tokikook zertaz ari garen. Urteetan ikusi izan dugu guk gerorrek ere jasotako kopuruak nola egin duen maldan behera... Eta gorako bidean, erori, trabatu, eta hasierako puntura itzultzea beti da etsigarri.

Ospakizunerako prestatuta genuen hamaiketako gozoa mikaztu egin zaigu neurri batean, albokoekin batera egin nahi dugulako tontorrerako bidea. Egia da tokikoon zakua nabarmen handitu dela. Baina ez da propina. Ez da saria. Onarpena da. Horrela ulertu dugu guk behintzat. Kalitatea hartzen zuen kontutan Jaurlaritzak lehen; orain, berriz, irismena. Gu sinistuta gaude egiten dugunak baduela kalitatea, eta jakin badakigu egiten duguna iristen dela, euskaldunengana ez ezik, baita ez-euskaldunengana ere. Hori da gure indarguneetako bat.

Joko arauak zein diren jakitea premiazkoa da, bidea, bidezidorrak eta denak ezagutzeko. Eta irizpideen gainean eztabaidatu beharra daukagu, bai sektore barruan, bai Jaurlaritzarekin, jakina! Mokadutxo baten inguruan behar badu, lagun giroan behar du. Garai batean ez bezala, borondatea antzematen diegu, batzuei eta besteei. Esango nuke Tokikom bera eta Hekimenen aterpetxea sortu genuenetik, mendi horretan badela hamaiketakorako bilgune egokia, eta, dagoeneko, hitz egin, egin dugula. Baina argi dago, eta orain argiago, gehiago egin behar dugula. Gure bailara inguratzen duten mendiez, eta Everest-etaz. Denen berri izan nahi dugulako. Guztiak ditugu beharrezko, horrela baino ez dugulako osatuko atlas oso eta trinko bat.

Mendian gorako bideak nahiko neke sortzen du bestela ere, sokatiran gehiago nekatzeko. Zeinek zenbat baino, batera eta bestera baino, motxila partekatu, eta denak norabide berean. Lehendik ere larri gabiltza guztiok. Itotzekotan. Hauspoa behar dugu, horregatik. Arnasa hartzeko. Guri, nolabaiteko arnasgunea heldu zaigu egunotan. Eta aldapan gora jarraitzeko indarra hartu dugu. Eta horretan segituko dugu, guztiekin, elkarrekin.

## 'Izan zaitezke feminista euskaltzale izan gabe?'

KOMUNITATEA GOIENA | ARRASATE
ARRASATE EUSKALDUN DEZAGUN

*Izan zaitezke feminista euskaltzale izan gabe?* mahai-ingurua antolatu dugu elkarrekin Arrasateko Emakume Txokoak, Emunek, Goienak, Ekin Emakumeak elkarteak eta AEDk.

**Lau emakume-aditu**

Urriaren 30ean izango da, 18:30ean, Arrasateko Kultur Ateko areto nagusian. Hizlariak, berriz, honako hauek: Lorea Agirre (kazetaria eta antropologoa, eta besteak beste, HUHEZIko irakaslea), Ainhoa Beola (gipuzkoar politikaria, euskal euskal filologian eta pedagogian lizentziaduna, besteak beste). eta Idurre Eskisabel (kazetaria, besteak beste). Mahai-ingurua Aitziber Aranburuzabalak, Goienako kazetariak gidatuko du.



Idurre Eskisabel, Lorea Agirre eta Ainhoa Beola. | AED

## Benito Menni aitaren heriotzaren urteurrena gogora ekartzen dihardute egunotan

IMANOL GALLEGO | DEBAGOIENA

Duela 100 urte hil zen, Aita Menniren omenez, ekitaldi sorta bat antolatu du bere fundazio eta ospitaleak. San Juan de Dios kongregazioaren baitan kooperazioak duen garrantzia azaldu eta Liberia hobeto ezagutzeko antolatu dute hitzaldia. Lehen saioan (eguaztena), ebola oso presente egon den arren, Monrovian egondako boluntarioen eskutik, kolore, adeitsua eta eskuzabala den herri bat ezagutzeko aukera egon da. Atzo, eguena, berriz, fundazioak egiten duen lanari buruzko berbaldia egin zuten.

Giza garapenerako kooperaziorako gobernuz kanpoko erakundea da Benito Menni Fundazioa,

# Candyren Bergarako fabrika "likidatuta" dagoela uste du enpresa batzordeak

Elkarretaratzeak deitu dituzte euren kezken eta egoeraren berri emateko

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Candy-Groupeko arduradunen erabaki ofizialaren berri segitu arren, Bergarako fabrikako langileek atzera ere kalera irtetea erabaki dute, euren kezkaren eta egoera larriaren berri emateko. ESK, LAB, ELA, CCOO eta UGT sindikatuek osatutako enpresa batzordeak deituta hasi dira elkarretaratzeak egiten, Bergaran. Izan ere, duten pentsamendua da Bergarako fabrika "likidatuta" dagoela.

**Proiektu barik, oraingoz**

"Candyko ordezkariak Italian egon dira (taldearen zentralean), eta baita Eusko Jaurlaritzarekin ere, eta ez dute inolako proiekturik ekarri. Horrek pentsarazten digu Bergarako fabrika hilda dagoela. Datozen 15 egunotan iritsiko da Italiako erantzuna, baina uste dugu likidatuta dagoela, nahiz eta guk irtenbidearen zain segi. 2014ko jarduna bukatzeko bi hilabete falta dira, eta ez dugu lana izateko inolako bermerik. Aurrekontua lantzen dutenean, urtero egiten dute ahaleginen bat kostuen jaitsiera hobetzeko. 2015ari begira egindako aurrekontuan, berriz, ez dute zentzu horretan ahaleginik egin. Eta horrek pentsarazten digu erabakia hartuta dagoela: ez diotela etorkizunik ematen", esplikatu dute enpresa batzordetik.

**Etorkizuna ikusten diote**

*Ez diotela etorkizuna ematen* esaldia erabili dute enpresa batzordetik; izan ere, Bergarako langileek bai ikusten diote etorkizuna. "Uste dugu izan lezakeela etorkizuna. Elementu asko daude garbigailuen produkzioaren kostean eragiten dutenak. Adibidez, soldaten eragina da %19, hori txikia da. Baina beste kontu bat da, adibidez, produzitze denborak... edozein modutan, ez dute interesik erakutsi", esan dute etsipenez batzordetik.

> ESANAK
>
> **"Kostuak txikituz izan lezake etorkizuna"**
>
> ENPRESA BATZORDEA

**Txinaren beldur**

Abiarazi dituzten protestetan, bestalde, Candyko langileek gogora ekarri dute "egoera tamalgarria" bizitzen dabiltzala. Adibide moduan azpimarratu dute bi urtean 300 langileko taldea erdira jaitsi dela. "Horretaz gain, bost urte daramatzagu EREarekin, soldata eta etorkizuneko langabezi prestazioan duen eraginarekin", gehitu dute.

Baina talde multinazionalak Txinan dituen plantek beldurtzen dituzte, batez ere, bergararrak. Are gehiago, kontuan hartuta orokorrean sektorea bera krisi sakonean dagoela: "Kezkagarriena zera da, Bergaran egiten ditugun garbigailu berberak Txinan egiten ari direla eta, bide batez, lehendik lur jota dagoen europear merkatua saturatzen. Horregatik Candy Hoover taldeari gure etorkizuna azaldu dezan eskatzen diogu eta bide batez Bergarako lantegia eta bertako lanpostuak bermatuko dituen plan bat aurkeztea", eskatu diote Italian egoitza duen multinazionalari.

**Arantzazu Ibarrondo** | Oñatiko liburutegiko arduraduna

# "Liburutegiek doakoak, publikoak eta askeak izan behar dute derrigorrez "

2016an aldaketa garrantzitsuak izango dira gure herrietako liburutegi zerbitzuetan

U.M. | OÑATI

Gaur, urriak 24, Liburutegien Nazioarteko Eguna da. Gure herri guztietan betidanik izan dugun doako zerbitzu moduan ezagutu ditugu guk. Eta urtetan eraldaketa handia jasan dute. Onerako jasan ere. Eta askok uste baino inportanteagoa da liburutegiek gaur egun betetzen duten papera.

**Gaur egun zer da liburutegi bat?**

Liburutegia izan behar dena da topagune bat. Herritar desberdinen topagunea: adin, ideologia, herrialde... desberdinetako herritarren topagunea. Eta gaur egun hori da, hain zuzen, gure bailaran ikusten ari garena. Liburutegira ez datoz bakarrik bertan jaiotakoak, baizik eta lekua aurkitu dute, baita ere, etorkinek. Hortaz, liburutegi bat da kultura, ezagutza... sendotzeko edo bultzatzeko dagoen erakunde bat, topagunea, ideologia, ideia ezberdinak elkartrukatzeko, informazioa lortzeko...

**Ze mailatako erabilera dauka?**

Erabilera asko aldatu da. Lehen, ikasteko edo gaztetxoendako lekua baldin bazen eta heldu gutxi batzuk etortzen baziren, orain, erabat aldatu da. Internet sartu zenetik, gure erabiltzaileak mota desberdinetakoak dira: batzuk bakarrik Internet erabiltzen dutenak, beste batzuk maileguak, batzuk aisialdirako, beste batzuk formaziorako... erabilera anitza da. Gure bailaran ditugu oso liburutegi onak eta adibide onak dira garapen horren barruan.



Arantzazu Ibarrondo, Oñatiko liburutegian. | GOIENA

**Hezkuntza edo formazioa aipatu duzu; pertsona baten hezkuntzan liburutegiek zelako eragina dutela esango zenuke?**

Inportanteak dira, ez zentzu bakarrean. Azken finean, liburutegietan XVI. mendeko kontzeptu humanista hori kontuan hartuta, gizakia osotasunean lantzeko leku bat da. Interneti esker, gaur egun aurki zenezake informazioa edozein gauzari buruz. Baina formazio pertsonala ez da bakarrik asko jakitea gauza konkretu bati buruz. Gauza gehiago daude. Adibidez, pertsona bat estetikoki formatzeko liburutegietan ditu komikiak... etika aldetik... liburutegiak ematen du aukera pertsona formatzeko arlo desberdinetan eta osotasunean. Nik uste dut hori izan behar dela gure helburuetako bat. Bestela, nora goaz? Kalera? Etxera? Nik uste dut saiatu behar dugula topagune hori izaten, kultura, ideologia... ezberdinena. Topagune aske bat, publikoa, denona, denon ideiei harrera ona eman eta saiatu nolabait erreferente izaten gure gizartean: han informatuko naiz biologiari buruz, baina han baita aurkituko dut irakurketa bat nire arima lasaitzeko, edo pelikula bat ondo pasatzeko, eta han ikusiko dut pakistandar bat eta ikusiko dut nire auzokoa, 80 urtekoa, 2 urtekoa... herritarren topagune izan behar du.

**Berba gako bat esan duzu: *publikoa*. Geroago eta sarriago entzuten gabiltza hori arriskuan egon daitekeela...**

Bai, liburutegien kanona dela-eta... Nik uste dut publikotasun horrek baldintzatu behar duela lehen aipatu dugun ideologia askatasuna. Nik uste dut liburutegietan lanean ari garenok hori argi izan behar dugula, eta esatea: denon lekua da, denontzat dugu lekua, liburua... eta nik uste dut derrigorrezkoa dela horrelako zerbitzuak publikoak izaten jarraitzea. Publikoak eta oso independenteak. Ez du balio, adibidez, beste herri batzuetan dagoen moduan, Kultura zinegotziak liburuen aukeraketa egitea. Hori gertatzen da, adibidez, Nafarroan. Betatuta dituzte, adibidez, hainbat argitaletxe. Hori ezin da onartu. Liburutegiek doan eta publikoak izan behar dute.



# Denis Josselin

ZIRRARA SORTZEN DUEN FUNANBULISTA

'ZERUAREN ETA LURRAREN ARTEAN' IKUSKIZUNA

Urriaren 24an, 19:00etan
Arrasateko Herriko Plazan
**15 metroko altueran**

IKUSGARRIA!

**ZATOZ!**

Arrasateko
euskalgintza



Oñatiko Pake Leku elkarteko, Udaleko eta Gipuzkoako erretiratuen elkarteko ordezkariak. | TXOMIN MADINA

# Gipuzkoako erretiratuen eta pentsiodunen bilgune izango da bihar, zapatua, Oñati

Probintziako 600 erretiratu inguru elkartuko dira, goizetik, eta bederatzi kilometroko ibilaldia egingo dute herrigunetik bertan eta inguruetan

T.M./U.M. | DEBAGOIENA

"Hiru helburu ditu: lehena da elkarte desberdinetako pertsonen arteko harremana indartzea: informazioa trukatu, kontaktuak...; bigarren helburua atletikoa da, pertsonen bizitasuna erakusteko ibilaldia egitea; eta hirugarrena, zahartzaro aktiboa bultzatzea". Horiek jomuga, bada, 24. aldiz Gipuzkoako Erretiratuen ibilaldia egingo dute bihar, zapatua, Oñatin, Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarteko presidente Jose Rivierek azaldu duenez.

### Bi ordu pasatxo ibiltzen

Laranja kolorez jantzita, 10:00etan dute Oñatin elkartzeko hitzordua. Batzartu egingo dira lehenengo, eta ostean, 11:00etan abiatuko da ibilaldia, bederatzi kilometro izango dituena. Herrigunea zeharkatuko dute, baina Asentzioraino eta San Pedroraino ere helduko dira. Bost kontrolgune jarriko dituzte, eta, aurreikuspenen arabera, bi ordu eta laurdenean egingo dute. Bazkaria izango dute ondoren kiroldegian, eta baita dantzaldia ere.

Ibilaldiari begira, Rivierek bi ohar helarazi gura dizkie parte-hartzaileei: "Kontrolguneak pasatzeko, *patruila* osatzen duten lau lagunek elkarrekin egon behar dute. Laurak egon arte ez diete zigilurik jarriko. Bestalde, parte-hartzaileek ulertu behar dute helburua bizkor ibiltzea dela, bai, baina ez lehiatzea. Hau da, ez da lasterketa, eta ez dago zertan beste inor baino lehenago iritsi".

### Txokolatea, guardasolak...

Biharko egunak izango dituen bestelako ezaugarrien artean, bat da kanpotik horrenbeste jende etorriko dela ikusita, Oñatiko hainbat produktu erakusteko aprobetxatuko dutela bertakoek: "Pentsatu genuen erakusleiho ona izango zela plazan jartzea Oñatiko produktuak: gazta, txakolina, guardasolak, turismoko propaganda, txokolatea…", esplikatu du Jose Mari Igartuak, Oñatiko Pake Lekuko erretiratuen elkarteko kideak, eta hark iragarri du erositakoa gordetzeko kontsigna jarriko dutela.

### Aldaketak zirkulazioan

Ibilaldiak hainbat moldaketa eragingo ditu Oñatiko zirkulazioan: erdiguneko kaleak 11:00etan itxiko dira, eta, hainbat momentutan, zirkulazioa etenda egongo da ibilaldia igaro bitartean.

Bestalde, ekimena Gipuzkoako Erretiratuen eta Pentsiodunen Elkarteak antolatu arren, Oñatiko Pake Leku elkarteko kolaborazioarekin antolatu du. "Gure helburuarekin bat dator: gure helburua da bizitza ematea urteari", esplikatu du Igartuak. Hala, elkarteko 40 lagun inguru ibiliko dira lanean bihar. Horren harira, Jose Rivierek elkarteko kideen kolaborazioa goraipatu du. Eta Oñatiko Udalari ere eskerrak eman dizkiote.

**DATUA**

**40**

LAGUN

Oñatiko Pake Leku erretiratuen elkarteko 40 lagun ibiliko dira lanean. Elkartea kolaboratzaile da.

## Nazio mailako plataforma sortu guran, indarrak metatzeko

Gipuzkoako erretiratu eta pentsiodunen Duintasuna elkarteak Oñatin egin du hileroko batzarra, asteon. Egoera baloratu eta euren aldarrikapenak adostu dituzte. Eta, besteak beste, nazio mailako plataforma bat sortzeko asmoa dutela jakinarazi dute.

Izan ere, argi dute bateratzeak koordinazioa hobetzen lagunduko lukeela, eta erretiratuen intereseko gaien lankretan aurrerapauso handia litzatekeela, baina ezinbestekotzat jo dute plataforma edonorentzat irekia izatea. Oñatiko Pake Leku elkarteko kide Jose Antonio Amondarainek uste du "gai hauekin keztatuta dagoen jendeari aukera" eman behar zaiola parte hartzeko, "datozen lekutik datozela ere". Horrez gain, Gipuzkoako talde iraunkorra sortzea erabaki du, elkartearen funtzionamendua eta eraginkortasuna hobetzeko. Horren bidez, planteatzen dituzten borroketan aurrerapausoak ematea espero dute. Esaterako, urtebete pasa daramate botiken berrordaintzearen auzian egoera hobetzeko lanean. Eta pentsioen egoerak ere arduratuta dauzkate.




Duintasuna elkarteko kideak batzarrean. | MAIALEN TORRES

# Fagorren aktiboen erosketa laster gauzatuko dela espero dute

JON BEREZIBAR | DEBAGOIENA

Lege tramite kontuek atzeratu egin dute berriz Fagor Etxetresnen aktiboen erosketa, baina espero dute datorren astean itxi ahal izatea. Osterantzean, ekoizpen, kontratazio eta merkaturatze asmoek bere horretan jarraitzen dute, Fagor CNA Group-etik jakinarazi dutenez. Atzerapen horiek gorabehera, Fagor Etxetresnak ekoizpenari berrekiteko gertu daude.

### Langileak "hautatuta"

Gaurkoz, 70 langile kontratatu dituzte eta diote gehiago izango direla, CNA Group-ek Fagor Etxetresnak erosteko izapideak amaitu eta gero, "dagoeneko hautatuta" dauzkaten beharginekin. Horrekin, uztailean zehaztutako plangintza betetzen jarraituko dute. Nazioarteko sei filialak jardunean daude (AEB, Maroko, Dubai, Txina, Malaysia eta Txekia), dagokion sail komertzialarekin batera, eta Estaturako saila ere martxan da.

Bestalde, marketin eta publizitate atalari dagokionez, diote "oso aurreratuta" daukatela Fagor markaren irteera-kanpaina berria.

# Deskargako obrako langileek fitxatu egingo dute aurrerantzean

IMANOL GALLEGO | ANTZUOLA

Bergara-Antzuola eta Antzuola-Urretxu zatietan lan hitzarmena betetzea kontrolatzeko, fitxatzeko sistema jarri du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Alde batetik, obra egiten ari diren enpresei eta baita azpikontratatutakoei ere langileen inguruko beharrezko informazio guztia eskatu zaie, indarrean dauden lan hitzarmenen betetzea aztertzeko, kontrolatzeko eta bermatzeko beharrezkoa. Bestetik, obran lanean ari diren langileentzat fitxatzeko makinak jarri dira; langileek identifikazio txartelak izango dituzte, obrara sartzean eta bertatik irtetean kontrol makina horietatik pasa beharko dituztenak.

### Informatika eta pertsonak

Sistema informatikoaren bidez ezarriko den kontrolaz gain, Foru Aldundiak presentzia kontroleko mekanismo batzuk jarri ditu zaindarien bidez, eta haiek ziurtatu beharko dute obran dauden pertsona guztiek bertan egoteko baldintza guztiak betetzen dituztela. Zeregin horietan hamar pertsona arituko dira, bost obra bakoitzean, eta lan hori orain ere obretan aritzen diren zaindariek egingo dute.




Fagorren itxierarengatik kaltetutako batzuk, Biterin, eguaztenean . | A.T.

# Kapital bueltatzea eta lanpostu finkoak eskatzeko, manifestazioa

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Fagor Etxetresnen eta Edesaren itxierarengatik kaltetutakoek manifestazioa deitu dute Arrasaten. Hilabeteak daramatzate euren eskaerak astero kaleratzen, eguenetan, eta gehienetan manifestazioak eginda. Oraingoan, baina, biharko, zapatua, egin dute deialdia.

Fagor Etxetresnen San Andresko egoitzatik irtengo da protesta, 11:30ean, eta Arrasateko kaleak zeharkatuko dituzte bi eskaera egiteko: kaltetutako langile guztiendako lanpostu finkoak eta kapitalak bueltatzea.

### 400 langile lanik egin gabe

Salatu dute 1.500 lagunetik gora behin betiko birkokatu gabe daudela, eta, urtebete pasa arren, 411 langilek ez dutela egun bakar baten ere lanik egin. Gaineratu dute, besteak beste, euren dirua kooperatibak kudeatzeko utzi zutenei erantzunik eman gabe jarraitzen duela Mondragon Taldeak.



Debagoieneko Gure Esku Dago lantaldeetako hainbat kide azaroaren 8ko mosaikoaren berri ematen. | JULEN IRIONDO

# Azaroaren 8an Donostiako Zurriolako hondartzan elkartu gura ditu herritarrak Gure Esku Dagok

Izena eman behar da aurretik eta mahaiak jarriko dituzte egunotan Debagoieneko herri gehienetan

JULEN IRIONDO | BERGARA

Erabakitzeko eskubidearen aldeko mosaiko erraldoia egingo du Gure Esku Dagok azaroaren 8an, zapatua, Donostiako Zurriolan. Gutxienez 5.000 lagun batu nahi ditu dinamikak, hainbat irudi irudikatzeko hondartzan.

**Aurrez izena eman beharra**

Ekainaren 8ko giza kateak utzitako arrastoa ahaztu aurretik, Eskoziako erreferenduma pasatu ostean, eta Kataluniako galdeketaren bezperan, beste ekintza jendetsu eta ikusgarri bat egin gura du Gure Esku Dagok. Mosaiko handi bat egingo dute oraingoan Donostian, Zurriolako hondartzan, eta beste behin erabakitzeko eskubidea eskatu.

Ekintza hori antolatzeko Debagoieneko herri gehienetako taldeak martxan dira berriro. Batetik, herritarrak girotu gura dituzte azaroaren 8ari begira; eta bestetik, ekintza bera antolatu, aurreko lanak eginda. Izan ere, mosaikorako aurrez eman behar du izena jendeak eta horretarako mahaiak jarriko dituzte herriz herri eguna iritsi bitartean (Internet bidez ere eman daiteke: *gureeskudago.net*). Izena ematearekin batera (5 euro ordainduta), jendeak irudiak osatzeko beharrezko dituen kapa edo petoa eta aterkia izango ditu Zurriolan, egunean bertan.

Mosaikoa zelan egingo duten jakinarazi du Bergarako Gure Esku Dago lantaldeko Aitor Erañak: "Lehenengo momentuan kaparekin egingo dira bi bandera: bata, Eskoziakoa, eta bestea, Kataluniakoa. Gero, bakoitza bere lekuan kokatu eta guardasol zuria zabalduko da; hori izango da Euskal Herriaren bandera moduan, dena egiteko geratzen dela momentuz".

**Lantaldeetan jende beharra**

Ikasturteari hasiera emanaz, bailarako taldeetako ordezkariak Bergaran bildu ziren astelehenean, eta animatu dituzte herritarrak mosaikoan eta hurrengo ekintzetan parte hartzera: "Jendea oso pozik egon zen ekainaren 8an, baina hau… hau da maratoi bat, poliki-poliki joan egin behar da. Horregatik puntako momentu garrantzitsuak egongo dira, baina egunero-egunero saiatu behar gara gure bidea egiten".

Ekainaren 8ko aparra behera egiten hasi da hainbat herritan, baina lanean jarraitu beharra dagoela gogorarazi dute. Hala, bailarako taldeetan gustura hartuko lukete jende gehiagoren parte-hartzea barruko lanetarako. Halaxe dio Arrasateko lantaldeko Gorka Bergaretxek: "Gu, Arrasaten, 20 edo 25 bat elkartzen gara, baina sare hori gero eta handiagoa egiten bada dinamika honendako hobeto, errazagoa izango da-eta aurrera egiteko".

Hain zuzen ere, eskoziarrei zorionak eta katalanei animoak emateko ekintza izango da azaroaren 8an Donostian egingo dutena. Izan ere, bi herrialdeei begiratuta hainbat ikasgai hartu dituztela etorkizunerako jakinarazi dute Gure Esku Dago dinamikako kideek.

**ESANAK**

**"Hau da maratoi bat eta joan egin behar da poliki-poliki"**
AITOR ERAÑA | GED BERGARA

**"Sarea gero eta handiagoa bada, dinamikarendako hobeto"**
GORKA BERGARETXE | GED ARRASATE

**IZENA EMATEKO AUKERA**

**Arrasate**
Egubakoitzak, 24 eta 31 | Portaloian.
19:00etan.

**Bergara**
Eguena, 30; zapatuak, 25 eta azaroak 1 | Irala kalean.
18:00etan eta 12:00etan.

**Oñati**
Egubakoitzak, 24 eta 31; zapatuak, 25 eta 1 | Plazan.
19:00etan eta 12:00etan.

**Aretxabaleta**
Zapatua, 25 | Mitarte kalean.
18:30ean.

**Antzuola**
Egubakoitza, 31 | Kalebarrenen.
18:30ean.

**Eskoriatza**
Eguena, 30; domekak, 26 eta 2 | Plazan.
19:00etan eta 12:00etan.

**Aramaio**
Zapatua, 25 | Jubilatuen eguneko azokan.

# '#Elkarrion', adimen urritasuna dutenen ekarpena azpimarratzeko

Atzegiren sentsibilizazio kanpainan ahal beste 'selfie' jaso gura dituzte

JULEN IRIONDO | ARETXABALETA

*#Elkarrion* lelopean, adimen urritasuna duten pertsonekin sortzen diren harremanek elkarrenganako duten onura zabaldu eta ezagutzera emateko kanpaina jarri du martxan Atzegik. Joan den martitzenean Aretxabaletan aurkeztu zuten Debagoieneko kideek.

Kanpaina berrian nahi dute sare sozialen bidez jendeak *selfie*-ak bidaltzea, bakoitzak gertuko dituen adimen urritasuna duten pertsonekin ateratakoak, haiek transmititzen dituzten balio positiboak erakusteko, asko direla azpimarratzen dute-eta.


Bidalitako *selfie*-etako bat. | ATZEGI ELKARTEA

**Emateko asko duen kolektiboa**

Kanpainarako, elkarrenganako onura hori erakusten duten bi kartel sortu dituzte, adimen urritasuna duten pertsonekin sortzen diren harremanek duten aberastasuna agerian utzi nahian. Argazkiak benetako kasuetan oinarritzen dira, Maialen eta Gorkaren kasuetan. Bi bideo laburren bitartez, bi pertsona horien esperientziak ere kontatzen ditu Atzegik, protagonistak famili, gizarte eta lan ingurunean erakutsiz.

Atzegiko presidente Josean Idoetak zera azaldu zuen kanpainaren aurkezpenean: "Sarritan, adimen urritasuna duten pertsonak laguntza, zerbitzuak eta asistentzia behar duten pertsona gisa ikusten ditugu, baina gutxitan jartzen gara pentsatzen hauek inguruan zer eragiten duten. Tolerantzia, elkartasuna edo positibismoa dira askotan errepikatzen ditugun terminoak, urritasuna duten pertsonen ekarpenei buruz ari garela. Horregatik, aurtengo kanpainarekin, adimen urritasuna beste ikuspegi horretatik erakutsi nahi dugu, eta kolektibo honek emateko asko duela ikustarazi nahi diogu gizarteari".

**'Selfie'ak bidaltzeko eskaera**

*#Elkarrion* traolaren bidez, Atzegik gipuzkoarrei dei egin die *selfie*-ak bidaltzeko; Twitter, Facebook edo Whatsapp bidez bidali ahal izango dira. Hona zenbakia: 609 70 37 06. Gainera, kanpainaren informazio guztia jarrai daiteke Atzegi elkartearen webgunean: *www.atzegi.org/elkarrion*.

**Rafaela Romero** | PSE-EEren bozeramailea Gipuzkoako Batzar Nagusietan

# "Gizartea ezberdina da orain eta erantzun egokia emateko eskaintza erakargarria behar dugu"

- Batzar Nagusiak utzi eta PSE-EEren exekutiba berrian ariko da Romero aurrerantzean
- "Betiko ezkerreko balioen bitartez eskuma garaitzea oso erronka polita da", dio

**ENEKO AZKARATE** | ARRASATE

Rafaela Romero (Quintana de la Serena, Badajoz, 1972) sozialisten bozeramaile da Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta hala jarraituko du agintaldia amaitu arte. Ondoren, PSE-EEko exekutibari helduko dio buru-belarri. Gaztaroa Arrasaten eman zuen eta zinegotzi izatera heldu zen (1995-1998). Aurreko legealdian, Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidentea izan zen.

**Idoia Mendia PSE-EEko idazkari nagusiak osatu duen exekutiba berriko kide izateak ze ekarriko du zuretako?**

Bai, politika publikoa utzi eta alderdi barrura begira ariko naiz euskal sozialisten exekutiba berrian. Eta gero, nire lanbideari, zuzenbideari, ere helduko diot berriro. Arrasaten eta Pasaian zinegotzi nintzela, Batzar Nagusietan ere aritu nintzen, baina baita abokatu bulegoan ere. Azken zortzi urteotan, ordea, utzia nuen hori, Batzar Nagusietan buru-belarri aritzeko, presidente moduan lehenengo eta bozeramaile orain. Ziklo bat amaitu eta berria hasiko dut. Zuzenbidea eta eskubideak defenditzea gustuko dut; hortaz, irrikan nago galdutako denbora errekuperatzeko. Zuzenbidean ari garenok beharrezko dugu egunean egon, azken lege aldaketak, gizartearen aldaketaren ondorioz, azken berritasunak, ezagutu, aintzat hartu eta praktikan jartzeko. Horretan emango dut asti dezente aurrerantzean. Jakina, ilusio handiarekin heltzen diot euskal sozialisten exekutibako lanari ere.

**Zeintzuk dira euskal sozialiston erronka nagusiak orain?**

Eskaintza sozialista berrindartzea, herritarren babesa erakartzeko. Izan ere, egoera ezberdin baten aurrean gaude. Terrorismoaren osteko aroan. Lehenago gertatu ahal zen, baina orain heldu da eta euskal gizartea beste egoera baten aurrean dago, gizarte ezberdina da. Eta gizarteari erantzun egokia emateko eskaintza erakargarria behar dugu. Erronka zirraragarria daukagu aurrean. Politikan inoren mehatxu barik jardutea ederra da.

**Pedro Sanchezen aldeko agertu zara. Ondo ari da?**

Haren aldeko hautua egin nuen eta babesa eskaini zion plataformako kide izan nintzen. Eta hura aukeratu nuen Madrilera ordezkari moduan joan nintzenean. Alderdi sozialistaren betiko ezkerreko balioen bitartez eskuma garaitzea oso erronka polita da. Abiapuntua oso zaila zen, herritarren konfiantza eta botoen babesa galduta genuelako, baina apurka-apurka geureganatzen ari gara. Eta oso ezkerreko pertsona da Sanchez. Konplexu barik, PPren gobernu ultra-kontserbatzaileari zela egiten dion aurre gustuko dut. Proposamen ezkerreko eta aurrerakoia egiten gabiltza. Kritsitik atera gaitezke burumakur eta eskubide barik edo egin dezakegu duintasunez eta eskubideei eutsiz. Ikusiko dugu ondo ateratzen den.

**100 egun egin ditu karguan eta lehen kritikak entzun ditu.**

Argi-ilunak izan ditu. Politika birsortzeko ahaleginean, PPrekin ez nintzateke eseriko, hark egin duen moduan, usteldura dagoenak ezin dezakeelako ezer birsortu. Baina, bestetik, Europan estrategia egokia erakutsi du, eskumako Juncker edota Cañete ez babestuz, ez gaudelako haien doitasun ekonomikoaren alde.

**Andaluziako sozialisten idazkari nagusi Susana Diazek kritikatu egin du darabilen estrategia komunikatiboa.**

Bigarren mailakoa iruditzen zait. *Salvame* saiora deitu duela? Ez dit axola. Nahiago dut sinesgarri izan eta babesgabeei laguntzeko neurriak bultzatzea edo proposatzea. Zapatu gaueko beste telebista saio bat bada, ustez intelektualagoa, baina elkarri mokoka aritzeko eta albokoa kritikatzeko espektakulua baino ez da. Nahiago dut proposamen baikorrak edo positiboak egitea, edozein dela tokia.

**Aurrekontuak osatu, adostu eta onartzeko unean gaudenean, ze paper izango du PSE-EEk bai Gipuzkoako Diputazioan eta baita Jaurlaritzan ere?**

Gure lehentasuna da babes txikien daukaten pertsonak laguntzea, enplegua sustatzeko neurriak edo politikak bultzatuz. Beste alderdiak ere lehentasun horietara gerturatzen diren neurrian, adostasunak lor ditzakegu. Baina, esaterako, Gipuzkoan ekonomia suspertzeko neurrien aurka bozkatu duen Bilduk asko aldatu beharko du, alderdi sozialistaren neurri aurrerakoietatik urrun dagoelako. Oraintsu, Arrasaten garraio publikorako 25 euroko tarifa bakarra ezartzeko proposamenaren aurrean, kontra bozkatu du.

**Azkeneko asteotan, ordea, adostasunetara heldu zarete Bildurekin Gipuzkoan, Kabiarekin eta zerga kontuetan, esaterako. Ze adierazten du horrek?**

Helburu nazionalista hutsak albo batera laga eta pertsonak lehentasunen erdian kokatzen direnean adostasunak lor ditzakegu. Ustezko ezkerreko aukera, zein baino zein nazionalistago aritzen denean, txarto goaz. Orain, egia da, bai, Kabiaren kontuan adostasunak lortu ditugu konpartitzen dugulako diagnostikoa eta ona delako egoitzetako langileendako eta udalendako egoitzak Diputazioak kudeatzea, legeak dioen moduan.

**Aurreikusten duzu aldaketarik Gipuzkoako Diputazioan hurrengo legealdiari begira?**

Lehenbizi, hauteskundeak egin behar dira, emaitzak ikusi. Gero gerokoak. Herritarrek dute hitza eta haiek baloratuko dute azkeneko lau urteotan bakoitzak egin dugun lana. Orain hipotesiak egiteak ez du ezertarako balio. Emaitzak eta, esaterako, Bilduk ze lehentasun dituen ikusi beharko dugu lehenengo, hauteskunde ostean zer egin erabakitzeko. Gipuzkoa aurrera ateratzeko prest zein dagoen ikusi behar da.

**Beldur diozue Podemosi?**

Herritarren borondatearen adierazpide bati errespetua behar zaio eta beste alderdiei zor diegun errespetua zor diogu Podemosi ere. Politikan modu ohikoan aritu garenon aurrean, Bildu, EAJ, PP edo PSE-EEren aurrean, beste aukera bat direla erakutsi dute. Ohiko alderdiok sinesgarritasuna galdu dugu.

**Zeure burua *kasta*-kotzat duzu?**

Haiendako denok gara *kasta*. Akaso ez ditugu argi gorriak antzeman eta ez dugu jakin herritarrak entzuten eta haien beharren aurrean proposamen egokiak egiten.

**Pedro Sanchezek dio Podemos populismoa dela.**

Ez zait definizio egokia iruditzen. Hanka sartu duela uste dut. Erraza da kea saltzea, eta ni horren aurka nago. Amets faltsuak ez zaizkit egokiak iruditzen, ez dut politika egiteko modu hori gustuko. Baina aukera politiko guztiek errespetua merezi dute. Podemosi ez diot beldurrik.

**Katalanek eskubidea dute haien etorkizunaren gainean erabakitzeko herriari hitza emateko?**

Katalanei hitza ematearen aldeko naiz, baina, betiere, legearen barruan. Gure kasuan, nik ez daukat zalantzarik Euskal Herria nazio bat dela, baina nik uste dut nazio hori bi estaturen barruan egon daitekeela. Eta uste dut Artur Mas-ek irteerarik bako kale estu batera eroan dituela herritarrak, eta frustrazioa sortu.



Rafaela Romero, Gipuzkoako Batzar Nagusietan. | GIPUZKOA.NET

**"Ekonomia suspertzeko neurrien aurka bozkatu du Bilduk"**

**"Kasta'? Ohiko alderdiok sinesgarritasuna galdu dugu"**

**"Podemosi ez diot beldurrik; aukera guztiek merezi dute errespetua"**

**"Mas-ek irteerarik bako kale estu batera eroan ditu herritarrak"**

## ZABALIK



**IRAITZ AGIRRE ARANGUREN**
goiena.net/komunitatea/

# Erabakitzeaz

Orri zuriaren aurrean, erabakiak hartzea dagokio hau idazten duenari. Zeren inguruan idatzi? Nondik hasi? Egunerokotasuneko hamaika erabaki txikietako bat besterik ez izan, eta hartzea kosta. Zer esan orduan mugarri izango direla uste dugun erabakiez?

Maiz, zer nahi dugun jakin ez, baina zer nahi ez dugun kontuan hartzetik hasten da ariketa. Abiapuntu horretatik, norabidearen koordenadak zehazten hasi gaitezke, jakinda ez garela zurien edo beltzen artean ari, tonu askotako gris eskalan baizik.

Baina nork zer du erabakitzen? Nori dagokio erabakiak hartzeko eskubidea? Hortxe dago gakoa, erabakitze eskubidea duten subjektuak identifikatu eta aitortzean. Herri bezala, emakume gisa, besteez arduratzen garen zaintzaile moduan edo hilko garen pertsona bezala, eskubideok aldarrikatzen ditugu. Baina eskubideak ez dira bandera edo aldarri bakarrik, eskubideak gauzatu eta erabili egin behar dira.

**"Eskubideak ez dira aldarri bakarrik, erabili egin behar dira"**

Eta zertarako? Ba erak edo moduak aldatzeko, aukera anitzak posible izatea ahalbidetu eta subjektu horien neurrirako mundutxoak eraikitzeko.

Nolako ereduak nahi ditugun pentsatu, sortu eta asmatzeko tenorean kokatu beharko genuke gure burua erabakitzeaz dihardugunean.

Erabakiak hartzeak nolako erak nahi ditugun zehazteko abiapuntu bat izan behar luke, edo mugarri bat, behinik behin, baina inoiz ez helmuga bat. Erosotasun gunetik jauzi egin eta ezagutzen ez dugun igerileku batean uger egitea eskatzen du.

Salto egiteko erabakia hartzen duenak igerilekua barik itsasoarekin topo egingo du batzuetan. Eta korronteak indartsuak izan arren, nekez eramango du nahi ez duen lekuren batera.

Orri zuriaren aurrean hartutako erabakiak txikiak dira, baina gauzatze hutsak hasiera batean pisu zena arintasun bidean jartzen du.

## USTEAK USTE

**MAIDER ARREGI** | marregi@goiena.com

# Harreman pertsonalak

30 urte igaro dira, Iparraldeko mendietan barrena antzuolar familia batzuek Aiherrakoekin kasualitate hutsez topo egin zutenetik. Une hartan hainbat sentimenduk bat egin zuten bi herrien artean eta familien artean. Eta sentimendu horiek egun indartuta diraute.

Baina zein da sekretua? Pertsonak direla, eta jaiotako harremana pertsonek ereindakoa dela, barru-barrutik ateratakoa. Euskal herritarrondako irakasgai aparta! Badaukagu, bai, zer ikasi sentimendu eta jarrera horretatik. Bi herrien arteko harreman zintzoa eta fidela; interes komuna duena: euskara eta gure kultura zabaldu eta sustatzea. Mila esker, Antzuola eta Aiherra.

## MARRAZKIZ

**UNAI BUSTURIA** | goiena.net/komunitatea/




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Indarrean

**Anjel Lertxundi Esnal**
berria.eus/blogak/lertxundi/

Protesta dezente eragin du gaztelaniaren akademiek *frankismo* hitzari emandako definizioak hiztegi argitaratu berrian:

"Totalitario izaerako diktadura Franco generalak inposatua 1936-1939ko gerra zibilaren ondoren eta hura hil arte mantendua".

Deskafeinatua omen.

Baina diktadura behintzat deitzen dio definizio berriak: orain arte indarrean egon denak —egin du euririk franko!— ez zion diktadura ere deitzen.

Indarrean dago!

Sano-sano darabilgu esapidea, ez diogu justizia poetikorik ikusten.

Baina badu, eta asko: *Indarrean dago* esaten diogu gaztelaniaz *vigente* edo *en vigor* dagoenari.

Frantsesez *en vigueur* esaten zaionari, eta inor ez da kontu-eske hasi (oraindik!) Konstituzioa indarrean dagoela edo Werteren erreforma indarrean jarri dutela esateagatik, ez gintuen eskandalizatzen Rafael Sánchez Mazasi eskainitako Bilboko kalearen izena indarrean egon izanak atzo arte.

Askotan motel entzuten dugu hizkuntzak ozen esaten diguna.

# Nazkatuta nago!

**Josune Azurmendi**
argia.eus/blogak/josune-azurmendi/

Ideal markak (guk Bimbo izenez ezagutzen dugunak), emakumeentzako ogia atera du, eta nola ez arrosa eta more kolorea ezarri die poltsei.

Ez dakit zuei, baina niri atzo arratsaldean lelo, harridura, haserre… aurpegia azaleratu zitzaidan merkatal zentrura joan eta produktu hau apaletan ikusi nuenean.

Zertan ari gara?

Zein da produktu honen helburua?

Noski, oso normala da, hemen uda dator eta emakumeak dietan jarri nahi dituzte, horretarako… emakumezkoei zuzendutako ogi espeziala!

Eta zein ote da produktu honen publizitateko esaldia?

*"Emakumeok, heldu da itxaroten ari ginen ogia!*

*Gorputz perfektua izan nahi duzu?*

*Zaindu zaitez neska uda dator eta!*

*Zelulitisari agur esan nahi?*

*Sabel perfektua lortu nahi?"* edo horrelako zerbait izan liteke, ezta?

Bai, bai nahi dut, publizitate sexista guztia pikutara joatea nahi dut!

Nazkatuta nago argaltzeko produktu guztiak emakumeei bideratuta daudelako, edo produktu hauetan emakume argalen irudiak besterik agertzen ez direlako!

Nazkatuta nago gizarte honetan emakumeak beti argal egon behar duelako!

Nazkatuta nago publizitateak emakumeari ematen dizkion rol sexista guztiez!

Nazka ematen didate emakume guztiak gizarteak ezartzen duen emakumearen irudian sartu nahi dituen publizitate kanpainek, produktuek!

Ez al gara ba berdintasunean oinarritutako gizarte bat eraikitzen ari?

Ba jakin ez duela hau erakusten publizitateak!

goiena" KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## GUTUNAK

# Eskerrik asko!

**Araceli Lorenzo eta Ana Pascual**
Antzuola

Astero Arrasateko San Juan de Dios ospitale geriatrikora joaten garen bi boluntario gara. Han bizi den emakume talde batekin (oraingoz ez delako gizonik animatu) elkartzen gara, eta puntua egiten dugu. Eurendako relax-une bat dela diote, eta guretzako, motibazio iturria. Hasieran beldur apur batekin hasi baginen ere, emakume horiek oso erraz jarri digute bidea. Puntada baten eta bestearen tartean, hari-zuntzen artean eta kafe egin berriari trago batzuk emanez, konfiantzan eta entzuketan oinarritutako lagun-giro atsegina sortzen ari gara, eta askatasunez hitz egiten dugu gure ardurez, amodioez, beldurrez, gure ametsez...

Eskerrak eman nahi dizkiegu astero hartzen gaituzten emakumeei eta bereziki eskerrak Isabeli, Eibarko Artile dendakoari, orratzak eta artileak doan emanda aurrera jarraitzeko animoak ematen dizkigulako. Eskerrak Juanitari eta beste zenbait laguni ere, ikusten ez den euren lanari esker, gizarte onbera eta justuagoa lortzeko borondatezko lan hauek egiten jarraitu ahal dugulako.

# 30 urte / 30 ordu

**Mikel Azkarate, Andoni Larrañaga eta Ander Bolibar**
(Txapa Irratia)
Bergara

Noraino hel gaitezke hogeita hamar ordutan, gelditu gabe, errelebotan?

Oinez Bergaratik Mauleraino, agian, ez da urruti. Korrika Bordeleraino, Kilian Journeten kuadrilla bat bagina. Bizikletan, Tourreko 7 etapatan, Bruselara. Kotxean Moskura. Eta gai izango ginateke munduari buelta erdi emateko hegazkin komertzialean.

Iritsi al dira txapako uhinak duela 30 ordutik argiaren abiaduran esne bidetik kanpo?

Eta 30 urtetan, noraino iritsi dira txapako uhinak azken hiru hamarkadetan?

Iritsi dira bihotz lehorren bat hunkitzera? Ezpain zurrun batzuk irribarre batekin kurbatzera? Ukiezinak direla pentsatzen duten handinahien bekokiak ximurtzera? Piladun transistorearekin, walkman-ean, kotxean, iPod bitartez, iritsi al gara zure belarrietara?

Hemen gaude Roro, Azkarate, Iosu, Alusti, Andoni, Ainhoa Narba, Osama, Mireia, Patxi, Ugalde, Iñu, Lander, Ander, Jokin, Joakin, Txefo, Herreros, Ibon, Izaro, Iñigo, Arriaran, Txinbo, Aitzol, Arkaitz, Idoia, Aitor Narba, Ugutz, Olivo, Seti, Irati, Aperri, Mikel, Damian, Irene, Amaso, Boli, Aser, Ekaitz, Kepa, Olaia, Unai eta Martin. Eskerrik asko asteburuko maratoian bidaide izan, eta lagundu gaituzuen guztioi: Aranzadi Ikastola, Pol Pol mendizale taldea, Bergarako Udala, Goiena, Garate, Ubera, Azkaiter, Urtzi Azkue & The Funk Junkers, Uxue Zabaleta, Asier Elorza, Kapi, Fiachras, Fly Shit, Lekittoko Deabruak… eta asteburuan karpatik pasa zareten txapakide eta txapazale guztiei!

Guregana iritsi nahi baduzue, ez itxaron 30 urte gehiago, ongietorriak zarete Txapa Irratian!

# Euskaldendak–ek liberalizazio–lege berrirako errekurtsoa txalotzen du

**Bitor Lizarribar**
(Euskaldendak–eko lehendakaria)
Durango

Euskaldendak-en elkartutako 4.300 merkataritza baino gehiagok Tapia kontseilariaren iragarkia ospatzen dute, non merkataritza-ordutegiak liberalizatzen dituen lege berria errekurritzea iragartzen den. Arauak, BOEn ostiralean argitaratutakoak, Bilbo eta Donostia bezalako etorri turistiko handiko udaletan merkataritza-ordutegiak guztiz liberalizatzea nahi du.

Eusko Jaurlaritzaren gogoetekin bat etorriz, lege berri honek Euskadin merkataritza eta turismo arloetako jardunaldirako ahalmena "husten duela" ulertzen da. Bai arau hau bai 20/2012 Errege-Dekretu-Legea, ordutegien, beherapenen eta jaiegunen ingurukoa, "eskumen inbasioa dira, aniztasuna eta merkataritza- egituraren egotea kaltetzen dutena". Beraz, berri honek Euskaldendak-ek sindikatu eta kontsumitzaile elkarteekin batera hasitako kanpainan esfortzu bat suposatzen du, Eusko Jaurlaritzak eta Parlamentuak Konstituzio Auzitegian estatuko arau hauek errekurritu ditzaten.

Euskal merkataritzaren ordezkariek errekurtso honek 20/2012 Errege-Dekretu-Legean dakarren arazoaren gaineko adabaki bat dela uste dute, oraindik errekurritu gabe jarraitzen duena Etorri Turistiko Handiko Zonei dagokienez. Horrela, Euskaldendak-eko Batzordeak, iragarki hau analizatzeko batu denak, Eusko Jaurlaritzak bere ekitaldi eta iragarki guztietan koherentea izateko aukera duela ulertzen du eta horrela, euskal aktore gehiengoari interesatzen ez zaion irudiaren aplikazioa saihestea.

Errege-Dekretu-Lege hau ez bada errekurritzen, Eusko Jaurlaritzaren onartzea ekarriko du. Omisio hau soilik uler daiteke Eusko Jaurlaritzak Madrilek bere betebeharrak egitea nahi badu, Euskadin interesik ez duten enpresen interesen alde.

Iragarritakoaren koherentziagatik, bigarren errekurtso hau euskal CESek igorritako proposamenaren onarpenari gehitu behar zaio, "laugarren aldaketako merkataritza-jarduerako Legearen Aurreproiektuaren Legearen" erretira premiatuz, Euskadirako aipatutako Errege-Dekretuaren transposizioa zela eta.

Begi-bistakoa da errekurtso honetarako motibazio bakarra presio soziala dela –Euskaldendak-ek, sindikatuek eta kontsumitzaileek bultzatuta–, orain Tapia kontseilariak darabiltzan motibazioak lehenago zeuden, bere sailburuordeak Bilboko ordu-askatasun handiagoa iragartzen zuenean, hau da, maiatzean.

Erabakia, nahiz eta egokia izan, Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Udalak gai hau zer-nolako opakutasunarekin daramaten adibide argia da, alde interesatuek ezagutzeko eskubidea duten informazioa ukatuz. Holako arrazoiengatik, Euskaldendak-ek zirkunstantzia hau Arartekoaren ezagueran jarri du.

# Herri bezala libre!

**Maider Otamendi, Xabier Vallina eta Ibai Redondo**
(Debagoieneko EHBildu)
Debagoiena

Urriaren 3an Arrasateko EAJko Udal Taldeak EBBko kide baten eskutitza euskaratua argitaratu zuen orri hauetan. Bertan, eraien militantzia politikoagatik Madrilen epaituak izaten ari diren 28 gazteei pairatzen ari diren injustiziaren aurrean laguntza ez eskatzeko esateaz gain, hauen ingurukoei Estatu Espainol zapaltzailearen morroi izatea egozten digute, indarrean dagoen legalitatea obeditzen omen dugulako eta txintik esan gabe ordenamendu juridikoa betetzen dugulako, besteak beste, kudeatzen ditugun instituzioetan bandera espainola jarriz.

EAJko kideei esan nahi diogu estatuekin konfrontazio demokratikora eramango gaituen bidean urratsak elkarrekin egiteko prestutasun osoa dugula. Herri gisa, euskal herritarrok espainiar edota frantziar joko arauetan aukerak bilatu beharrean, euskal joko arauak elkarrekin idatzi behar ditugula deritzogu. Euskal Herriak bere etorkizuna prestatu eta eraiki behar du, bere buruaren jabe izanez. Euskal Bidea hori lortzeko apustua da eta inoiz baino beharrezkoagoa da gaur egun.

Bide propioa, egoki planteatutako posizio politikoen bitartez eta legitimazio demokratiko zabala lortuz egin behar da, indarrean dagoen legediak onartzen ez dituen helburu politikoak lortzeko. Bide horretan, desobedientzia ezinbesteko tresna izango da eta prest gaude bide hori egiten hasteko eta inposatuak zaizkigun hainbat lege (LOMCE,...), ikur (espainiar bandera,...) eta eremu (audientzia nazionala...) desobeditzeko. Baina horretarako gehiengo politiko eta sozialen sorrera eta aktibazioa nahitaezkoa da eta gustatuko litzaiguke EAJrekin posizio horretan bat egitea. Herri gisa desobeditzeko eta estatuei planto egiteko data eta ordua jartzea. Gure instituzioetako balkoietatik ikur espainola kentzea, ikastetxeetan LOMCE aplikatzeari uko egitea, audientzia nazionalean epaituak izateari uko egitea,...

Prest al dago EAJ, Madrilera begiratzeari utzi eta bide propioa elkarrekin diseinatzen hasteko? Euskal Bidea ez baita EH Bilduren egitasmoa, guztiok herri gisa elkarrekin egin beharreko bidaia da.

# Milesker handi bat

**Laida Muxika**
(Ziburuko Kaskarotenea ikastola)

Maritxu egunean, Arizmendi Ikastolako Gazteluondo guneko haurrek liliak banatu zituzten karrikan, Ziburuko Ikastolari emateko batutako dirua. Bada gure esker ona eskualde hartako herritar guztiekin partekatu gura dugu. Milesker handi bat Arrasateko haurreri Kaskarotenea ikastola laguntzeagatik beraiek egin loreekin!

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

**HERRITAR KAZETARITZA**

Goienaren mugikorretarako aplikazio berria. Goienarekin zu berriemaile!

- **Kexatu:** Testu eta argazkien bitartez kexa eta salaketak egin daitezke.
- **Txalotu:** Ekimen ala gertaerak aupatzeko txokoa izango da.
- **Bidali argazkiak:** Albisteak proposatu, irudiak bidali, zerbaiten berri eman...
- **Oharrak bidali:** Jakinarazpen, prentsa-ohar zein abisuen lekua da.

**Deskargatu!**

Beheko QR kodea irakurrita, aplikazioa jaitsi daiteke Google play edo App Store dendetan.

Google play | Available on the iPhone App Store

goiena.eus

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

# HERRIAK

ARRASATE

# 20 urte, eta inoiz baino gazteago

## Txatxilipurdik bi hamarkada egin ditu aisialdia era hezitzailean eta euskaraz eskaintzen



Sanjuanetako Haur eta Gaztetxoen Egunean, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuneko talde argazki berezia. *20 urte euskaraz maitatzen* leloa jarri zuten agertoki azpian. | TXATXILIPURDI

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Gutxi izango dira *Txatxilipurdi* hitza irakurri edo entzun eta elkartearekin loturarik egingo ez duten arrasatearrak. 20 urte egin ditu AED euskara elkartetik askatu eta bere bidea egiten hasi zenetik. Baina urteak aurrera joan ahala, gero eta gazteago dago elkartea. Proiektu eta ekimen berrietan murgilduta daude *txatxilitarrak*, izan Arrasaten, bailaran zein Euskal Herrian.

Arrasaten bertan hiru ludoteka, lau gazte txoko eta hamaika proiektu eta ekimen dituzte haur eta gaztetxoei aisialdia euskaraz eskaintzeko, betiere modu hezitzailean.

**Sortu aurretik ere, lan handia**

AED izan zen Txatxilipurdiren *ama:* "AEDtik sortu ziren beste elkarteen antzera, lantalde moduan funtzionatzen zuen erakundetu aurretik. Gainera, Txatxilipurdiren kasuan, ia hasieratik zegoen haurren aisialdiarekin lan egiten zuen talde bat. Jarduna bolumena hartzen joan zen heinean eta AED barruan kudeatzea gero eta zailagoa zenez, erakundetu egin zen elkarte moduan", gogoratzen du AEDko Itxaro Artolak. Hori 1994an gertatu zen. Baina *amatxorengandik* askatu aurretik Txatxilipurdi lantaldeak hainbat ekintza antolatu zituen. Horien artean, honako hauek: 1988an egin ziren lehen udaleku irekiak, eta urte berean ireki zen Seber Altube plazako ludoteka. Orduan, Larunbatero ere egiten zen, zapaturako aisialdi errefortzua. Eta arrakastatsua izaten zen Gabonetako bigarren eskuko disko eta liburuen azoka; Seber Altuben egiten zen, frantziskotarrek utzitako aretoan.

**Zerbitzuak eta elkarlana**

Arrasaten egun eskaintzen dituzten zerbitzu gehienak udal zerbitzuak dira, ibilbide luzekoak. Udalarekin azken 20 urteotan izandako elkarlanak lagundu du Arrasaten aisialdi eskaintza "sendoa" egoten. Arrasatetik kanpo ere Debaguneko elkarteekin udaleku konpartituak antolatzen dituzte, kudeatzen dituzte aisialdi zerbitzu publikoak eta tailerrak eta ikuskizunak ere egiten dituzte Euskal Herrian zehar.

Eta zerbitzuekin batera, luzea da gaur egun antolatzen dituzten ekintzen zerrenda: udaleku irekiak eta itxiak, ludoteka ibiltaria, jostailu truke merkatua, Gabonetako Txikilandia haur parkea, Gurasolandia... Baina ez hori bakarrik: "Txatxilipurdiren ekimenak badira ere, norbanako, elkarte eta administrazioen laguntza jasotzen dugu ekintzok aurrera eramateko, eta eskertzen dugu, zinez", dio elkarteko zuzendari Eneko Barberenak –ikus elkarrizketa hurrengo orrialdean.

*12. orrialdean, jarraipena.*



AEDko Txatxilipurdi lantaldea 1988an hasi zen udalekuak antolatzen. Erretratuan, 1992ko udalekuak. | TXATXILIPURDI

ESANAK

**"Ia hasieratik zegoen umeekin lan egiteko taldea AEDn"**

ITXARO ARTOLA | AED





1996ko udaleku irekietako sanferminetako entzierroa, plazan. | ARRASATE PRESS

*11. orrialdetik dator.*

**Haurraren autonomia lantzen**

Txatxilipurdiren proiektuen artean Berramesten egitasmoa nabarmendu beharra dago: "Etorkizunerako egitasmoen artean badugu berrikuntza metodologikoa ekarri duen Berramesten egitasmoa, zeina jada azken 2-3 urteotan martxan den Txatxilipurdik kudeatzen dituen arlo ezberdinetan. Honez gain, aurki albiste pozgarriak iritsiko direlakoan gaude elkarlanezko hezkuntza egitasmoetan Arrasaten, Euskal Herri mailan *Herri hezitzailea eskola herritarr*a lantaldearen eskutik eta aztertzen ari garen bestelako lan-ildo batzuetatik".

Labur esanda, haurrari entzun eta haren hitzari garrantzia ematean datza Berramesten proiektua. Horren harira, Francesco Tonucci psikopedagogo italiarrak 2013ko maiatzean egin zuen bisita oso emankorra izan zen *txatxilitarrendako*. Izan ere, martxan hasi berria zen lan metodologiari ekarpen interesgarriak egin zizkion Tonuccik. *Haurren hiria* liburuan hiria eta haren antolaketa umeen begiradatik ikusten hasteko beharra aldarrikatzen du ikerlari italiarrak, esaterako.

Filosofia hori barneratu eta Txatxilipurdiko begiraleek zein hezitzaileek badihardute ume zein gaztetxoekin batera eurak gura duten aisialdia antolatzen. Noski, badago ukiezina den baldintza bat: euskara.

**ENEKO BARBERENA** | TXATXILIPURDIKO ZUZENDARIA

## "Asko dago egina eta asko dago egiteke, baina, oro har, harro gaude"



GOIENA

2007ko uztaila ezkero elkarteko zuzendari da Eneko Barberena (Arrasate, 1983). Kargua "erantzukizunez eta harrotasunez" darama: "Etorkizunarekiko kezkaz eta itxaropenez, herritar gehienok moduan", dio.

**20 urte pasa dira AED edo *amatxorengandik* askatu zinetela. Nolakoa zen Txatxilipurdi jaio berria eta nolakoa da orain?**

AEDn hastapenetik egon da haur eta gazteen aisialdia lantzeko gogoa eta horren fruitu izan zen 1988an udalekuak antolatzen hasi zen Txatxilipurdi lantaldea. Txatxilipurdi *zaharrean* herri ekimena eta gazteen inplikazioa ziren nagusi eta hizkuntzaren erabilera ardatz. Gaur egun, balio berriak txertatu dira, eta, inplikazioa baden arren, lanaren profesionalizazioa joan da nagusitzen.

**Nola baloratzen duzue bi hamarkada hauetako ibilbidea?**

Asko dago egina eta oraindik asko dago egiteke, baina, oro har, harro gaude.

**Hasierako helburuak eta egungoak mantentzen dira?**

Hasierako helburuetan hizkuntza zen nagusia. Gogoan hartu behar da modu orokorrean euskarazko irakaskuntza pausoak ematen hasia zela urte gutxi batzuk lehenago, baina oraindik baziren A eta B hezkuntza ereduak indarrean Arrasaten. Beharrezkoa zen haurren aisialdiko hizkuntza ohituretan eragitea hezkuntzaren lana osagarritzeko. Gaur egun, aisialdia indartuago dago lan esparru gisa eta hizkuntzaren helburuaz gain, hezkidetza, parte hartzea eta kulturartekotasuna daude. Labur liteke egoera esanaz 'aisialdia euskaraz' aldarrikatzetik 'aisialdi hezitzailea euskaraz' aldarrikatzera pasa garela.

**Elkarlana ere bada *txatxili*-ren ardatzetako bat.**

Parte hartzen dugu edo laguntzen dugu hainbat forotan: euskalgintza, azoka, herriko eta auzoetako jaiak, bidezko merkataritza... Ahalegintzen gara parte hartzen guretzat interesgarriak diren foroetan edo haur eta gazteen ikuspegia aintzat hartzea garrantzitsua den horietan.

**Nola dago antolatuta elkartea?**

Antolaketa ez da erraza, tamaina asko handitu delako azken urteotan. Bazkide asko eta langile asko gara, baina langileei dagokienez, batez ere, oso dedikazio ezberdinak daude, lanaldi osotik hasita astean ordu gutxi batzuk egiteraino. Erronka da aniztasun horri erantzun ona ematea, eta badugu oraindik zer hobetu.

# Udal tasak izoztuta, urarena eta ondasun higiezinena izan ezik

### 2015erako ordenantza fiskalak EAJren kontrako botoekin onartu dira aurten

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Uraren Udal zergan %2ko igoera eta Ondasun Higiezinen gainekoan %1ekoa. Bi horiexek izango dira 2015eko ordenantza fiskaletan herritarrek igarriko dituzten aldaketa nagusiak. Gainontzeko zerga guztiak eta tasak 2014ko prezio berean mantenduko dira: zabor-tasa, kirol instalazioen zerbitzua, Iturbide egoitza, bide publikoaren erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren gaineko tasa eta jardueren baimenen tasa. Martitzeneko osoko bilkuran EAJk kontra bozkatu zuen (4) eta gainerako alderdiek –Bilduk, PSE-EEk eta Aralarrek–, berriz, alde (16).

**EAJ: "Igoera zero gura dugu"**

EAJko zinegotzi Maria Ubarretxenaren arabera, jeltzaleek agintaldi hasieratik planteatu izan dute igoera zero izatea: "Aurten %2 igotzen da, iaz orokorra %2 eta zaborrarena %4... Baina gure galdera da: azken hiru urteetan Arrasateko zenbat etxetan igo dira soldatak portzentaje horietan? Deflazio baten aurrean bagaude, kontraesana iruditzen zaigu Udalak ordenantza fiskaletan igoera aplikatzea".

Bestalde, Udal Gobernuko bozeramaile Maider Morrasen arabera, "berebiziko garrantzia" dauka adostasuna lortu izanak: "EAJk izan ezik, gainerako alderdi guztiek adostu dugu zergak ez igotzea, bi salbuespen horiekin".

Uraren kontsortzioak %4 igo dio uraren zerga Udalari eta horregatik Udalak herritarrei %2ko igoko die. Bestalde, ondasun higiezin gaineko zergan Udalak iazko diru bilketa berbera egiteko %1 igo behar izan du zerga: "Balio katastralaren jaitsiera dela-eta %1 igo dugu; erabaki teknikoa izan da, ez politikoa".

**ESANAK**

**"EAJk izan ezik, gainerako alderdiek adostu dugu zergak ez igotzea"**

MAIDER MORRAS | UDAL GOBERNUA

**"Deflazio baten aurrean egonda, kontraesana da Udalak igoera aplikatzea"**

MARIA UBARRETXENA | EAJ



Martitzeneko osoko bilkuran, bozketaren une bat. | JOKIN BEREZIARTUA

## Espetxez aldatu dute Kepa Arkauz preso arrasatearra

**J.B.** | ARRASATE

Kepa Arkauz preso arrasatearra Meaux kartzelara eraman dute. Orain arte bost hilabetez bakartuta egon da Villepinteko kartzelan, eta irailetik orain arte Mitard izeneko ziega baten egon da, euskal presoen kolektiboko kide batekin jar dezaten eskatuz. Orain Oier Gomez preso gasteiztarrarekin dago Meaux kartzelan, orain arte zegoena baino urrunago; 900 kilometro baino gehiagora.

Espetxe aldaketarekin uneotan senideek ez dakite orain arte hartuta zituzten bisita egunak mantenduko diren, noiz izango dituzten.... Meaux espetxean eta Villepinten bisitak ezberdinak dira-eta. Senideek ez dute inolako informaziorik oraindik, eta Oier Gomezen senideekin egotekoak dira haiek esango dietenaz zerbait gehiago jakin asmoz.

### Familia euskaldunak eta atzerritarrak mahaiaren bueltan elkartuko ditugu azaroaren 23an

Familia euskaldun bat eta atzerriko beste bat bilduko dira domekako bazkaria konpartitzeko azaroaren 23an, bietako baten etxean. Helburua da elkar ezagutzeko espazioak irekitzea eta aurreiritziak eta estereotipoak gainditzea. Debagoienak ere bat egingo du Bizilagunak ekimenarekin, Elkarhezitzen, Caritas eta Ekinen eskutik.

KOMUNITATEA GOIENA
EKIN EMAKUMEAK | ARRASATE

### Erretiratuen eta etorkinen txanda datorren astean, hondakinen gaineko informazio kanpaina barruan

Edukiontzi berdea kendu eta marroia (organikoa) zein grisa (errefusa) jarri aurretik, informazio kanpainarekin dihardu Hondakinen Mahaiak. Datorren astean lau erretiratu etxetan eta etorkinen aurrean emango dituzte hitzaldiak informatzaileek eta Hondakinen Mahaiko kideek. "Irudien bidez eta modu praktikoan", hondakinak zelan sailkatu azalduko dute. Astelehenheko Goiena paperean emango da zabalago kanpainaren berri.

### Eguaztenean, hilak 29, botako dute Arbolapetako gaztainondoa; astelehenean omenaldia egingo diote

Betiko desagertu baino lehen, herritar talde batek omenaldia egin gura dio 110 urte luzez arrasatearrei topalekua eta abaroa eman dien Arbolapetako gaztainondoari. Omenaldia astelehenean izango da, 19:00etan. Mozketa lanei dagokienez, 08:00ak aldera hasiko dira udaletxeko langileak jardunean eta eguerdira arte ibiliko dira. Zenbait unetan Olarte kalea itxi egingo dute eta inguruko lauzpabost aparkaleku ere hustu egingo dituzte.




Donostian aurkeztu zuen diseinuetako bat. | AMAIA ALBES

## Donostian erakutsi du Amaia Albesek bere azken bilduma

T.M. | ARRASATE

Amaia Albes diseinatzaileak *Uncover* bilduma aurkeztu zuen urriaren 11n Donostia Fashion Week delakoan. Zorroaga elizan izan zen desfilea, eta bertan, bildumako bost *look* eta zortzi pieza erakutsi zituen. "Goi-joskintzako piezak dira, material onekin eta eskuz egindakoak. Bilduma honekin erakutsi gura izan dut nola alda daitezkeen soinekoak", dio bere azken bildumari buruz diseinatzaile arrasatearrak.

**Bost 'look', zortzi pieza**

Donostiako desfilean parte hartzeko aukeraketa bat gainditu behar izan du Albesek: "Dosier bat aurkeztu behar izan nuen lehenengo, eta hamabost aukeratu gintuzten. Oso pozik nago aukeratu nautelako; ez nuen espero, eta, gainera, banekien jende asko aurkeztu zela". Ekain bukaeran jakin zuen aukeratu zutela, eta lan handia egin behar izan du desfilerako dena prest izateko.

Desfileak izan duen harrerarekin ere pozik dago Amaia Albes: "Jendearen erantzuna harrigarria izan da; esan didate, adibidez, salto handia egon dela aurreko bildumatik hona. Ezagutzen ez duzun jendeak zoriontzea izan da saririk onena". Laster zabalduko duen *atelier*-a da Albesen hurrengo erronka.

# Atzo ezkero martxan da Ferixalekuan TAO sistema

Doakoa da, eta astelehenetatik zapatuetara egongo da indarrean

J.B./ T.M | ARRASATE

Atzo jarri zuten martxan Ferixalekuan, Uarkape frontoiaren eta Amaia antzokiaren arteko gunean, TAO sistema (OTA). Mugikortasun Planaren barruan kokatzen da sistemaren ezarpena: "Helburua da errotazio sistema baten bidez baldintzak erraztea, kontsumitzaileak joan ahal daitezen erostera Udal Azokara zein erdialdera". azaldu du Hirigintza zinegotzi Jose Etxeberriak.

50 autorendako lekua egongo da aparkalekuan, eta, oraingoz, proba moduan jarri dute. Asmoa da gerora erdigune osora zabaltzea TAO sistema.



50 autorendako lekua egongo da Ferixalekuan. | TXOMIN MADINA

**Doakoa**

Sistema berriarekin, gehienez 90 minutuko egonaldi bat egin ahalko da. Denbora hori igarotakoan erabiltzaileak ibilgailua kendu egin beharko du eta ezingo du bertan aparkatu hiru ordu igaro arte. Era berean, ez da tarifarik ordaindu beharko ibilgailua bertan aparkatzeagatik.

Hori bai, doakoa izan arren txartela hartu egin beharko da derrigorrez, eta irakurtzeko moduan erakutsi beharko da. Astelehenetik zapatura artekoa izango TAO sistema: 08:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Domeketan, jai egunetan eta abuztuan ez da TAOrik egongo.

TAO sistema ez da berria Arrasaten, unibertsitate inguruan martxan dago-eta. Dena den, Uribarri-Loramendi gunean ez bezala, Ferixalekuan, aparkatzea doakoa izanda, ez dira egoiliar txartelak banatuko.

**Arau-hausteak eta isunak**

Bestalde, arau-hauste arintzat hartuko dira denbora gainditzea; txartelik ez lortzea edo irakurtzeko moduan ez jartzea; eta hiru orduko aldia igaro barik berriro aparkatzea. Horiei 50 euroko isuna aplikatuko zaie. Eta arau-hauste larritzat hartuko da txartel manipulatu, faltsutu edo deuseztatua erabiltzea; azken horiendako 200 eurokoa izango da isuna.

## Feminismoa eta euskaltzaletasuna mintzagai eguenean Kulturaten

T. M. | ARRASATE

Arrasateko Emakume Txokoak, Emunek, Goienak, Ekin Emakumeak elkarteak eta AEDk elkarlanean antolatuta, *Izan zaitezke feminista euskaltzale izan gabe?* mahai-ingurua egingo dute datorren eguenean Kulturaten, 18:30etik aurrera. Kazetariak, antropologoak eta feministak diren Lorea Agirrek eta Idurre Eskisabelek eta Aralarko politikari eta Donostiako Udalean Berdintasun zinegotzi izan zen Ainhoa Beolak hartuko dute parte bertan hizlari moduan, Aitziber Aranburuzabalaren gidaritzapean.

**Eskubideak ardatz**

"Eskubideen inguruko mahai-ingurua izango da: batetik, emakumeen eskubideen, eta bestetik, euskal hiztunen eskubideen ingurukoa", dio landuko diren gaien inguruan Amets Beltran de Gebarak, Emakume Txokoko dinamizatzaileak, eta jarraitu: "Euskalgintzak erabili dituen estrategiek balio ote dute erronka feministei erantzuteko? Eta alderantziz? Horrelako galderei erantzun gura diegu, bi mugimenduetan izan diren esperientziak trukagarriak diren aztertu gura dugu; beti ere, justizia sozialaren ikuspegitik".



ARRASATE HERRI ESKOLA

## Arrasate Herri Eskolakoak, primeran Aralar aldean

102 lagunek hartu zuten parte joan den domekan Arrasate Herri Eskolak, Guraso Elkarteak eta Elkarbizitza batzordeak antolatutako mendi irteeran. Ikasturte honetako lehenengo irteera izan zen, eta Lareon, Aralar inguruan, ibili ziren. Perretxiko gutxi batu zituzten arren, eguraldia lagun, ederki pasa zuten haur, gaztetxo zein helduek.

K OMUNITATEA GOIENA | ARRASATE
HERRI ESKOLA | ARRASATE

## OHARRAK

**1969AN JAIOTAKOEN BAZKARIA GARAIAN**

1969ko kintoek azaroaren 8an bazkaria egingo dute Garaian. Urriaren 31 baino lehen eman behar da izena, La Caixan 40 euro sartuta: E536 2100 1972 000200145316.

**1979KO KINTOEN BAZKARIA**

1979ko kintoak bihar 12:30ean Herriko Plazan elkartuko dira; bestela, Garibaitik 14:00etan irtengo da autobusa Tartufora.

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Diagnostikoa - Orientazioa
Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak
Arreta psikologikoa genero indarkerian
Laguntza eskolarrak
Estimulazio goiztiarra
Logopedia
Ikasketa teknika eta ohiturak
Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

NAFARROAKO PIPERRAK
Arrasaten egosita
Eroski hipermerkatuaren parkingean gaude
609 21 00 62



Lore
LURRINDEGIA
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

**Andoni Ezkurra** | Emakumezkoen Mondra taldeko entrenatzailea

# "Sufrimenduaren ostean, futbolaz disfrutatzeko urtea da hauxe"

- Emakumezkoen Mondra taldeak Gipuzkoako Erregionalean lehiatzen dihardu
- Aste bukaeran Bergararen kontrako derbia jokatuko du Ipintza zelaian

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Irailan 28an hasi zuen emakumezkoen Mondra taldeak liga txapelketa. Iaz Bigarren Maila galdu ostean, aurten, Gipuzkoako Erregional mailan lehiatzen dihardute. Maila aldaketa bai, baina jokalari berberak ditu taldeak. Andoni Ezkurra entrentzaileak aurreratu dizkigu denboldirako asmoak.

**Lau partidu jokatu ostean, bost puntu. Liga txapelketa ondo hastea inportantea da?**

Bai, inportantea da. Oraingoz, partidu bat irabazi, bi berdindu eta bat galdu dugu. Bost puntu ditugu. Ondo hastea inportantea da, baina hasi besterik ez gara egin. Bide luzea dugu aurretik.

**Iazko denboraldi gogorraren ostean, aurtengorako ze asmo duzue?**

Disfrutatzea da gure helburu nagusia. Iaz asko sufritu genuen, entrenamenduetan, partiduetan... Eta iazkoaren ostean, aurten, disfrutatu, futbolean jokatu eta ondo pasatu gura dugu.

Bigarren Maila galdu ostean, berez, Euskal Ligan jokatzea tokatzen zitzaigun. Jokalariekin berba egin ostean erabaki genuen maila horri uko egin eta hutsetik hasiko ginela berriro. Alegia, Erregional mailatik.

**Emakumeen taldean gizonezkoen taldean egindako berbera egin duzue orduan?**

Bai. Maila galduta eta bizitako urte gogorraren ostean, proiektu berri bat hasteko ordua zela erabaki genuen. Jokalariak ados zeuden erabakiarekin. Euskal Ligan ere ez genuke mailarik emango, eta, jokalarien ikasketak aintzat hartuta, entrenamendu saio egokiak egiteko arazoak izango genituzke.

**Bigarren Mailan egindako denboraldiak zertarako balio izan dizue?**

Ikasteko, eta sufrituz noraino heltzeko gai garen ikusteko eta erakusteko. Jakinda Bigarren Mailan lehiatzeko talderik ez genuela, aurrera egin genuen. Partiduak bata bestearen atzetik galduta ere, gogoz entrenatzen ginen. Esperientzia hartzeko urtea izan zen. Taldea sendotzeko urtea. Eta orain, ondo pasatzea eta disfrutatzea tokatzen zaigu.

Bestalde, nire ikuspegitik, oso aberasgarria izan da eurekin lan egitea. Astero-astero, kinka larrian egonda ere, ez dute umorerik eta animorik galdu, eta hori oso inportantea da.

**Erregional mailan hobeto lehiatuko zarete?**

Bai. Gure multzoan badaude gu baino indartsuagoak diren taldeak. Mutriku, esaterako. Iaz igoera lortu zuten, baina eurek ere uko egin zioten igoerari. Nahiago izan dute futbolarekin disfrutatzen jarraitu. Taldeak oso antzerakoak gara, eta edozeinen kontra irabaz edo gal dezakegu.

Ni maila honetan hasi nintzen entrenatzen eta banekien hemen lehiatzeko gai izango ginela.

Bestalde, gure multzoan dauden taldeak ingurukoak dira eta bidaiak ez dira horren luzeak. Gainera, partiduak zapatuetan jokatzen ditugu, eta hori asko eskertzen dute jokalariek.

**Zeintzuk dira aurtengo helburuak?**

Partiduz partidu joango gara helburuak zehazten. Multzo bakoitzeko lehenengo hirurek igoera jokatuko dute eta besteek, berriz, Kopa txapelketa. Inork ez du mailarik galduko, eta horrek lasaiago egoteko balioko digu.

**Emakumeen Mondra taldea oso indartsua izan da. Maila hori berreskuratzeko aukerarik badago?**

Ziur nago baietz. Mondrak talde ikusgarria izan zuen, baina, belaunaldi aldaketarekin, egoera aldatu egin zen. Gertaera ziklikoak dira, baina egun taldean dihardutten emakumeak, hiruzpalau urte barru, gorago lehiatuko direla ez daukat inongo zalantzarik. Belaunaldi ona da eta euren maila erakutsiko dute.

**Aste bukaeran derbia jokatuko duzue Bergararen kontra. Derbiak beti dira bereziak?**

Bai. Guretzako derbi bereziena Arizmendiren kontrakoa izaten da, baina Bergarara ere gogotsu joango gara. Derbien aurretik urduriago egoten dira jokalariak. Helburua irabaztea izango da.



Andoni Ezkurra, Mojategin. | GOIENA

**"Bigarren Maila galduta, Euskal Ligari uko egin genion"**

**"Partiduz partidu zehatuko ditugu denboraldirako helburuak"**

## Mondra-Lazkao Mojategin

Mondrak Lazkaoren bisita izango du Mojategin (domeka, 16:30). Aurreko astean Lagun Onaken kontra puntu inportantea lortu ostean, puntuak hirunaka batzea komeni zaie, sailkapenean gora egiteko. Une honetan 12. lekuan dago Mondra (16 talde daude bigarren multzoan) bost punturekin, bost partidu jokatu ostean. "Taldea animatuta dago. Giro ona daukagu. Asteon, egindako akatsak zuzentzeko lan egin dugu. Ea bada, zelaian ditugun asmoak gol aukera bilakatzen ditugun", dio Urtzelai entrenatzaileak.

# Mendiko bizikleta martxa Mendi Astearen barruan

M.B. | ARRASATE

Bigarrengoz egingo dute bihar, zapatua, Mondran Bike, Arrasateko mendiko bizikleta martxa. Besaideren eskutik egingo duten proba Mendi Astearen ekitaldietako bat da.

**Bi ibilbide**

Mendiko bizikleta martxa 09:00etan hasiko dute Musakola kiroldegi aurrean, eta parte-hartzaileek han eman dezakete izena 08:00etatik 09:00etara. Federatuta daudenek bost euro ordaindu behar dituzte eta federatuta ez daudenek, hamar.

Antolatzaileek bi ibilbide zehaztu dituzte, eta txirrindulariek aukeratu egin beharko dute zein egin. Luzeak 34 kilometro ditu, 1.150 metroko desnibelarekin, eta laburrak 22 kilometro, 800 metroko desnibelarekin.

Bi ibilbideak Musakolan hasiko dira eta Bedoñaraino bide bera egingo dute. Handik, ibilbide luzea aukeratzen dutenek Urkulu aldera hartuko dute eta laburra aukeratzen dutenek, Kurtzetxikira. 32 kilometrokoa aukeratzen dutenen ibilbidea Arrasate-Kobate-Udala-Arrasate-Zazpibide-Bedoña-Urkulu-Galarrixa-Bedoña-Kurtzetxiki-Arrasate izango da. Eta 25 kilometrokoaren ibilbidea, Arrasate-Kobate-Udala-Arrasate-Zazpibide-Bedoña-Kurtzetxiki-Arrasate. Batean zein bestean, Udala, Galarrixa eta Kurtzetxiki dira punturik garaienak.

Bukaeran, parte-hartzaile guztientzako luntxa, dutxak eta bizikletak garbitzeko mangerak egongo dira Musakolan.

**Kilian Jorneti buruzko filma**

Bestalde, Besaideren Mendi Astea bukatzeko Kilian Jornet protagonista duen pelikula emango dute: *Déjame vivir* delakoa. Hilaren 29an emango dute, Kulturateko areto nagusian, 19:00etan.

Seb Montazek zuzendutako pelikulan, Jornetek eta haren lagunek 2013an egindako lorpenak batu dituzte iruditan eta protagonisten hitzetan; besteak beste, Mont Blancera, Elbrusera eta Cervinora egindako igoerak eta jaitsierak.

# Irabazi beharreko partidua jokatuko du Ford Mugarrik Leioan

M.B. | ARRASATE

Urdanetaren kontra erraz irabazi ostean, beste talde bizkaitar baten kontra jokatuko du Ford Mugarrik aste bukaeran (zapatua, 19:30): Askartzaren kantxan, Leioan. Irabazi beharreko partidua, bai ala bai. "Askartza beti izan da talde indartsua, baina aurten, akaso, indarra galdu dute. Hainbat aldaketa izan dituzte taldean: entrenatzaile eta jokalari berriak", esan du Pablo Gartzia entrenatzaileak. Aldaketa horiek aprobetxatu gura dituzte irabazteko.

**Kopa txapelketa**

Bestalde, martitzenean egin zuten Euskal Kopako kanporaketak zehazteko zozketa. Ford Mugarrik Eibarren kontra jokatuko du, Iturripen, abenduaren 8an. Tolosa-Bidasoa, Urdaneta-Barakaldo eta Trapagaran-Zarautz dira beste kanporaketak.

## Zaldibarko areto futbol txapelketan parte hartu gura dutenek hilaren 27an eman behar dute izena

Zaldibarko areto futbol txapelketaren 53. aldia azaroaren 1ean hasiko dute eta dagoeneko egin dute izena emateko deialdia: interesa duten taldeek hilaren 27an eman beharko dute izena Kulturateko areto nagusian, 17:30etik 20:00etara. Talde bakoitzak 275 euro ordaindu beharko ditu. Fidantza 75 euro da. Informazio gehiago gura dutenek mezua bidal dezakete *zaldibarkofutbitotxapelketa@gmail.com* helbidera. Bestalde, antolakuntza talderako boluntarioak behar dituzte.

## Gernika liderraren kontra jokatuko du errugbi taldeak domekan, 12:00etan, Mojategin

Kanpanzar ART taldeak liderraren bisita izango du etzi, domeka, Mojategin. Bera Berari Donostian irabazi ostean, oraingoan, Gernika bizkaitarrak izango dituzte aurrez aurre. "Iaz ez zuten talderik izan, eta ez dakigu nolako taldea izango den. Horrek kezkatzen nau gehien. Dena dela, ondo entrenatzen gabiltza eta partiduetan maila ematen ere bai", esan du Igor Isasi entrenatzaileak. Liga hasiera ona egiten dihardute arrasatearrek, eta bide beretik jarraitu gura dute.

**Agurtzane Lizarralde** | Lore Gazteak dantza taldeko kidea eta urteurrenaren egunaren antolatzailea

# "Buru-belarri ibili gara ikuskizunaren entseguekin"

Bihar, hilak 25, ospatuko da Lore Gazteak dantza taldearen mende erdiaren urteurrena, eta, horregatik, jardueraz jositako eguna izango da Arrasaten



Agurtzane Lizarralde. | A. LARRAÑAGA

A. A. / A. L. | ARRASATE

Kike Gomez de Segura markinarra Arrasatera ikastera etorri zenean sortu zen Lore Gazteak dantza taldea, 1966-67 ikasturtean. Hura dantzaria izanda, bere kuadrilla *Musakolako Neskak* kuadrillarekin batu eta Lore Gazteak taldearen hazia landatu zela kontatzen du Xeli Agirrek, dantza taldeko ikurretako batek. Garai hartan ez zegoen Agurtzane Lizarralde, baina urte batzuk daramatza dantza munduan eta Lore Gazteak taldeko kide izaten.

Lizarralde duela 39 urte inguru hasi zen dantza munduan eta Lore Gazteak dantza taldearen ibilbidea barrenetan bizitakoa da, duda barik; horregatik, bihar ospatuko den 50. urteurrenaren ospakizuna gogoz eta ilusio handiz bizi izango du, hura dabil-eta biharko egunaren antolakuntzan lanean.

**Ia 40 urte daramatzazu abarkak astintzen; barrutik bizi izango duzu, beraz, biharko eguna.**

Bai, egun berezia izango da guztiontzat. Hala ere, ez nintzen Lore Gazteak taldean hasi; izan ere, 5 urterekin hasi nintzen Txikitxu dantza taldean. Hazi ere hazi nintzen, eta ezin izan nuen bertan jarraitu nagusi egin nintzelako; beraz, 14 urterekin sartu nintzen gaur egungo Lore Gazteak dantza taldean.

**Hala ere, ez zarete talde bakarra Arrasaten...**

Bi dantza-talde gaude gaur egun; hala ere, ez dira elkarren artean konpetentzia, elkarren osagarri baizik. Hori aberastasuna da, eta talde gehiago egongo balira, hobeto. Horrek esan nahi du dantzak osasun ona duela.

**Biharkoarekin jarraituz, nolakoa izango da eguna?**

250 dantzarik eta musikarik parte hartuko dugu ikuskizunean eta hamabost taldetan banatu behar izan gara, belaunaldika. 11:30ean hasiko gara kalejira batekin lau puntutatik irtenda eta Seber Altuben elkartuko gara taldeok Herriko Plaza Nagusira joan aurretik: han emango diogu hasiera ikuskizunari, 12:15ean, eta bi ordu inguru iraungo du. Ikuskizunari dagokionez, hamabost dantza egingo ditugu, talde bakoitzak bizpahiru; izango da haurren egunetan egiten den alarde antzeko bat.

Ondoren, indarrak hartzeko bazkaria egingo dugu Uarkape pilotalekuan; 250 lagun inguru izango gara, eta bazkarirako txartelak hartzeko epea astelehenean itxi zen. Azkenik, eguna borobiltzeko, erromeria izango da, 18:30ean, Fan&Go taldearen eskutik: denetik jotzen duen taldea da eta Arrasateko abeslariak ditu, gainera.

**Eta antolakuntzari dagokionez?**

Hamar lagun inguru gabiltza gogor lanean. Ekainean hasi ginen batzarrak egiten eta opor ostean gogorrago hasi gara, astean behin batzen, askotan birritan ere. Ikuskizunaren entseguekin ere buru-belarri ibili gara; helduenek abarkei hautsa kendu, askok ere jantzia eskatu behar izan dute... eta ilusio handiz ibili gara lanean dantzak finduz. Joan den zapatuko entsegua hunkigarria izan zen; emozioz bizi izan genuen.

**Izan ere, ez dituzue antolatutakoak egun batera mugatuko, ezta?**

> **"250 dantzarik eta musikarik parte hartuko dugu ikuskizunean"**

Ez, abenduan, nahiz eta datak zehazteke dauden, euskal arropen eta argazkien erakusketa izango da ikusgai Kulturaten, eta, horretaz gain, Dragoi Produkzioek egiten ari diren bideoa ikusteko aukera izango da. Gainera, beste hitzaldiren bat ere egingo da, euskal janzkera tradizionalaren ingurukoa, baita buruko zapia nola jantzi erakutsiko den tailer praktiko bat edozeinendako, ez dantzariendako soilik. Hala ere, azpimarratu beharra dago oraindik ez dugula ezer zehatzik erabaki datei dagokienez.

---



*Munduaren neurria* ikuskizuneko momentu bat. | RAFA RUEDA

# 'Munduaren neurria' lana estreinatuko dute gaur

Donostia 2016rako egindako lana da, baina formatu luzeagoan ekarriko dute Arrasatera

ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE

Gaur, Bibliotekaren Eguna da, eta *Munduaren neurria* izeneko kontzertu-errezitaldia egongo da Kulturaten, 20:00etan, Rafa Rueda musikariaren eta Oier Guillan idazlearen eskutik.

Ordubete inguruko ikuskizuna da eta musika eta poesia uztartuko dira emanaldian, antzerki ukituarekin dramatizatuta, hain zuzen ere: Rafa Ruedak azaldu duenez, hainbat autoreren poesiak bere musikarekin bateratuko ditu Guillanen laguntzarekin, lehenengoak musika jota eta bigarrenak narratzaile lanak eginda, poesiak errezitatuta eta bere gorputzarekin pertsonaia nagusia pertsonifikatuta. Testuak eta kantak tartekatzen joango dira eta deklamatuko diren testuak Jose Luis Otamendi, Gabriel Aresti, Vladimir Maiakovsk, Angelica Liddell eta Alejandra Pizarnik poeta fametuenak dira.

## Pertsonaia da ildoa

Bada, *Munduaren neurria* antzezlanaren bizkarrezurra Zauri Bolodia izeneko pertsonaia da. "Asmatutako izena da pertsonaiarena, eta *performance*-an azaldu edo antzemango da argi izen honen zergatia zein den", azaldu du Ruedak.

Ikuskizuna Gabriel Arestiren poema batetik abiatzen da, eta munduaren neurria norberarengan topatzen saiatuko dira Rueda eta Guillan, jendearen egunerokoan. Ideia horretatik abiatuta munduaren eta norberaren arteko harremanean murgilduko dira protagonistak.

Helburua honako hau da: *mundua* eta halako hitz handi edo potoloen itzalean dauden errealitate xumeak, istorio txikietan dauden borroka handiak azaleratzea.

Era berean, aipatzekoa da ez dela Rueda eta Guillan elkarlanean dabiltzan lehenengo aldia; izan ere, aipatzekoa da azken bi urteetan biek lanean jardun dutela *Gabrielen lekua* izeneko sentikari ezagunean, Zenbat Gara eta Gabriel Aresti kultura elkarteen enkarguz.

## Donostia 2016rako egina

Rueda musikagileak dioenez, *Munduaren neurria* ikuskizuna Donostia 2016k *Artejira* jaialdirako eskatu zien egitea, formatu txikian, baina: ordu erdi inguruko emanaldian. Horrenbestez, hemendik abiatuta, hori berori landu eta iraupen luzeagoko ikuskizuna sortu zuten, 70 minutu ingurukoa. Hala, azken emaitza luzeago hori izango da gaur arratsaldean Kulturaten estreinatuko dena, lehendabizikoz.

---



Argazkioina: Mozarten Don Giovanni operaren une bat.. | OPERA 2001

# 100 sarrera gelditzen dira 'Don Giovanni' operarako

Duela hilabete inguru jarri ziren sarrerak salgai eta geratzen direnak azken bi lerroetarako dira

A. LARRAÑAGA | ARRASATE

Wolfgang Amadeus Mozarten *Don Giovanni* obra orain arteko operarik interpretatuena dela esan daiteke, eta oraingoan, Opera 2001 konpainiak taularatuta eta Ozenki elkarteak gonbidatuta, Arrasatera etorriko da; datorren egueenean, zehazki, hilaren 30ean. Ia hiru orduko iraupena duen ikuskizuna da eta komedia eta tragedia nahasten dira bertan.

Astebetean saldu ziren sarreren hiru laurdenak, eta Ozenki elkarteko Manu Gallardok azaldu duenez, "orain 100 sarrera inguru baino ez dira geratzen eta hauek azken bi lerroetarako dira. Hala ere, Amaia antzokia handia da eta atzetik ere ederto ikusiko da".

Azken sarrera horiek 30 eurotan daude eskuragarri Amaia antzokiko leihatilan edota *arrasate-mondragon.org* eta *ticket.kutxabank.es* helbideetan Internet bidez. Hasiera batean, Ozenki elkartearen helbidean sarrerak eskatzeko aukera bazegoen, baina haien sarrerak ere amaitu dira dagoeneko.

# Txotxongiloak prest daude herritarrekin jolas egiteko

## Domekara arte nazioarteko zazpi ikuskizun ikusteko aukera egongo da

**MONIKA BELASTEGI** | BERGARA
Hemen da Helduendako Nazioarteko Txotxongilo Mostra. Atzo, kaleko emanaldi batekin abiatu zuten bi urtean behin herria askotariko txotxongilo eta ilusioz janzten duen mostra. Kantabriako MG Producciones-ek abiatu zuen, *Granujas a todo ritmo* ikuskizunarekin, herriko kaleetan barrena.

Mostraren 12. edizioa da, eta dagoeneko ondo ikasi dute herritarrek txotxongiloak helduendako ere badirela eta asko goza daitekeela istorioak kontatzeko duten moduarekin. Antolatzaileak, Taun Taun txotxongilo taldekoak, enkargatu dira hori horrela izan zedin. Hain zuzen, txotxongiloen esparruan helduendako eskaintzan zegoen hutsunea betetzeko asmoz sortu zuten mostra duela 25 urte, 1991. urtean. Bide horretan, Udalaren diru laguntza handia ere izan dute eta Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza ere jaso dute.

**Txotxongiloak bertatik bertara**
Itsaso Azkarate Taun Taun taldeko kideak esan duenez, bazuten gogoa mostra iristeko. Nazioarteko taldeak herrira ekarri eta teknika askotako txotxongiloak erakusteko.

Gaurtik domekara bitartean, zazpi ikuskizunez gozatzeko aukera egongo da, lau guneetan banatuta. Areto barruan batzuk –Zabalotegi–, kalean besteak. Kalekoen kasuan, publiko zabala dute helburu eta areto barruan egiten direnek, berriz, helduendako aukeratutakoak dira. Aipatzekoa da, bestalde, *Katilukada* ikuskizuna izan ezik, gainontzeko guztiak hitz gabekoak direla, eta, Itsaso Azkaratek gehitu duenez, "istorio barregarriak eta gogorrak daude; tamaina handiko zein txikiko panpinak; harea eta zuzeneko musika erabiltzen dutenak...".

Kaleko ikuskizunei dagokienez, Seminarioko karpan eta San Martin plazan –euria bada, hori ere Seminarioko karpan– izango dira, doan. Areto barruan egingo diren ikuskizunen kasuan, Zabalotegin egingo diren emanaldien sarrera 8 euro izango da eta gaztetxekoak, 3 euro.

Taun Taunetik herritarrak animatu nahi dituzte mostrarekin disfruta dezaten.

### Zazpi ikuskizun, lau gunetan



**EL CUBO LIBRE**
DROMOSOFISTA | Italia
**Seminarioko karpa | Urriak 24 | 19:00**
Zuzeneko musikaren eta transformismoen arteko kaos delikatua da. Lau pertsonaia arituko dira kubo beltz baten inguruan.



**CLOWN'S HOUSES**
MERLIN PUPPET THEATRE | Grezia
**Zabalotegi | Urriak 24 | 20:00**
Sei pertsonaia bost solairuko eraikin baten. Euren bizitza miserableak arrastaka daramatzaten pertsonaia grotesko eta komikotragikoak.



**HISTORIETA DE UN ABRAZO**
DROMOSOFISTA | Italia
**Gaztetxea | Urriak 24 | 22:30**
Musikaz eta antzerkiz, itzalez eta txotxongiloz, ametsez eta misterioz osatutako irudizko mundua sortuko dute Facundok eta Rugiadak.



**KATILUKADA**
KONTAKATILU | Euskal Herria
**Seminarioko karpa | Urriak 25 | 13:00**
Katillu bertsolari ohia da, azken 30 urteotan herriz herri ipuinak kontatzen dabilena, bere lagun txotxongiloekin batera. Bera da *txiringito*-ko burua.



**ALLEGRO MA NON TROPPO**
ZERO EN CONDUCTA | Valentzia, Mexiko, Italia
**Zabalotegi | Urriak 25 | 20:00**
Batzuetan maitasuna itsua da eta, bestetan, maitaleak ikusezinak. Ikuskizun honek hainbat istorio erakusten ditu.



**SUEÑOS DE ARENA**
BORJA YTUQUEPINTAS | Katalunia
**San Martin plaza (euria eginez gero, Seminarioan | Urriak 25 | 22:30**
Eskuak eta kristal baten gainean isuritako hondarra bakarrik behar ditu Borja Gonzalezek istorioak kontatzeko.



**LANA**
PEZ LIMBO | Euskal Herria
**Seminarioko karpa | Urriak 26 | 19:00**
Hitzik ez da, baina akzioak, irudiek eta soinu-espazioak atmosfera berezia sortzen dute. Dantza, txotxongiloak eta maskarak konbinatzen dira.



**TRAU**
GUILLEM ALBÀ | Katalunia
**Zabalotegi | Urriak 26 | 20:00**
Absurdoa eta txotxongiloen antzerkia ere erabilita, komediatik poetikara doan umorezko ikuskizuna erakutsiko dute katalanek.

## Bihotz-biriketako bizkortze ikastaroa emango du DYAk

DYAk bihotz-biriketako bizkortze ikastaroa egingo du Martokoan duen egoitzan. Oinarrizko azalpenak emango dituzte eta eskolak urriaren 27an eta 28an izango dira, 18:30etik 21:00etara. Ikastaroan bihotz-biriketako geratzea antzematen irakatsiko dute eta baita oinarrizko berpiztea egiten ere. Ikastaroaren prezioa 90 euro da, eta, eskolez gain, eskoletarako materiala ere jasoko dute parte-hartzaileek, argibide guztiekin. Izen-ematea mugatua da. Horretarako, jo DYAk Martokoa kalean duen egoitzara edo, bestela, deitu 943-46 46 22 telefono zenbakira.

## Atxikimendu bila Aitziber Plazaola eta gainerako 27ak aske lagatzeko

**M.B.** | BERGARA
Bergarako Libre plataformak Aitziber Plazaola bergararrari zein Segiko kide izateagatik epaitzen ari diren gainerako 27 gazteei babesa adierazteko eta aske laga ditzaten eskatzeko atxikimendu kanpaina abiatu du.

Libre plataformatik azaldu dutenez, irailean Gernikan egindako ekitaldian Herritarron Adierazpena publiko egin zuten Euskal Herriko zenbait herritar eta eragilek, "epaiketa politiko horrek inolako zentzurik ez duela eta 28 gazteak libre uzteko eskatuz".

Bada, adierazpen horren bitartez, Bergaran ere ahalik eta atxikimendu gehien lortu nahi dute, "oztopo izan nahi duen prozesu judizial hori konponbidearen aldeko urrats izan dadin".

Herritarron Adierazpenak jasotzen duenez, "euskal herritarrek urte luzez gatazka eta sufrimendua" bizi izan dute. Baina "azken denboran emandako urratsek eta abiatutako prozesu demokratikoak konfrontazioa eremu politiko hutsera mugatuko duen etorkizunera" eramatea nahi dute.

Adierazpenean jasotakoaren arabera, "abiatutako bide horretan, eragile politiko, sozial zein norbanakoek emandako urratsek" ahalbidetu dute egoera hori, uste dute "etorkizuna eraikitzen jarraitzeko, ezinbestekoa" dela "denok erantzukizunez jokatzen jarraitzea". Hala, bide horretan, "epaiketa hori frustrazio eragile bat" dela uste dute "eta justizia, garai berri baterako trantsizio ikuspegitik aplikatzen hasi" behar dela".

**Internetez eman daiteke**
Herritarron Adierazpenarekin bat egiten duten herritarrek atxikimendua emateko aukera bat baino gehiago dagoela aurreratu dute Bergarako Libre plataformatik. Alde batetik, mahaiak jarriko dituzte herriko zenbait gunetan –zehaztuko dituzte egunak eta lekuak.

Horrekin batera, Internet bidez ere badago atxikimendua emateko aukera, *www.libre.epaiketarikez.org* webgunean.

### Elkarretaratzea hilaren 30ean, Iralan

Urriaren 30ean, datorren eguenean, *Stop tortura! 28ak libre, epaiketa politikorik ez!* lelopean elkarretaratzea deitu du Librek. 19:30ean izango da, Irala kalean. Plataformak salatu duenez, "tortura izaten ari da 28 gazteen aurkako epaiketan protagonista. Gazteen tortura testigantzen deklarazioekin eman zioten hasiera epaiketari". Herritarrei bilkurarekin bat egiteko dei egin diete.

# Boluko M eta N blokeetako hainbat teila apurtu dituzte

I.G. | BERGARA

Boluko M eta N blokeetako bizilagunek hauxe salatu dute: "Boluko eta beste auzo batzuetako hainbat umek harriak jaurti zituzten urriaren 11ko gauean", atzean dagoen trenbide zaharretik euren teilatuetara, eta, ondorioz, "hamabi bat teila apurtu" zituzten.

Ez hori bakarrik; izan ere, bi bloke horietako presidente Antxon Arazkonagak esandakoaren arabera, teilak apurtzeaz gain, "bizilagunak arriskuan ipini zituzten, harri batzuk oinezkoen bidera jausi ziren-eta". Bizilagunek aditzera emandakoaren arabera, gainera, ez da horrelako zerbait gertatzen den lehen aldia, eta gaineratu dute bizilagunek "umeei" errieta egiten dietenean, haiek irainekin erantzun izan dutela.

**Itxaropenik ez**

Ertzaintzan salaketa ipini dute bizilagunek, baina badakite errudunak topatzeko oso aukera gutxi dagoela: "Gazteek ihes egin zuten, eta, salaketa Ertzaintzan jarri dugun arren, hauek aurkitzea ez da lan erraza izango". Ertzaintzak, berriz, ikerketak zabalik jarraitzen duela argitu du.

**Laster konponduko dute**

Aseguru etxeak bere gain hartuko ditu konponketok. "2013an berritu genuen teilatua", dio Arazkonagak, eta, "ia berria" zela kontuan izanda, bizilagunak haserre daude.

Bizilagunek, bestetik, Boluko bizilagunei dei egin gura diete, ume horiek identifikatzen laguntzeko eskatuz, gertatutakoaren aurrean "gurasoek erantzukizuna har dezaten".



Apurtu dituzten teiletako batzuk. | BOLUKO BIZILAGUNAK

# 'Zu bezalakoak behar direlako' gogoeta martxan

Herrikideekin hiru gogoeta saio egingo ditugu

KOMUNITATEA GOIENA | JARDUN EUSKARA ELKARTEA | BERGARA

Jardun euskara elkarteak 25 urte beteko ditu 2015ean, eta, urtemuga borobil hori aprobetxatuz, herrikideei zuzendutako gogoeta eta parte hartze prozesua jarriko dugu abian urria eta azaroa bitartean.

Orain arteko ibilbidea modu positiboan baloratuta, aurrera begira jarri nahi dugu. Bergarako euskararen beharrak orain dela 25 urteko berdinak dira? Jardunek orduko funtzio eta antolamendu berberak izan behar ditu?

Galdera hauen guztien erantzunak eta gehiago aurkitu nahi ditugu gogoeta prozesu honetan. Jardunen izaeraz hausnartu, eta aurrera begira proiektu sendo eta eraginkorrak bilatzeko lanean hasi gara.

Horretarako, guztion iritziak jasotzea nahiko genuke, ahalik eta ikuspegi zabalena lortuz.

**Hiru gogoeta saio**

Urriaren 25ean, *Unea eta bihotza* saioan, parte hartze prozesuaren arrazoi eta metodologia aurkeztuko ditugu. Eta, guztion artean, euskararen egoeraren diagnostikoari buruzko gogoeta egingo dugu.

Azaroaren 15eko *Iparrak* saioan, elkarteak datozen 5-10 urteei begira izan beharko lituzkeen helburu eta funtzioak hausnartu, eztabaidatu eta adostuko ditugu.

Jardun euskara elkartearen *Antolakuntza eredu parte hartzaileagoa eraikitze etxea* saioa azaroan 29an egingo da.

Etorri eta biziberritu dezagun Jardun!



Gazteei eta gurasoei zuzendutako eguna izango da domekakoa. | GOIENA

# Domekako 'Kirola kalera' eguna, familiei zuzenduta

Berrikuntza gisa, aurreneko aldiz familiei zuzendutako triatloia egingo dute

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Urteko azken *Kirola kalera* eguna berrituta dator. Domekan familiak mugitu nahi dituzte, eta horregatik, eurei zuzendutako egitaraua antolatu dute. Berrikuntza nagusia taldean egin beharreko triatloia izango da.

**Guztiontzako triatloia**

Lehen Hezkuntzan dauden gaztetxoei zuzendutako triatloian, korrikan, bizikletan eta irristaketan aritu beharko dute. Proba bakoitzean, gutxienez, adin nagusiko batek eta haur batek parte hartu behar dute. Hiru kiroletako erreleboa bikote bakarrak egin dezake, edota familiako beste kideei erreleboa eman. Parte hartzen dutenen artean urteko bi familia-abonu zozkatuko dituzte. "Ahalik eta triatloi jendetsuena izateko lan egin dugu", dio Iñaki Ugarteburuk, Udaleko Kirol Zerbitzuetako arduradunak.

11:00etatik 13:00etara Ibargarai kalean eta Errege Mintegiko jolastokian kirolarekin zerikusia duten jarduerak egiteko aukera egongo da. Jolastokian bizikleta eliptikoa probatzeko aukera izateaz gain, puzgarriak ere egongo dira. Toki berean Zurrumurru antzerki taldeak zirkuko tailerra egingo du. Ibargarai kalean, aldiz, Hanka Labanka Irristaketa taldea eta Lokatza Ziklismo Eskola egongo dira, patin eta bizikleta gainean egin daitezkeen jarduerak erakusten, eta 12:00etan Markel Uriartek bizikleta gainean erakustaldia egingo du.

Triatloiaren ostean, hamaiketako osasuntsua egongo da, frutarekin, eta goizari amaiera emateko, Zurrumurru taldeak eskujoko, oreka eta akrobazia erakustaldia egingo du.

**Kirol kontuak mintzagai**

Familia eta kirol kontuetatik aldendu gabe, eguenean, hilak 30, *Familia, futbola eta formazioa* hitzaldia egingo dute Irizar jauregian, 19:00etan. Saioa gurasoei zuzenduta dagoen arren, nerabeekin eta kirolarekin zerikusia duen edonorentzako "aproposa eta aberasgarria" izango dela azaldu dute.

Hizlariak izango dira Luki Iriarte, Realaren formazio-taldeen arduraduna; eta Fran Garagartza, Eibarko idazkari teknikoa. Hain zuzen, kirol profesionalean etamaila apalagoetan duten esperientziaz jardungo dute biek. Hitzaldiaren protagonista futbola izango den arren, antolatzaileek kirol guztietako pertsonak gonbidatu nahi dituzte, futbolean azaltzen diren arazoak beste kirol batzuetan ere agertzen dira-eta.

**DOMEKAKO EGITARAUA**

**11:00 - 13:00**

- Mintegiko jolastokian bizikleta eliptikoak, puzgarriak eta zirku txokoa.
- Ibargarain: bizikletan eta patinetan ibiltzeko jolasak.

**12:00** Orbea Enduro Crew taldeko Markel Uriarteren erakustaldia.

**13:00** Bergarako I. familia triatloia.

**13:30** Zurrumurru antzerki taldearen *Zirku txikia*.

**TRIATLOIRAKO KASKOA**

Parte-hartzaile bakoitzak bere eroan beharko du.



IXAUN Jatetxea
Elosu auzoa 6 - Bergara
Tel.: 680 77 69 33

Gosariak • Bazkariak • Afariak • Sagardotegiko menua • Eguneko menua • Plater konbinatuak • Karta • Ogitartekoak • Pintxoak • Enkarguak

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

# Bergara Garbiak "konpostaren negozioaren porrota" salatu du

EH Bilduk atez ateko hondakin bilketari buruz esandako "kostu eta gezurrak" zerrendatu ditu

I.G. | BERGARA

Bergara Garbiaren ustez, Hondakin Mahaiak izandako batzar "faltsuetan" zehaztén zen atez ateko hondakin bilketa sistema bosgarren edukiontzia baino garestiagoa dela, baina hondakinak tratatu eta gero, merkeagoa izango zela. Herri plataformak baieztapen hori "miraritzat" jo du, "bilketa sistema bat izan edo bestea, Aldundiak hondakinak berdin tratatzen baititu. Hortaz, atez ateko sistema garestiagoa da".

**Konpostaren negozioa**

Iñaki Errazkinek urtarrilean emandako datuen arabera, Lapatxen tratatzen den hondakin tona bakoitzak 90,78 euroko kostua dauka eta Funesera eroaten denak, aldiz, 52 euro. Bergara Garbiaren ustez, zifra horiek Aldundiaren diru sarrera "zero eurotik gertu egongo dira". Datu horiekin herri plataformak ezinezkotzat jo du EH Bilduk "saldutako negozioa".

Prentsa ohar berean ageri denez, "konposta negozio izatetik arazo izatera pasa da", eta bosgarren edukiontziaren aldekoek Gipuzkoan batzen diren konpost tonak nola kudeatuko diren ere galdetzen dute. Bukateko, euren ustez, "beti bezala" Aldundiko arduradunak "bizkor eta era inprobisatuan lanean dabiltza".

## San Martin eskolak abiarazitako eskolaz kanpoko ekintzek oso harrera izan dute ikasleen artean

200 haurrek baino gehiagok eman zuten izena egeurdi zein arratsaldeetan burutzen diren jardueretan. Antolatutako guztietan -ingelesean eta alemanean salbu- euskararen erabileraren sustapena da protagonista nagusia. Antolatzaileek oso balorazio positiboa egin dute, eta datorren ikasturtera begira eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzeko gonbita egin diete ikasleei.

## Euskal dantzak oinarri hartuta ikastaro mugitua antolatu dute herriko musika eta dantza eskolek

Azaroaren 5ean hasiko dira eskolak, dozena bat ikasleko bi talderekin: 6 eta 8 urte arteko neska-mutikoena, bata; eta 9 eta 10 urte artekoena, bestea. Hala eta guztiz ere, interesa duenak izena emateko aukera du oraindik. Umeendako ez ezik, nagusiagoendako eskolak ere emango dituzte eskola berrian. Hain zuzen ere, egubakoitzetan gazte eta helduendako eskolak egongo dira, 18:00etatik 19:30era.



MARIAREN LAGUNDIA

## Ederto Natur Eskolan

Bergarako Mariaren Lagundiko Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako ikasleak Oñatiko Natur Eskolan egon ziren. Eskolak eskaintzen dituen baliabide eta ekintzak burutu ostean, bertako inguruak duen paisaia eta aberastasun naturala ezagutzeko aprobetxatu zuten. Eguraldiak lagunduta, primeran ibili ziren.

Jose Agustin Gurrutxaga | Argazkilaria

# "Ez dakit barruan dudan argazki ideal hori egitera iritsiko naizen"

Jaiotzez eibartarra den Jose Agustin Gurrutxagak urte hauetan bere kamerarekin ateratako argazkiak erakutsiko ditu azaroaren 9ra arte Aroztegin

IMANOL GALLEGO | BERGARA



Jose Agustin Gurrutxaga, bere argazki baten aurrean. | IMANOL GALLEGO

Sari ugari jaso dituen 30 urteko ibilbide luze baten ostean, gaurtik azaroaren 9a arte Jose Agustin Gurrutxagak bere begirada erakutsiko du Aroztegi aretoan. Afizio duen argazkilaritzak une on ugari eman dizkio, eta, hark azpimarratu duen moduan, lagun handiak egiteko aukera eman dio objektibo baten atzean egote horrek.

**Asko aldatu da zure begirada ibilbide honetan zehar?**

Demaseko aldaketa izan dut. Urtetik urtera aldaketak ikusi egiten dira, ikasten zoazen prozesu bat da hau; hala ere, ez duzu inoiz gailurra ukituko, eta horrek motibatu egiten nau. Interneten argazki asko ikusten ditut, eta batzuk zoragarriak direla iruditzen zait, baina badakit ez naizela maila horretara iritsiko.

**Ikuspuntua ez ezik, teknika ere asko aldatu da.**

Digitala iraultza izan da. Ni diapositiba eta argazki analogikoen garaian hasi nintzen argazkilaritzan eta egungo baliabideak izugarriak dira. Euskarri digitalak, kalitate handia izateaz gain, zerrenda ezinak diren aukerak ematen dizkizu argazkia eraldatu edo hobetzeko.

**Digitalak, hortaz, zure argazkilari zena ase du?**

Ez, ez. Erretiroa hartu dudanetik sekula baino argazki gehiago ateratzen ari naiz, baina oraindik ez naiz iritsi barruan dudan argazki perfektu hori egitera, eta, ziurrenik, ez naiz sekula iritsiko.

**Erraza da zure begirada besteei erakustea?**

Zailena argazkien aukeraketa egitea da; kontuan izan argazki asko ditudala. Argazkiak niretzat egiten ditut, eta horietako askok esanahi berezi bat dutela iruditu arren, jendeak ez ditu berdin ikusten.

> "Erretiroa hartu dudanetik sekula baino argazki gehiago egin ditut"

**Hortaz, zuretzat argazkiak oso gauza pertsonalak dira.**

Nik horrela tratatzen ditut. Argazki baten atzean diafragma batek jasotzen duen argia baino gehiago dago. Nork bere sentimendu eta bizipenak lagatzen ditu une horretan. Duela aste pare bat egindako argazki bat gaur ez nuke era berean egingo, argazki batean aurrean ikusten dena baino gehiago dago. Hala ere, nire lanak erraz ezagutzen dira. Mundu honetan ibiltzen garenok bizkor antzematen dugu noren begirada dagoen argazki baten atzean.

**Lau dira mostra honetara ekarri dituzun argazki multzoak.**

Nire argazkiak lau mailatan sailkatuko nituzke: mendia, kirola, natura eta librea. Nire zaletasunak diren argazkiak ateratzen saiatzen naiz.

**Zein poltsa da zailena?**

Erretratua, dudarik gabe. Naturak une zoragarriak eskaintzen dizkizu, eta, ilunabar zoragarri batekin topo egiten baduzu, argazki on bat ateratzea ez da gauza zaila; erretratuekin, aldiz, ez da berdin gertatzen. Segundo bat baino motzagoa den unetxo horretan, pertsona horren izaera, begirada arima... jaso behar da.

## OHARRAK

**SAN JOXEPEKOAK LIZARRARA**

Dagoeneko zabalik dago azaroaren 6an Lizarrara egingo duten irteerarako izena emateko epea. 08:30ean abiatuko dira autobus geltoki nagusitik eta egun osoko txangoa egingo dute Nafarroako txokoak ezagutzen. Joan nahi dutenek elkarteko egoitzan eman beharko dute izena, urria amaitu baino lehen.

**TAILA ESKOLAKO IKASTURTEA HASTEAR**

Taila eskolak azaroan hasiko du ikasturte berria eta interesa duten guztiek ateak irekita dituzte. Argibide gehiagorako zein izena emateko, taila eskolak Zabalotegi 11 behean duen egoitzara hurbil daiteke, astegunetan, 18:00etatik 20:00etara.

**1945EAN JAIOTAKOEN BAZKARIA AZPEITXIN**

Azaroaren 22an egingo dute, 14:30ean. Izena emateko 30 euro aurreratu behar dira Azpeitxi jatetxean bertan, azaroaren 17a baino lehen.

**1951N JAIOTAKOEN KINTO AFARIA ERREKIN**

Azaroaren 8an egingo dute. Festarekin bat egin nahi dutenek 30 euro sartu behar dituzte Laboral Kutxako 3035 0009 19 0091146500 zenbakian.

**1935EAN JAIOTAKOEN BAZKARIA AZPEITXIN**

Azaroaren 16an egingo dute, 14:30ean. Interesa dutenek 15 euro aurreratu beharko dituzte Laboral Kutxan, azaroaren 11 baino lehen.

**'PAINTBALL'-ERA IRTEERA**

Izen-ematea urriaren 29a baino lehen egin behar da, gaztelekuan edo Jardunen, eta prezioa 12 euro da. Azaroaren 1ean 09:00etan abiatuko dira, eta, *paintball*-ean ibili eta bazkaldu ondoren, Zarautzen emango dute arratsaldea. 20:00etarako bueltan egongo dira.

**1960AN JAIOTAKOEN AFARIA**

Afaria azaroaren 15ean egingo dute Txantxarra jatetxean. Izen-ematea San Martin plazako estakoan egin behar da.

**1964AN JAIOTAKOEN AFARIA**

Azaroaren 15ean 20:00etan Ariznoa tabernan batu ondoren, afaria Tartufon egingo dute. Izena emateko 20 euro aurreratu behar dira Ikuz garbitegian urriaren 25a baino lehen.



Arantzazu, Araotz, Urrexola eta Zañartu auzoetakoak eskatuta daude. | OIHANA ELORTZA

# Baserrietara heltzeko seinaleak jarriko dituzte bidegurutzeetan

Izenaren ondoan baserrirano dagoen distantzia ere ikusiko da, metrotan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Gaur egun, bi seinale mota daude jarrita Oñatiko auzo eta baserrietan: auzoaren izena agertzen den seinaleaz gain, baserri bakoitzak bere izena zein den adierazten duen plaka bat du jarrita etxearen fatxadan. Laster, baserrien izenak agertzen diren seinaleak jarriko dituzte auzoetako bidegurutzeetan. Izenaren ondoan, baserriraino iristeko zenbat metro dauden ere agertuko da.

**500 baserri**

Hamasei auzo daude Oñatin, eta baserriak, berriz, 500 inguru. Oñatiko mapa toponimikoan jasotzen dira, batetik, baserrien izen ofizialak; hau da, onartuta daude izenak. Eta bestetik, izen jatorrak, ahozko erabilera dutenak. Seinaleetan, izen ofizialak agertuko dira gehien bat, baina zenbait kasutan izen biak agertuko dira idatzita, ofiziala eta jatorra. "Adibidez, Arantzazuko Bellotza baserriaren izen ofiziala Begiolatza da. Garibaiko Koixkarrena, berriz, Korosbizkar. Bigarren kasu horretan izen biak agertuko dira, ziurrenik", azaldu du Aitor Gerenabarrenak, landa garapeneko udal teknikariak.

Izenaren ondoan, bidegurutzetik baserrira heltzeko dagoen distantzia ere agertuko da, metrotan. Seinaleek izango duten itxurari buruz, metalezkoak izango dira eta hiru tamainatakoak. "Sei baserritatik gorako bidegurutzeetan seinale handiak jarriko dira; seitik beherakoetan, ertainak eta izango dira baserri bakar baten izena dutenak ere. Ideia bat egiteko, Legazpin dauden moduko seinaleak izango dira", azaldu du Gerenabarrenak.

Auzo-alkateen foroan landutako gaia da eta auzoetako ordezkariak, beraz, jakinaren gainean daude. Noiz jarriko dituzten, baina, erabaki barik dago oraindik. Arantzazu, Araotz, Urrexola eta Zañartu auzoetan jarri behar diren seinaleak enkargatuta daude dagoeneko, eta laster enkargatuko dituzte gehiago ere. "Azaroan helduko dira lehen seinale horiek, baina oraindik ez dago erabakita noiz eta nola jarriko diren. Kolokazioa oraindik zehazteke dago", esan du landa garapeneko teknikariak.

**Asfaltatzeko diru laguntza**

Bestalde, astelehenean, urriak 27, bukatzen da landa-bideak asfaltatzeko Udalak ematen duen diru laguntza eskatzeko epea. Partikularrei emango zaien laguntza da eta material eta garraio gastuetarako bakarrik izango da. Eskatzaileak Oñatiko landa-auzoetako bateko baserri baten jabe dela egiaztatu beharko du eta konpontzeko asmoa dagoen bidearen titulartasuna publikoa dela.

# Tokia dago etxez etxeko zerbitzuen ikastaroan

O.E. | OÑATI

*Etxez etxezko zerbitzua* izeneko ikastaroa antolatu du Udalak, adinekoak eta behar bereziak dituzten pertsonak zaintzeko. Hilabete honetan zen hastekoa, baina, jaso diren eskaeretara egokituta, azaroaren 3ra atzeratu dute. Hala, berriz zabaldu dute izen-ematea. Urriaren 31ra arte apunta daiteke enplegu bulegoan, Bidebarrieta kalean.

**Olaburun**

Lehen izen-ematean apuntatu ziren gehienek nahiago zuten ikastaroa arratsaldez egin goizez baino. Bastida akademiarekin hitz egin zuten udal ordezkariek eta eskaera horretara egokitu dute ikastaroa. Hala, arratsaldeetan izango da eta azaroaren 3an hasi eta abenduaren 15ean bukatuko da. 120 orduko ikastaroa izango da eta eskolak astelehenetik egubakoitzera emango dira, 15:00etatik 19:00etara, Zubillagako Olaburu zentroan.

Ikastaro horren helburua da laster sektorean lan egiteko beharko den profesional ziurtagiria eskuratzea. Hala, jorratuko diren gaien artean hauek daude: etxeko garbiketa, sukaldaritza, zaintzen den pertsonaren higienea, elikadura, mobilizazioa eta jantzi eta arropen garbiketa, plantxa edo oinarrizko joskintza, esate baterako.

# Tenis pista estaltzeko lanak bide onetik doaz



Tenis pistako estalkia jartzen eguen goizean. | IRATI GOITIA

O.E. | OÑATI

Saihesbidean, kiroldegi parean, garabi bat jarrita ari dira tenis pistaren estalkia jartzen. Datorren egubakoitza arte, urriaren 31ra arte, dute baimena garabia saihesbidean jartzeko, eta lanak martxa onean doaz. Bitartean, semaforo bidez erregulatuko dute saihesbideko zirkulazioa.

**Argiteria zehazten**

Estalkia jartzeak, baina, ez du esan gura lanak bukatu dituztenik; barruko lanak egingo dituzte gero. Esaterako, lurzorua aldatu egingo dute eta argiteria berria jarriko dute. "Zer-nolako argiteria jarri ari gara zehazten. Aukera batzuk baditugu buruan, baina oso garrantzitsua da argiteria, eta beste herrietako ereduak ari gara ikusten eta aztertzen", dio Ainhoa Martinek, Kirol zinegotziak. Bide batez, goiko terrazatik beheko instalazioetara dauden filtrazioak ere konponduko dituzte. Epeei buruz, urte bukaerarako lanak amaituta egotea espero dute udal ordezkariek.



TXOMIN MADINA

## Plastiko eta burdin zati ugari

Erreka lau zatitan banatu zuten joan den zapatuko erreka garbiketa deialdirako. Bikoitz paretik Zubillagarainoko zatia egitea ezinezkoa izan zitzaien, han zegoen zikin pilagatik. Jaso zituzten, adibidez: plastiko zatiak, latak, litxarrerien poltsak, patinetea, supermerkatuko karroren bat... Ekimenak jarraipena izango du datorren urtean.



Tabernetan jarriko dituzten kutxetako bat. | OÑATIKO BERTSO ESKOLA

# Datorren azaroaren 29an hasiko da Oñatiko VII. bertso txapelketa

## Gai proposamenak jasotzeko, kutxak jarriko dira asteburu honetan herriko hainbat tabernatan

KOMUNITATEA GOIENA | OÑATI
OÑATIKO BERTSO ESKOLA

Oñatiko VII. Bertso Txapelketa ospatuko da aurtengo azaroan eta abenduan. Azaroaren 29an eta abenduaren 6an jokatuko dira kanporaketak, Antixena gaztetxean eta Arrano tabernan. Finala, berriz, abenduaren 20an, gaztelekuan.

**Hamabi bertsolari**

Parte hartuko duten bertsolariek eman dute izena dagoeneko. Aurreko urteetako zenbakia mantenduz, hamabi izango dira: Urko Arregi, Egoitz Aizpuru, Urko Egaña, Maider Arregi, Iñaki Olalde, Xabier Paskual, Ander Lizarralde, Gontzal Belategi, Gorka Larrea, Joseba Lasagabaster, Josu Igartua eta Andoni Goitia. Bertsolariak oraindik banatu gabe daude saioetan.

Aurtengo txapelketak, ordea, badakar aldaketa bat. Oñatiko bertsozaletasuna kontuan hartuta parte-hartzea sustatu nahi du Oñatiko Bertso Eskolak. Horretarako, herritarrek gai proposamenak jasotzeko kaxak jarriko dituzte herriko zortzi tabernatan. Ez dituzte proposamen zehatzak bakarrik eskatzen. Ideiak, egoerak edo bururatuko kasuak ere jaso nahi dituzte parte-hartze aukera zabaltzeko. Izan ere, txapelketako gai jartzaile taldea arduratuko da kutxetako gaiak eta ideiak hartu eta saioetara txertatzeaz.

Proposamenak eskertzeko, Oñatiko produktuz osatutako otarre bat zozkatuko dute parte-hartzaileen artean. Txartel bakoitzari zenbaki bat egokitu zaio, eta, irabazleari jakinarazteko, idatzi duenaren izena eta kontakturako zenbakia eskatuko da txartelean.

Asteburu honetan jarriko dituzte kaxok eta azaroaren 16ra arte egongo dira taberna hauetan: Ongi, Boga, Aloña,Pako, Izarraitz, Antixena gaztetxea, Arrano eta Artxubi.

# Liburuan jaso dute Bedita Larrakoetxearen bizitza

## Shakespeareren lanak euskarara itzuli zituen eta 1988a ezkero udal euskaltegiak bere izena darama

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Pipa erretzen, berogailuaren ondoan eserita eta gurutzegramak egiten gogoratzen du Paulo Anduagak Aita Bedita Larrakoetxea, haren biografia jasotzen duen liburuaren egileak. Udal euskaltegiak Bedita Larrakoetxea izena du 1988a ezkero, orduko Udalak horrela erabakita.

**Shakespeareren itzultzailea**

Sortzez bizkaitarra zen Bedita Larrakoetxea, Zeanurikoa (1894-1990). "Altsasura joan zen lehenengo eta handik Oñatira etorri zen. Hemen eman zuen lehen meza. Apaizgintza ikasketekin batera egin zituen irakaskuntza ikasketak eta gerra aurretik, 1930. urte inguruan, gazte oñatiarrei eskolak ematen jardun zuen, Bixente Meabebasterretxea, Alfonso Urkidi eta Fernando Urkiarekin batera", dio Paulo Anduagak, liburuaren egileak.

Larrakoetxea euskaltzale petoa zela dio Anduagak eta gerra aurretik euskal giroa zakartu egin zelako Ingalaterrara joan zela. "Erbestean egon zen denboran harreman estua izan zuen Euskal Herritik Europara joandako gerrako umeekin", dio Anduagak.

Ingalaterratik Argentinara joan zen, Saltara, eta eskolak eman zituen han ere. "Zuen denbora libre guztia euskalgintzari eman zion", zehaztu du egileak. Oñatin gelditzeko saiakera bat egin ostean, 1972. urtean etorri zen berriz Oñatira. "Urte hartatik hil zen arte, 1990. urtera arte, hementxe bizi izan zen. Gogoan ditut bere ohiturak eta akordatzen naiz umore oneko gizona zela", azaldu du Paulo Anduaga agustindarrak. Eta gaineratu du: "Oñatin bukatu zituen Shakespeareren lanak ingelesetik euskarara itzultzeko lanak. Izan ere, euskaltzalea izateaz gain, euskararen alde zerbait egin behar zuela uste izan zuen, eta erabaki zuen idazle ingeles horren literatura lanak euskarara itzultzea".

**Gizonezkoa**

Askoren ustearen kontra, Bedita Larrakoetxea gizonezkoa zen. "Benito zen bere benetako izena. Garai baten, ordea, izen propioak euskaraz adierazten hasi ziren, euskara garbi baten alde-edo. Hala, Bedita izena erabiltzen hasi zen bera. Guk Benito deitzen genion, baina berak Bedita izenarekin sinatzen zituen liburu eta agiri guztiak. Euskaltegiari Bedita izena jarri zioten bere ohitura hori errespetatu gura zutelako ", dio Paulo Anduagak.



Larrakoetxea, Galdos eta Intxaurraga 1988an Udalak Larrakoetxeari egin zion omenaldian. | KONTZEJUPETIK

### Gaur eta bihar jokatuko dituzte asteburuko pilota partiduak

Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, jokatuko dituzte asteburu honetako pilota partiduak.

Aloña Mendi kirol elkarteko pilota sailak iragarri duen moduan, gaur jokatuko den partiduan, Aloña Mendi eta Gure Txeru izango dira aurrez aurre, 19:00etan.

Bihar, zapatua, partiduko gehiago jokatuko dira. Hala, 16:00etan, partidu hauek jokatuko dituzte alebin mailan: Aloña Mendi 3 Euskal Jolas 2ren aurka, eta Aloña Mendi 1 Euskal Jolas4-ran kontra. Hirugarren partidua infantil mailakoa izango da: Aloña Mendi 2 eta Tolosa 1 izango dira norgehiagoka horretan jokatuko dutenak.

### Lezesarri kofradiak urteko bilera egingo du domekan

Lezesarri Kofradiako kideek urteko bilera arrunta egingo dute asteburu honetan. Hala, kide guztiei jakinarazten zaie datorren domekan, urriak 26, urteko ohiko bilera izango dutela. Bilera hori San Estebango ermitan izango da, 11:45ean.

Batzarraren ostean, meza izango da ermitan bertan, 12:00etan. Elizkizun hori urtean zehar hil diren kofradiako kide guztien oroimenezkoa izango da, baita kofradiako zaindariak diren San Krispin eta Krispinianoren omenezkoa ere. Meza ostean jatekoa eta edatekoa eskainiko zaie batzen direnei.

### Eskulan ikastaroak ordaintzeko matrikula epea zabalik dago

Udalak antolatutako eskulan ikastaroen behin betiko zerrendak osatu dira eta matrikula ordaintzeko epea zabalik dago. Urriaren 31, datorren egubakoitza, da ordainketa egiteko azken eguna. Izena e-mailez eman zutenei ordainketa nola egin behar duten bide beretik jakinarazi zaie. Gainerakoek kultura etxetik pasa beharko dute matrikula kostua zenbatekoa den eta zein kontu korrontetan ordaindu behar den jakiteko. Ordainketa eginda, ziurtagiria kultur etxera eraman beharko dute. Ikastaroak Bidebarrieta kaleko lokalean izango dira aurten ere eta azaroan hasiko dira.

### Kalegoieneko aparkalekura sartzeko modua aldatuko da

Datorren azaroaren 3tik aurrera aldaketak egingo dira Kalegoieneko lurpeko aparkalekura sartzeko. Oinezkoen zein ibilgailuen sartzeko moduan egingo dira aldaketak.

Oinezkoen sarrerari dagokionez, aparkalekutik irteterakoan automatikoki zabaltzen den ate bat jarriko da, baina sartzeko aparkalekuko txartelaren zenbakia tekleatu beharko da. Autoen sarrerako atea, berriz, itxita egongo da 00:00etatik 07:00ak arte. Ordutegi horretan ezingo da autoa sartu (jabeek izan ezik) eta irteera arrunta izango da, hau da, barrera zabaltzean, atea ere zabalduko da.

### Viva Bazooka taldeak joko du Pako tabernan domeka iluntzean

Gasteizko Viva Bazooka taldeak zuzenean joko du domekan Pako tabernan, 19:30ean.

Antolatzaileek azaldu duten moduan, rock esperimental eusko paraguaiar bikote bat da Viva Bazooka. "Espresionista, esperimentala eta sailkaezina. Doitasun kirurgiko eta punk izpiritua uztartzen ditu eta haren formazio sintetikoa justifikatua da: bere gitarren oparotasun klinikoak eta lan energetiko erritmiko eta konplexuek gaineratiko guztia egiten dute", diote. Beraien ibilbideko laugarren erreferentzia *Bum! Bum! Brazil!* da. Hain zuzen, lau kantu dituen lana da.

# VI. trikiti jaialdian, hainbat belaunalditako doinuak entzungai

## Sarrerak agortuta daude; gauean, erromeria irekia izango da gaztelekuan

**IRATI GOITIA** | OÑATI

Azken urteotan trikiti zaletasuna areagotu egin da herrian. Akaso, izango du zerikusirik Lizargarate elkarteak horretan. "Egia da azken urteetan gorakada handia bizi izan duela trikiti munduak. Ikusi besterik ez dago Herri Egunean zenbat gazte irteten diren trikitia eta panderoa jotzen", esan du Mailaren Barrenak, Lizargarate elkarteko kideak. Hala ere, zuzenean elkartearen eragina izan denik esatera ez da ausartu: "Baina indarra eman diola esango nuke baietz. Izan ere, urtero antolatzen ditugu bi edo hiru ekintza".

Bada, asteburu honetan egingo dute dagoeneko urteroko ohitura bilakatu den trikiti jaialdia. Goi mailako trikitilariak igoko dira, gainera, Santa Ana antzokiko taula gainera. [Ikus taula] Jaialdia 17:30ean hasiko da.

**Jaialdian, hainbat belaunaldi**

Hainbat belaunalditako trikitilariak elkartuko dira zapatuan. "Urtero ukitu berezia eman nahi izaten diogu jaialdiari. Iaz, adibidez, parte-hartzaile guztiak emakumezkoak izan ziren edo beste urte baten soinu-berbak saioa egin genuen Oñatiko Bertso Eskolarekin batera. Aurten, belaunaldi askotariko jendea gonbidatu dugu. Eta, egia esan, erakarri du jendea, ia astebete da-eta sarrerarik gelditzen ez dela", dio Barrenak. Zehaztu du kanpotik ere jende asko datorrela ikuskizunera. Izan ere, Oñatitik kanpora ere hartu du izena jaialdiak.


Kepa Junkera trikitia jotzen Eskoriatzan 2013an. | IMANOL SORIANO

Parte-hartzaile bakoitzak hiru edo lau pieza joko ditu, eta estilo modernoagoak zein tradizionalagoak nahastuko dira. "Arrasateko Irati Gutierrezen eta Amets Ormaetxearen estiloa modernoagoa dela esango nuke, adibidez", adierazi du Barrenak. Bestalde, zehaztu du Xabier Etxanizek beste inon jo ez dituen piezak estreinatuko dituela Oñatin –berak idatzitakoak.

Trikiti eta trikiti doinu artean, bertsoak entzuteko aukera ere egongo da Santa Anan. Izan ere, bi bertsolarik egingo dituzte jaialdian aurkezle lanak: Iker Zubeldiak eta Iban Urdangarinek.

### TRIKITI JAIALDIKO PARTAIDEAK

- Imuntzo eta Beloki
- Irati Gutierrez eta Amets Ormaetxea
- Xabier Etxaniz eta Ainara Saizar
- Kristina Solano
- Agirrebeña anai-arrebak eta Jauregi
- Kepa Junkera eta Sorginak
- Gozategi anai-arrebak

*Oharra: Xabi Solano ere etortzekoa zen, baina azkenean ez da hala izango. Hala ere, jaialdian fisikoki egongo ez den arren, bere soinuak entzungo direla adierazi dute.

**Afaria eta erromeria**

Jaialdiaren ostean, afaria egingo dute Oñatiko gaztelekuan –astelehena zen txartelak erosteko azken eguna–. Ehun lagun inguru elkartuko dira. Ondoren, erromeria izango dute –23:00etan hasita–. "Azpimarratu nahiko genuke erromeria irekia dela eta afaltzen egongo ez dena ere sartu ahal izango dela. Sarrera doan da, eta, beraz, herritar guztiak animatu nahi ditugu", argitu nahi izan du Barrenak.


Erakusketako argazki bat. | V. P.

## Urriaren 26ra arte ikusgai Vicente Paredesen lanak

**I.G.** | OÑATI

Domekara arte izango da ikusgai *Furtivos* izeneko erakusketa kultura etxeko erakusketen aretoan. Egunero, 18:00etatik 20:00etara.

Ilunpetan argazki taldeak antolatu du Vicente Paredes argazkilariaren lanek osatzen duten erakusketa. 80ko hamarkadako industrializazio garaian kokatzen dira lanok. Espainiatik Bilbo ingurura joandako landa-gizonen istorioa irudikatzen dute, hain zuzen ere. Paderesek erakutsi nahi izan du euren lurrak utzi eta Bilbora lan bila joandakoek, ondoren, hemengo lurrak landatu dituztela.


Shakti Olaizola. | TOLOSALDEA.NET

## Bihurrikari baten eskutik, liburuen mundura

**I.G.** | OÑATI

Liburutegien Nazioarteko Eguna da gaur, eta, eguna modu berezian ospatzeko, aparteko ikuskizuna prestatu dute Udal Liburutegitik. Gainera, liburutegian bertan egin barik, kalean egingo dute. Shakti Olaizola bihurrikariak (kontorsionista) hainbat saio egingo ditu herriko hainbat tokitan. Zehazki, 18:00etan Foruen plazan, 15:45ean Santa Marina plazan eta 19:30ean Atzeko kalean. Ahotsaren, mugimenduaren eta gorputzaren malgutasunaren bidez, istorio bat kontatuko du Olaizolak, zirkuko teknikak eta dantza batuta.

# Alexander Huber eskalatzaile ospetsuak hitzaldia egingo du institutuan domekan

## Mendi Hamabostaldiaren baitan antolatu dute; gehiago, azaroaren 11tik 20ra

**I.G.** | OÑATI

Alexander Huber alemana ezaguna da eskaladaren munduan egindako lanarengatik. Besteak beste, sokarik gabe eginiko igoerengatik da ezaguna. Bada, Zuazola Institutuko aretoan hitzaldia egingo du urriaren 26an, domeka, 19:00etan. Sarrera hiru euro da.

**'Mendien argitasuna'**

Espainiako hainbat tokitan izan da Huber bere azken proiekzioa erakusten, eta orain, Euskal Herrira dator. Huberrek bere unerik onenak erakusten ditu *Mendien argitasuna* proiekzioan. Argazkiak eta sekuentzia zinematografikoak emango ditu, musikaz lagunduta, hain zuzen ere. Horretaz gain, bere bizipenak ere kontatuko ditu mundu mailan ospetsua den eskalatzaileak. Horrela, bere esperientziak partekatzeko, bere gertutasunaz gozatzeko, berarekin berriketan egiteko eta edozein zalantza argitzeko aukera paregabea izango dela adierazi dute alemanaren prentsa arlotik. Hitzaldiaren izenburuak dioen moduan, mendiak argirik hoberenarekin erakutsiko ditu eskalatzaileak domekan egingo duen hitzaldian.


Alexander Huber eskalatzailea. | ALEXANDER HUBER

**Mendi Hamabostaldia**

Azaroaren 11tik 20ra izango da aurtengo Mendi Hamabostaldia, eta haren aurretik antolatu dute Huberren hitzaldia Aloña Mendiko mendi sailekoek. Hamabostaldiaren baitan, hainbat dira antolatu dituzten ekitaldiak: mahai-ingurua, hitzaldiak, proiekzioa... Besteak beste, Zuriñe Foronda eta Alberto Iñurrategi izango dira hizlarietako batzuk.

# Pantaila akustikoak jarriko dituzte Kurtzebarri eskolako atzeko partean

## Zarata txikitzeko dira, baita segurtasuna bermatzeko ere, eta Aldundiak bere gain hartuko du kostua

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Kurtzebarri eskolaren atzealdeko parkea eta bidegorria errepidetik babesteko, pantaila akustikoak jarriko dituzte. Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainduko ditu lanok, eta urtea bukatu aurretik esleituko dituztelakoan daude udal ordezkariak. Gero, bi hilabete beharko dituzte pantailok jartzeko; hortaz, otsail bukaeran jarrita izango dira, ondo bidean.


Jose Mari Segovia eta Ana Bolinaga, pantailak jarriko dituzten lekuan. | JULEN IRIONDO

**136 metroko luzera**

Hormigoiz eta metakrilatoz egindako hiru metroko garaieradun pantailak jarriko dituzte. Eta 136 metro luze izango du pantailen tarteak, GI-627 errepidearen azpiko pasabidetik Kurtzebarri eskolaren atzeko partean dagoen menditxoraino. Lanok egiteko bi hilabete beharko dituzte eta 193.705 euro bideratuko dituzte. Aldundiko Mugikortasun eta Azpiegitura Departamentuarekin adostasuna lortu ostean egingo dituzte lanok: "Aspaldiko herri eskaera da; batez ere, eskolako kideen, guraso elkartekoen eta auzokideen aldetik. Eta Udalak bat egin du"; eta gaineratu du: "Orain dela urte eta erdi jarri ginen harremanetan Diputazioko arduradunekin eta orduan ez zela posible esan ziguten, baina bai geroago, 2014ko maiatzean diru laguntza bat jasoko zutelako Eusko Jaurlaritzatik". Proiektu xumea baina "behar-beharrezkoa" dela azaldu du Bolinaga alkateak.

**Zarata eta segurtasuna**

Hain zuzen ere, hiru helburu dituzte pantaila horiek: Kurtzebarri eskolaren atzeko partean dauden jolasparkeen segurtasuna bermatu; eskolako eraikinaren isolamendu akustikoa hobetu; eta ikasleen segurtasuna hobetu, neska-mutikoak errepidera irten ez daitezen babesgarri izanda. Honelaxe azaldu du Bolinagak: "Zarata txikitzeaz gain, segurtasuna ere bermatu gura da. Izan ere, kamioi edo auto bat jaus daiteke eskola eremura; eta baita umeek errepideraino jo ere. Eta ikusi besterik ez dago saihesbide horretan autoen zirkulazio handia dagoela".

# Kiroldegiko zerbitzuari nola eutsi adosteko eskatu du Aralarrek

**M.A.** | ARETXABALETA

Kiroldegiaren gainean azken asteotan esandakoen harira, Aralarrek ere bere bertsioaren berri eman gura izan du.

Aurreko agintaldian Udalean legez kanpo zegoen ezker abertzaleak Kirol batzordean parte hartzen zuela gogorarazi dute, eta "lehen eskutik" ezagutzen zuela proiektua: "Bere ordezkariak naturaltasunez hartzen zuen parte bileretan. Eta herri-proiektua zela ulertu genuen alderdi politiko guztiok, eta ondorioz, lanak ordaintzeko Plan Finantzario-Ekonomikoa egin zen". Gaineratu dute: "Agintaldi honetan, ordea, kiroldegiaren gestioaren ardura alkateak eta Bilduko hainbat zinegotzik (guztiek ez) nahi ez zuten enpresa gestionatzen hasi zenean, arazoak bertatik bertara hasi ziren".

Udalbatzak onartu zuela kiroldegiaren gestioa nori esleitu diote, baina gobernu batzordeak UTEaren egoera "estuarazi" egin duela, bere martxa bultzatuta: "Enpresaren egoera ekonomikoa zaila da, eta horren arrazoiak bi dira: enpresak egindako abonatuen kopuruaren aurreikuspen okerra eta Udal Gobernuaren utzikeria eta kiroldegia aurrera ateratzeko borondaterik eza".

UTEak erabiltzaileei eman dien zerbitzua kalitate handikoa dela uste dute, "bertako langileen inplikazioari esker": "Datu batzuk emateko, kiroldegiaren auto-finantzazioa %76 da, inguruko herrietan %45-55 den bitartean. Gainera, kirol etxe zaharra itxi zenean, %43,5eko auto-finantzazioa zeukan, eta 245.932,54 euroko diru-galera eragiten zion Udalari. Eta azken datua: inguruko herrietako kiroldegien galerak 400.000 eta 1.000.000 euro artekoak dira gaur egun".

Aralarkoek diote esku ez hartzeko eman den argudioa legea urratzearena dela: "Udaleko zerbitzu juridikoaren eta Udalak azpikontratatuta duen zerbitzu juridikoaren iritziz, legezkoak direnean UTEaren bi eskaera hauek: Udalak kirol-politikaren kostua bere gain hartzea (Kurtzebarri eskolako neska-mutikoak, areto-futbola…), eta baita, kiroldegia udal zerbitzua den neurrian, uraren kostuarena ere. Guztira, 134.000 euro". Eta gaineratu dute: "Orain, inorekin kontatu barik, datorren urtarrilaren 1etik aurrera zerbitzua nola emango ari dira lanean".

Erreferente bihurtu den azpiegitura izanda, uste dute guztien artean adostu beharko luketela zerbitzuari nola eutsi: "Gu prest gaude erabakia elkarlanean hartzeko. Baina badago horren borondaterik?"

# Udal tasei eta zergei KPIa igotzea onartu du udalbatzak; eta negatiboa bada, izoztea

## Zabor bilketa zerbitzu guztia tasa bidez ordaintzea eskatu zuten EAJkoek

**IMANOL GALLEGO** | ARETXABALETA

Ezohiko osoko bilkura egin zuen astelehenean udalbatzak, eta gai nagusia 2015eko ordenantza fiskalak izan ziren. Bada, horiek onartzeko orduan, gobernu taldeak zinegotzi sozialistaren babesa izan zuen.

**Hondakinek sortutako zuloa**

Datorren urteko udal tasak izan zituzten hizpide zinegotziek astelehenean. Batzordeetan hainbat adostasunetara iritsi eta gero, ordenantzek Bilduren eta PSE-EEren babesa jaso zuten; Aralar abstenitu egin zen; eta EAJk kontra bozkatu zuen.

Ana Bolinaga alkateak azaldu zuenez, hurrengo urteko tasei KPIa gehituko diete, eta igoera negatiboa bada, izoztu egingo dituzte: "KPIa, asko jota, 0,2 edo 0,5 izango da, eta horregatik igoko dugu; gehiago balitz, ezta planteatu ere. Seguru asko, igoera negatiboa izango da, eta orduan, izoztu egingo ditugu udal tasak".

EAJko zinegotziek kritikatu egin zuten tasak orokorrean landu izana; euren iritziz, tasa bakoitzak "lanketa propioa" behar du.

Onartutako tasen artean eztabaidarik luzeena zabor bilketarenak sortu zuen. EAJko zinegotzien ustez, horrelako zerbitzu bat %100 tasa bidez ordaindu beharko litzateke: "2012. urtetik hona zerbitzua defizitarioa da eta 50.000 euroko zuloa dugu orain. Hala ere, Udalak zerbitzu batzuk lagundu behar ditu: kultura, kirola… baina ez zabor bilketa".

Alkateak baztertu egin zuen herritarrek zerbitzu publikoak osorik ordaindu beharra. Hainbat zerbitzu defizitarioak direla onartu arren, datorren urtean ere soberakin batekin bukatu dutela azaldu zuen: "Iaz 468.000 euroko soberakina izan genuen; hortaz, KPIa izozten bada, guk ere tasak izoztea zor diegu aretxabaletarrei. Izan ere, zergekin eta tasekin guztia estaldu gura bada, herritarrak ito egingo ditugu".

Bilkura lasaia izan zen arren, sozialistak eta jeltzaleek datu eta dokumentu falta salatu zuten. Alkateak onartu arren aktek hainbat hutsune zutela, datu eta estimazioak hor zeudela azaldu zuen.

**ESANAK**

**"Tasekin guztia estaldu gura bada, herritarrak itoko ditugu"**

**ANA BOLINAGA** | ALKATEA



M.A.

# Mosaiko erraldoia egiteko deia

Gure Esku Dago Aretxabaletako lantaldeko kideak azaroaren 8an Donostian egingo duten mosaiko erraldoirako izenak jasotzen dabiltza. Bihar, zapatua, berriro egongo dira Mitarte kalean, 18:30ean. Argibide gehiago gura duenak, edo izena eman, hona helbidea: *gureskudago.atxabalta@gmail.com*; Twitterren: @ GEDATXABALTA; eta Facebooken: *gureeskudago.atxabalta.*

## Saiheski-jana egingo du UDAk bihar arratsaldean Mitarte kalean, dirua batu eta herria girotzeko

Ohitura duen legez, saiheski-jana antolatu du Aretxabaleta kirol elkarteak biharko, urriak 25 (18:30). Mitarte kalean izango da, eta, oraingoan ere, Juan eta Javi harakinekin (Iosu harategia) elkarlanean antolatu dute ekitaldia. Dirua batzea da kirol elkartearen helburua, eta, era berean, herria girotzea. Gabonetako loteria saltzeko aprobetxatuko dute UDAko kideek.


Desfilean parte hartuko duten komertzioen ugazabak esku artean produkturen bat dutela. | M.A.

# 'Herriko Plaza fashion day' moda desfilea nobedadez beteta dator urriaren 31n

## Aretxarte elkarteko sei komertziok hartuko dute parte, baita ile-apaindegiek ere

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Alfonbra gorria lurrean, musika bozgorailuetan, fokuak piztu eta aurrera modeloak. Halaxe dator Aretxarte merkatarien elkarteak antolatutako *Herriko Plaza fashion day* moda desfilea. Urriaren 31n, egubakoitza, izango da, Herriko Plazan, 18:30ean.

**Plazako oholtza gainean**

Nobedadeak izango direla iragarri dute Aretxarte merkatarien elkarteko kideek: "Leku aldaketa dago aurten; Durana kalean beharrean plazan egingo dugu, eta modeloak Kurtzebarri institutuko eraikinetik irtengo dira"; eta jarraitu dute: "Asmoa da, gainera, alfonbra gorria lurrean jarri beharrean oholtza gainean jartzea. Hala, herritarrek hobeto ikusi ahal izango dute". Beste behin, musika dantzagarriak girotuko du ekitaldia, eta aurten, argi-fokuak jarriko dituzte ibiltokian, "ordurako iluntzen hasita" egongo delako.

**Dendak eta ile-apaindegiak**

Orain dela hiru urte –2011ko maiatzean– abian jarritako ekimenarekin hainbat komertziok egin dute bat azken desfileetan, eta oraingoan, seik hartuko dute parte: Kilima eta Haurrak umeendako arropa-dendek; Amaia umeendako produktuak eta arropak dituen komertzioak; M-5 kirol-dendak; Titare lentzeria -dendak; eta Belar Meta gazteendako arropa-dendak.

Horiekin batera elkarteko ile-apaintzaileen lanak ere ikusi ahal izango dira; Irudi eta L-10 ile-apaindegiek eta Gemes irudi aholkulariak hartuko dute parte: "Modeloak orrazten eta makillatzen lagunduko digute, eta, hala, dotore-dotore ibiliko dira guztiak oholtza gainean", jakinarazi dute.

# Xabi Igoa da dinamizatzailea Lekaixokako helduen taldean

KOMUNITATEA GOIENA | LEKAIXOKA
BEÑAT ZAMALLOA AKIZU

Orain arte dinamizatzaile izan den Miren Amuritzak gertutik jarraituko du Lekaixoka bertso-eskolako helduen taldea eta bertso-eskola bera, baina ez aurreko urteko maiztasunez, agendak eragotzita. 17 urtetik gorainoko taldean izena eman nahi duten guztiak eskuzabalik hartuko ditu taldeak, orain arte egin bezala.

**Izen-ematea zabalik**

Ikasturte honetan, Xabi Igoa Aramaioko bertsolaria arduratuko da Lekaixoka bertso-eskolako helduen taldea dinamizatzeaz. Iazko ikasturtean Miren Amuritza bertsolariak izan zuen ardura hori, baina aurten, agendak eragotzita, ezin izango du iazko maiztasunez jarraitu helduen taldea. Dena dela, Aretxabaletako bertso-eskolarekin elkarlanean jarraitzen du, eta helduen taldeko martxa ere jarraituko du, maiztasun txikiagoan bada ere.

Helduen taldea bederatzi lagunek osatzen dute egun, eta asteazkenero elkartzen dira 19:00etatik 20:30era bitartean, Arkupe kultur etxean. Iaztik taldea baden arren, interesa duen 17 urtetik gorainoko edonork eman lezake izena helduen talderako. Bertso-eskolako talde guztietarako moduan, aski da nahi izatea. Izena eman nahi duenak *lekaixoka@gmail.com* helbidera idatzi beharko du. Hilabetean probatzeko aukera izango du, eta epealdi horretan ezin gusturago dagoela ziurtatzen duenean, 50 euroko matrikula ordainduko du. Helduen taldeak eskuzabalik eta gogotsu hartu izan ditu beti kide berriak, eta hala jarraitzen du eskoletarako zein eskolaz haragoko ekintzetarako.

**Bertso musikatuen emanaldia**

Azaroaren 7rako *Ez da kasualitatea* bertso musikatuen emanaldi berezia antolatu du Lekaixoka bertso-eskolak Udaleko Kultura Sailarekin elkarlanean. Miren Amuritza, Beñat Gaztelumendi, Onintza Enbeita eta Jone Uria ariko dira bertsotan eta Amaia Agirre bertsolaria gai-jartzaile. Arkupe kultur etxeko Zaraia aretoan izango da, 19:00etan, eta sarrera 4 euro ordaindu beharko da.


Xabi Igoa dinamizatzailea eta bertso eskolako kideak. | BEÑAT ZAMALLOA AKIZU

# Atzerriko film labur onena Aratzekoen 'Olympics'

## Gorgonzolako (Italia) Festival de Cinema Nuovo lehiaketan jaso zuen saria joan den domekan

M.A. | ARETXABALETA

Saria jaso du Aratz elkarteko kideen *Olympics* filmak Gorgonzolan (Italia) egindako Festival de Cinema Nuovo zinemaldian. Atzerriko film labur onena izendatu zuten domekan egindako sari banaketa ekitaldian. "Aretxabaletarrok ez genuen bertan egoterik izan beste konpromiso bat zela-eta. Gure izenean jaso zuen saria Simone Piccardi gazteak, Italiako lagun baten semeak", jakinarazi du Jokin Antxiak, Aratzeko kideak.

Olinpiadak gai hartuta egindako film laburra urriaren 10ean aurkeztu zuten Aretxabaletan; orduantxe ikusi zuten lehenengoz Aratzeko eta Atzegiko aktoreek eta haien senideek eta lagunek. Esfortzu handiarekin egindako filma dela onartu zuten orduan guztiek, eta orain, urrezko domina jaso du: "Benetan pozik gaude sariarekin", dio Antxiak; izan ere, esfortzuak merezi izan du. Gorgonzolan aurretik ere sariak eskuratu izan ditu Aratzek.



Simone Piccardi, sariarekin. | ARATZ

### Unitate mugikorra etorriko da odola ateratzera eguaztenean

Arabako Odol Bankuko kideak unitate mugikorrarekin etorriko dira odola ateratzera eguaztenean, urriak 29, Durana kalera (Herriko Plaza parean), 16:30etik 20:15era. Pintxo-poteo eguna izanik, gazteak ere anima daitezen gura dute Odol Emaileen Elkarteko ordezkariek.

### 'Lanera bizikletan' ekimena aurkeztuko dute astelehenean

Aldundiak eta Udalak (Eskoriatza, Arrasate eta Oñatikoekin batera) *Lanera bizikletan* ekimena antolatu dute herritarrak oinez edo bizikletan joan daitezen lanera. Horren berri emango dute astelehenean, Arkupen, 19:00etan. Argibideetarako: 900-10 27 16 eta *www.lanerabizikletan.net*.

Mobiliario
Arenaza
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

zenbaki
aholkulariak-abokatuak
CERT ISO 9001
GARANTÍA DE ALQUILER
• **Juridikoa:**
- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.
- Penala: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekurtsoak.
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkurtsoa.
• **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioko espedienteak.
• **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioa.
• **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.
**Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12**
***www.zenbaki.es***

# Auzolanean txukundu dute Narruolako lokala

M.A. | ANTZUOLA
Asteburuan Narruolako lokala txukundu dute, auzolanean, brigadako langileek eta zenbait herritarrek.

"Aurreko astean ere aritu ginen lokala txukuntzeko lanetan; lurra egokitu dugu, eta gaur, pisu handien duen materiala beste lokal batetik Udalaren Narruolako lokalera ekarri dugu", azaldu du brigadako langileak.

Narruola lantegiak ateak itxi zituenean, Udalari utzitako materiala dago egun lokalean. Asmoa, posible den heinean, erakusketa antolatzea dela azaldu du Udalak.


Auzolanean. | UDALEKO BRIGADA


Ttipi Ttapa taldeak egindako lehen irteera. | MAIDER ARREGI

# Ttipi Ttapak hilaren 28an egingo ditu azken irteera eta urteroko merienda

Hitzaldia ere egongo da, taldean nola hitz egin eta nola entzun ikasteko

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA
Ttipi Ttapa erretiratuen taldeak azken irteera egingo du hilaren 28an, –Torresoroa, 10:30– herriko oztopoak batzeko. "Irteera honetan, dagoeneko konpondu dituzten oztopoak ere jasoko ditugu", azaldu du Jose Inazio Garitanok, Ttipi Ttapako kideak. Balorazio ona egin du: "Irteeretan borondatedun jendea etorri da. Auzoetan bizi direnek, esaterako, herriko zenbait akatsen berri ere eman digute. Parte-hartze polita izan da". Udalak, gainera, zenbait konponketa egin dituela eta erantzun ona izan dela dio Genaro Laskurain presidenteak. "Oraindik, ordea, badago egiteko: Kalebarrenetik Buztinzurirako galtzada konpondu beharra dago, zenbait istripu gertatu dira-eta; udaletxeko komunak egokitu egin behar dira, gurpildunendako bereziki; San Josepeko espaloia ere ez dago ondo, esaterako", azaldu du.

Ibilbidean zehar, ondo dauden gauzak ere ikusi dituzte: "Herriko Plazako eta Kalegoiko galtzada oso ondo dago; Beheko auzotik Eguzki auzora erreka kontran dagoen pasabidea ere ondo dago. Zurrategi azpian eta Sagastin dauden bankuak ere ondo daude".

**Herri Lagunkoiak**
Landatxopeko erretiratuek bat egingo dute Herri Lagunkoiak taldeko kideekin. Izan ere, Antzuolan sortu berria da taldea. "Erretiratuekin harremana dute Herri Lagunkoiak taldekoek eta Udalaren oniritzia eta babesa badaukagu aurrera egiteko, elkarlanean", azaldu du Garitanok.

## Hitzaldia eta merienda

Hilaren 28an, Pedro Etxebarriak hitzaldia egingo du, Olaranen 18:00etan. Gaia: taldean nola hitz egin eta nola entzun besteek esaten dutena.

Ondoren, erretiratuen lokalean, Landatxopeko bazkideendako, urteroko merienda egongo da, arratsaldeko zazpietan hasita. "Ogitartekoak eta txokolatea izango dira etortzen diren bazkideendako", dio Garitanok.

# Antzuolako Kirol Elkarteak denboraldi berriko futbol jokalariak aurkeztu ditu

Nesken futbol taldea iaz osatu zuten, bi urtean talde gabe egon ostean

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA
Guztira, bost futbol talde aurkeztu zituen asteburuan Antzuola Kirol Elkarteko futbol sailak denboraldi berrirako, Eztalan.

Mutilen lau talde eta nesken talde bat, hain zuzen ere. Mutilen taldeek jokatuko dute Ohorezko Erregional mailan, gazteetan, kadeteetan eta infantiletan.

Nesken futbol taldeak, aldiz, kadete mailan jokatuko du aurten; iaz infantil mailan jokatu zuten eta aurten mailaz igo dira. Esan behar da nesken taldea iaz osatu zela, bi urtean taldea osatu gabe egon ostean. Talde guztiei ateratako argazkiak hemen:

**Argazkiak ikusteko:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.


Aurtengo denboraldiko kadete kategoriako nesken talde argazkia. | ANTZUOLAKO KIROL ELKARTEA


JABI ETXANIZ

## Mendiko bizikleta irteera

Azaroaren 1ean, mendiko bizikleta irteera egingo dugu: Andoaindik Leitzaraino, 25 kilometro. Plan aproposa familian egiteko (nahi duenak ibilbide gogorragoa aukeran Lekunberriraino). Izen-ematea: urriaren 27an, Olaranen, 19:00etatik 19:30era; edo aurrez: *arrolamt@gmail.com*. Ikasle eta langabeek, 5 euro; langileek, 10; umeek, doan.

KOMUNITATEA GOIENA | ANTZUOLA
ARROLA MENDI TALDEA

## OHARRAK

**KUTXABANK: HITZALDIA**
Astelehenerako, urriak 27, Kutxabanken pribatizazioari eta Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako proposamenari buruzko hitzaldia antolatu dute. Hitzaldia Olaran etxean izango da, arratsaldeko zazpietan hasita.

**AIHERRARA**
Bihar, hilak 25, Aiherrara joateko autobusa Sagastiko geltokitik goizeko bederatzietan irtengo da. 11:00etan, ondoetorria egingo diete antzuolarrei eta ospakizunak hasiko dira. Bazkaria, musika... giro ona izango da goizaldera arte.

# Katiluak eskuan, Udalak mahaiaren bueltan batu nahi ditu herritarrak

## Azaroaren 8an bilera irekia egingo dute Manuel Muñoz kiroldegian 'EskoHitza' ekimenaren baitan; parte hartzeko izena eman behar da

IRATI GOITIA | ESKORIATZA

Udalarentzat garrantzitsua da herritarren parte-hartzea bermatzea. Hala, 2011n *EskoHitza* ekimena jarri zuen martxan, herritarren ideia, proposamen eta iradokizunak jasotzeko helburuarekin. Hain zuzen, lehen bilera irekia 2011ko azaroan egin zuten Manuel Muñoz kiroldegian, eta 150 lagun elkartu ziren. "Oso aberatsa izan zen. Han batutakoa gidari izan dugu gure kudeaketan hiru urte hauetan", adierazi du Beñat Herce alkateak. 2012an eta 2013an ere egin zituzten parte-hartze prozesuak: aurrekontuak zehazteko eta krisiari aurre egiteko proposamenak batzeko, hurrenez hurren. Bada, azaroaren 8an, beste bilera ireki bat egingo dute.



Udal ordezkariak katilua eskuan, EskoHitza ekimenaren aurkezpenean. | I.G.

### Mahaiaren bueltan

Orain dela hiru urte bezala, kafe baten bueltan elkartu nahi dituzte herritarrak. Hainbat iritzi, izaera eta pentsamoldetakoak. Izan ere, euren nahia da ahalik eta aniztasun handiena lortzea. "Bere garaian heterogeneitate hori saiatu ginen islatzen katiluekin. Hori izan zen ekimenaren marka orain hiru urte eta berreskuratu egin nahi dugu. Azken batean, nor bere etxeko katilua bezala, eskoriatzarrok ezberdinak gara: handiak, txikiak, lodiak, meheak...", esan du alkateak.

Bilera irekia 10:00etatik 13:00etara egingo da Manuel Muñoz kiroldegian. Ludoteka zerbitzua eskainiko da, gurasoen parte-hartzea bermatzeko, eta alkateak gazteak animatu nahi izan ditu, bereziki, orain dela hiru urte ez ei zirelako asko joan.

Herritarrek, talde txikitan banatuta, bi eginbehar izango dituzte: batetik, proposamen berriak egitea datozen hiru urteetarako; eta bestetik, azken hiru urteetan egindako parte-hartze prozesuetan jasotako emaitzen balorazioa egitea.

Alkateak ohartarazi du azaroaren 8an egingo den bileran parte hartzeko izena eman behar dela. Horretarako, kultura etxera dei egin daiteke (943-71 46 88) edo *partehartzea@eskoriatza.net* helbidera idatzi.

### Aldizkaria

Parte-hartze prozesuetan proposatutako ideien betetze maila zein den jakinarazteko, aldizkari bat egin du Udalak, bestetik. "Garaia da egindakoa aztertu eta kontuak emateko. Horregatik prestatu dugu aldizkaria", esan du Hercek. Bada, gaur, egubakoitza, banatuko da etxeetan eta arloz arloko informazioa eskainiko du modu laburtuan. Informazio osoa nahi duenak Eskoriatzako webgunean izango du eskuragarri.

### Asteburu mikologikoa antolatu dute azaroko lehen asteburuko

Luis Ezeiza ikastetxeko Koldotxo guraso elkarteak asteburu mikologikoa antolatu du azaroaren 1erako eta 2rako. Zapatuan, mendi irteera egingo dute –09:30ean abiatuko dira plazatik–. Domekan, perretxiko erakusketa egingo dute, 11:30etik 14:00etara.

### 'Satisfaktion' antzezlana gaur Huhezin, 22:30ean

Khea Ziater taldeak *Satisfaktion* antzezlana eskainiko du gaur, 22:30ean, Huhezin. Emanaldia euskaraz da eta sarrera, debalde. 2013an Donostia-Kulturak antolatutako Poltsikoko Antzerki Jaialdiko sorkuntza sariaren irabazlea da.

### Dokumental emanaldiak urriaren 29an Ibarraundin

Elikadura burujabetzaren gaineko zikloa egiten dabiltza Elkarhezitzen eta Mugarik Gabe. Dokumental emanaldia egingo dute hilaren 29an, 19:00etan, Ibarraundin. Ikusgai: *Mujeres campesinas andaluzas*, *Tres historias y un vaso de leche* eta *Campesinas, semillas del cambio.*



ESKORIATZAKO ARETO FUTBOL SAILA

## Kirol taldeak prest

Osatu dituzte kirol taldeak,eta aurkezpen argazkia atera dute. Besteak beste, honakoak dira taldeak: areto futboleko Euskal Ligakoa, lurraldekako txapelketakoa (Araba), nazional gazteetanena; eta saskibaloikoak.

## Auzoko egitasmoan izena ematera animatu nahi dituzte herritarrak

I.G. | ESKORIATZA

Auzoko egitasmoaren aurkezpena egiteko, eta kide berriak bilatzeko, ekitalditxo bat egin zuten atzo iluntzean. Izan ere, herritarrak animatu nahi dituzte egitasmoan parte hartzera. Interesa dutenek bi bide dituzte: *auzoko.eskoriatza@gmail.com* helbidera idaztea edo 661 74 63 76 telefono zenbakira deitzea. Herriko elkarbizitzan interesa duten eta euskaraz dakitenek nahiz euskarazko oinarriko maila hartu nahi dutenek eman dezakete izena. Egitasmoak hiru gako bateratzen ditu: euskara, aniztasuna eta herritarrak. Erronka da jatorri askotariko herritarren artean euskaraz jardutea.




Iazko erretiratuen bazkaria kiroldegian; 102 erretiratu elkartu ziren. | JOSETXO ARANTZABAL

# Herri osoa inplikatuko da Erretiratuen Egunean

Biharko azokan 60 postu, animaliekin eta bertako zein kanpoko produktuekin

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Egun handia izango da biharkoa, Erretiratuen Eguna. Herri osoa inplikatuko da aramaioarren egutegian oso berezia den egun horretarako: Udala, hainbat elkarte gastronomiko, Lagunartea dantza taldea, Trikitixa Eskola, Papargorri eta Bizente Goikoetxea abesbatzak eta txistulariak. Aurten 101 erretiratu egongo dira bazkarian, eta, urtero moduan, gizonezko zein emakumezko edadetuenak omenduko dituzte.

Antolakuntzaren ardura handiena hartzen duena, baina, Udala izaten da: "Lan handia izaten da azoka antolatzea, bereziki animalien azokarako baimenak eta tramite guztiak egitea", diote.


Mezaren osteko dantza emanaldiak jende asko erakartzen du urtero. | J.A.

**Bertako ganadu eta produktuak**

Erretiratuei begira prestatutako festa izan arren, herri osoa irteten da kalera. Kanpotik etortzen denak herriko festak direla pentsatuko luke. Azoka izaten da eguneko izarra eta aurten ere 60 postutik gora espero dira Nardeaga kalean barrena. 11:00 aldera irekiko da, 14:30ak arte.

Batetik, bertako produktuak daude, baserritarrek, herritarrek zein herriko elkarteek jartzen dituztenak. Bertakoen artean hogei postu espero dira, produktuei dagokienez: onddoak, barazkiak, frutak, gazta, eztia eta erleen bestelako produktuak, pastelak, eskulanak, sukalderako erremintak... Zerrenda luzea da oso. Eta, norbanakoez aparte, Gazte Asanbladak –taloak egiten ibiliko dira jo eta ke–, Itur-Zuri Emakume Elkarteak, Trikitxa Elkarteak eta San Martin Eskolako 6. mailako ikasleek euren txokoa izango dute azokan, besteak beste.

Bestetik, bertako ganadurik ez da falta izango, Aramaioko hamabost baserritarrek animaliak erakutsiko dituzte-eta parkearen ondoan: astoak, behorrak, ahuntzak... Bertakoez gain, baina, inguruko herrietatik ere etortzen dira Erretiratuen Eguneko azokara; kanpoko 32 bat ekoizle izango dira aurten.

**Kultur taldeen ekarpen handia**

Kultur taldeek ere zeresan handia izango dute bihar. Mezan bertan, Bizente Goikoetxea abesbatzak urteroko saioa eskainiko du eta gero, Papargorrik ere abestuko du. Ondoren, Lagun Artea dantza taldeak emanaldi berezia egingo du San Martin elizaren kanpoaldean.

**BIHARKO EGITARAUA**

**URRIAK 25, ZAPATUA**

**11:00-14:30** Herriko produktuen azoka: barazkiak, artisauak, fruituak. Herriko txistulariak eta trikitilariak kalejiran.

**12:00** Meza San Martin elizan, Bizente Goikoetxea abesbatzarekin. Ondoren, Papargorri abesbatzaren emanaldia.

**13:00** Herriko dantzari eta trikitilarien emanaldia.

**14:00** Erretiratuen bazkaria kiroldegian.

**ELKARTEEN EKARPENA**

Salda eta ogitartekoa erretiratuendako.

# Ateak zabalik daude mintzalagun taldeko kide izan gura duenarendako

**J.B.** | ARRASATE

Aurten ere mintzalagun taldea sortu da, iazko talde bera. Zortzi lagunek osatzen dute. Orain arte zapatu arratsaldeetan elkartu izan dira, kalean ibili eta euskaraz komunikatzeko konpromisoarekin: "Gertatu da taldean kuadrilla bereko bi pertsona egotea eta mintzalagun taldean egon ostean konpromisoa hartzea gero lagun artean elkartzen diren bakoitzean euskaraz egiteko", adierazi dute.

Gainera, euskaldun zahar batzuk gertu daude beste egun eta ordutegi batzuetan ere elkartzeko. Interesa duenak jo dezala udaletxera (945-44 50 16) edo kultura etxera. Taldea azaroan hasiko da elkartzen.

**Kopuru "ona" ikastaroetan**

Bestalde, Udalaren euskara ikastaroetan ikasle kopuru "ona" ari da aurten. Bi maila daude, hastapenekoa eta erdi mailakoa, eta bakoitzean zortzi edo bederatzi ikasle ari dira. Hastapenekoak astero lau orduz elkartzen dira eta aurrez ikasitakoari jarraipena eman gura dietenek, berriz, astero sei orduz. Bi taldeak udaletxean elkartzen dira, AEK-ko irakasle batekin. Izena eman gura duenak galde dezala udaletxean: "Eskaera aztertuko dugu", diote Udaletik.


Mintzalagun taldea udaletxe azpian, artxiboko argazki baten. | ARAMAIOKO UDALA

## 2015erako egutegia eta argazki bilduma osatzeko lehiaketako izen-ematea, urriaren 30era arte

2015eko egutegia eta argazkien bilduma osatzeko lehiaketan, parte-hartzaile bakoitzak hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu gehienez eta erretratu guztiek Aramaion ateratakoak izan beharko dute, lehenago argitaratu gabeak. Nola aurkeztu behar diren jakiteko, udaletxera jo behar da: 945-44 50 16. Argazkiak udaletxean edo kultura etxean entregatu behar dira, urriaren 30a baino lehen.

## Azaroaren 12a baino lehen eskatu behar dira eskola garraiorako eta euskara ikasteko diru laguntzak

DBHko –Arrasate Institutuko ikasleak izan ezik–, batxilergoko, heziketa-zikloetako edo unibertsitateko ikasketak egiten dituztenek izango dute aukera garraiorako diru laguntza eskatzeko. Euskara ikasteko diru laguntzetan aldaketa bakarra izango da: langabeek ez dutela abantailarik jasoko euskara ikasteagatik. Azaroaren 12a baino aurkeztu behar da eskaera, udaletxean.

## 'Gorbeiaz gozatu gure dendetan erosiz' kanpaina azaroaren 9ra arte martxan Zuiako Koadrilan

Zuiako Koadrilako komunikazio arloak jakinarazi duenez, *Gorbeiaz gozatu gure dendetan erosiz* kanpaina martxan egongo da azaroaren 9ra arte. Koadrilako zenbait herritan, Gorbeialden eta Gasteizen dago indarrean, besteak beste. Bat egin duten dendetan sari interesgarriak banatuko dizkiete bezeroei, zozketa bidez. Hain zuzen ere, bezeroen fideltasuna saritu gura dute.

## Areto futboleko Aramaixo taldeak domekan jokatuko du Morant Ibañez taldearen aurka (17:00)

Etxean jokatuko dute aramaioarrek hirugarren jardunaldiko partidua. Joan den aste bukaeran atsedenaldia izan ostean, denboraldiko lehen garaipena lortzeko Morant Ibañez Futsal taldea izango dute aurkari etxekoek. Aurkariek bi partidu jokatu dituzte: bat irabazi egin dute eta bestea galdu. Norgehiagoka domekan jokatuko da, 17:00etan.

ELGETA

# Autodefentsa feminista tailerra antolatu dute azaroaren 29rako

Iaz 15 emakume gelditu ziren itxaron-zerrendan; izen-ematea zabalik dago

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Interes handia piztu zuen iaz Elgetan lehenengo aldiz egindako autodefentsa feminista tailerrak. Hogei emakumek hartu zuten parte eta hamabost itxaron-zerrendan gelditu ziren.

Bideberri mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak berriz eskainiko du. Saioa azaroaren 29an egingo dute, zapatua, Herri Eskolako psikomotrizitate gelan, 09:30etik 13:30era. Doan da, eta izen-ematea zabalik dute udaletxean azaroaren 21era arte. Interesa agertzen duten emakumeen araberakoa izango da tailerra aurten. Berriak badira, oinarrizko tailerra egingo dute berriro eta iazko parte-hartzaileak badira, berriz, tailerraren bigarren zatia egingo dute.



Iazko autodefentsa feminista tailerrean parte hartu zuen taldea . | L.Z.

**Helburuak**

Aurten ere Emagin elkarteko dinamizatzaile batek gidatuko du tailerra, eta ekimena azaroaren 25ean gogora ekartzen den Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Egunaren baitan antolatutako ekintza izango da. Helburuak dira eraso motak identifikatzea, autodefentsaz aritu eta erasoei aurre egiteko estrategiak lantzea, indarkeriaren inguruko bizipenak partekatzea eta beldurrei eta emozioei buruz hitz egitea. Autoestimua landuko dute, gehienbat, eraso sexistak identifikatzeko: "Eta emakumeek argi ikusteko eraso horiei erantzuteko duten eskubidea", azaldu dute Emagin elkartetik. Dinamizatzailearen helburu nagusia, aurten ere, konfiantza giroa sortzea izango da parte-hartzaileek, saioan, bizi dituzten esperientziak, emozioak eta dituzten zalantzak eta beldurrak elkartrukatzeko. "Barrura begiratzeko eta biluzteko espazioa" sortzeko.

**Gizonezkorik ez**

Tailerrean emakumezkoek bakarrik har dezakete parte. "Ezinbesteko deritzogu emakumeendako den espazio bat sortzeari. Ez dugu horrelakoetarako denborarik eta espaziorik hartzen, eta beharrezkoa da. Lasaiago eta babestuago sentitzen dira gaiaren inguruko euren bizipen pertsonala kontatzeko. Konfidentzialtasuna ere oso garrantzitsua da".

## Lotsarik gabe aritzeko eta ondo pasatzeko

L.Z. | ELGETA

Harremanak, gorputzaren ezagutza eta autoestimua landuko dituzte gazteendako antzerki tailerrean, Espaloian. Azaroaren 7an hasita, ekainera arte, barikuro, bi saio egingo dituzte 8-16 urte bitarteko gazteekin. "Gure benetako izaera ezagutu eta azaltzen laguntzen digu antzerkiak", azaldu du antzerkiarekin ondo pasatzeko testuingurua sortu nahi duen Belen Azkarate dinamizatzaileak. "Umeendako antzerkia ez da batere eremu arrotza, mundu sinbolikoan bizitzera ohituta baitaude. Eurentzat jolas bat da, eta halaxe izatea nahi dut, ondo pasatzeko, elkarrengandik ikasteko eta lotsarik gabe aritzeko". Izen-ematea zabalik dute Espaloia kafe antzokian. Prezioa, hileko, 25 euro da.

## OHARRAK

**SORTUK HERRI BATZARRA**

Gaur, hilak 24, 19:30ean, Udal Liburutegian. Aurkeztuko dituzte, besteak beste, 2014-2015 ikasturteko plangintza eta fronte zabalaren (EH Bildu) planteamendua.

**KARIKATURAK ZUZENEAN**

Rufo marrazkilariak hamar karikatura egingo ditu, doan, gaur, barikuan, Espaloian, 19:30ean hasita.

**KANTSATZEKEK IRTEERA**

Bihar, zapatua, 08:00etan abiatuta. Ibilbidea: Legazpi-Gorostiaga-Arrola-Legazpi.

**BISITA GIDATUA FAMILIAN**

Domekan, hilak 26, 10:00etan abiatuta umeekin egiteko moduko bisita gidatua, euskaraz. Erreserba egitea ezinbestekoa da: 943-71 89 11 edo *turismo@debagoiena.net*.

**ERRETIRATUEN IRTEERA**

Gernikako azokara egingo dute irteera astelehenean. Autobusa 08:45ean irtengo da.

## Bigarren jardunaldia jokatu ostean Elgetako bolariak sailkapenaren aurreko postuetan daude

Jokoan da Euskadiko 24. hiru txirlo txapelketa, eta, Markinan eta Elgoibarren egindako tiraldien ostean, Geaxi Ezpeleta emakumezkoen sailkapeneko lehen postuan da, bi txirlo jota. Sebas Arantzabalek zortzi txirlo jo ditu, eta beste hiru lagunekin batera sailkapeneko lehen postuan da, berdinketa dago-eta. Bihar, zapatua, Bolibarko Iruzubietan jokatuko da hirugarren jardunaldia eta azaroaren 8an, Elgoibarren, San Migelen, azkena.

## Guraso elkartetik Arimen Gaua prestatzen ari dira urriaren 31rako, eta boluntarioak behar dituzte

Asmoa da neska-mutikoendako jokoak antolatzea eta, Arimen Gaua izanik, ilundutakoan jinkana egitea. Seigarren mailako neska-mutikoen parte-hartzearekin egingo dute jinkana, baina boluntarioak behar dituzte girotze-lanetarako zein jokoak gidatzeko. Interesatuek elkarteko ordezkariengana jo dezakete edo *elgetakogurasoelkartea@gmail.com* helbidera idatzi.

## Herri mailako pilota txapelketa azaroaren 7an hasiko da hamaika bikoteren parte-hartzearekin

Azken orduko aldaketarik egon ezean, bariku arratsaldeetan jokatuko dituzte, aurten, herri mailako pilota txapelketako norgehiagokak, eta lehenengo jardunaldia azaroaren 7an izango da. Hamaika bikotek hartuko dute parte aurten; 40 urtetik beherakoetan sei bikotek eta 40 urtetik gorakoetan bost bikotek. Finalak, urtero legez, Gabon zahar egunean jokatuko dituzte.

# Liburutegien Eguna ospatzeko ekintza ugari

Udalak, bestalde, liburuzain lan-poltsa berritzeko deialdia egin du eta zabalik du izen-emate epea

L.Z. | ELGETA

Gaur, urriak 24, Liburutegien Eguna da, eta Elgetan 3 urtetik gorako umeendako *Ipuinen ordua* iragarri dute, berezia. Ipuinak entzun eta eskulanak egingo dituzte umeek, 17:20an hasita.

Astelehenean, hilak 27, 2012an eta 2013an jaiotako haurrendako saioa egingo du Saroa Bikandi ipuin kontalariak, eta gurasoen parte-hartzea ezinbestekoa da.

Azkenik, gaztetxoei zuzendutako *Ezetz igarri!* lehiaketako lehenengo pista azaroaren 3an argitaratuko dute.

**Liburuzain lan poltsa**

Liburuzain jarduteko lan-poltsa berritzeko deialdia egin du Elgetako Udalak, eta interesatuek urriaren 31ra arte dute izena emateko. Esperientzia, prestakuntza eta azterketa idatzia baloratuko dituzte. Bete beharrekoen artean daude ikasketa maila, hirugarren hizkuntza eskakizuna eta Elgetan erroldatua egotea.

**LIBURUTEGIKO EGITARAUA**

**URRIAK 24, BARIKUA**

**17:20** *Ipuinen ordua.* Berezia eta 3 urtetik gorako umeendako.

**URRIAK 27, ASTELEHENA**

**18:30** Ipuin kontaketa Saroa Bikandirekin. 2012an eta 2013an jaiotako umeendako.

**AZAROAK 3, ASTELEHENA**

**17:00** *Ezetz igarri!* lehiaketaren hasiera. 12-16 urte arteko gaztetxoendako.

LEINTZ GATZAGA

# Datorren urteko tasak ez igotzea aztertzen dabiltza

Herritarren egoera kontuan hartuta eta azken ordukorik gertatu ezean, dagoenetan utziko dituzte

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Inguruko udalerri gehienetan datorren jardunerako aurrekontuak eta herritarrek ordaindu beharreko tasak eta zergak hizpide dituzte sasoi honetan. Eta Leintz Gatzagan ere badihardute zeregin horretan. "Aurrekontua datorren hilabetearen bukaera aldera landuko dugu osoko bilkuran. Baina tasei dagokienez, bagabiltza gai hori aztertzen, eta pentsatzen gabiltza ez ditugula igoko", aurreratu du Eugenio Otsoa alkateak.

**BPGa ere ez da igoko**

Hiru arrazoi hartu dituzte kontuan erabaki horren alde egiteko: "Jendearen egoera kontuan hartu dugu (krisia…); bestetik, informazio gehienek esaten dute BPGa (Barne Produktu Gordina) ez dela igoko, zeroaren bueltan geratuko dela. Eta azkenik, pentsatzen dugu BEZa ere ez dela gehiago igoko (%21 baino gehiago, jakina). Hirurak batuta, eta aparteko zerga edo tasarik ez baldin badator, pentsatzen dugu hobe izango dela ohiko tasak (IBIa…) ez igotzea", esplikatu du alkateak.

**Uraren zerga**

Bestalde, eta zerga kontuekin segituz, 2014ko azkeneko hiruhilekoari dagokion uraren zerga ordaintzeko epea zabalik dagoela jakinarazi du Udalak. Urriaren 13an zabaldu zuten eta abenduaren 14ra arte dago zerga hori ordaintzeko borondatezko epea.

Halakoetan ohi den moduan, zergak banketxeren batean helbideratuta dituzten herritarrei kontu korrontea erabilita kobratuko diete faktura.

Zerga ordaintzeko beste aukera bat, berriz, udaletxeko bulegora jotzea da (09:00-14:00ak bitartean).

Edozein modutan ere, ordaintzeko borondatezko epea pasatu ostean, kontuan izan behar da ordaindu ez duten herritarrei %20ko gainkarguarekin kobratuko dietela zerga hori.



Inaugurazio egunean Unamuno, Azantza, Larrañaga eta Garitano, erakusketan bertan. | JON SUINAGA

TXIRRINDULARITZA

# Lokatzak batutako 'altxorra' ikusgai dago, hilabetez

## Jorge Azantzaren konpainian ireki zituzten astelehenean erakusketako ateak

**X. U.** | BERGARA

Astelehenetik dago ikusgai Gorlako Igoeraren gainean Lokatzak antolatu duen erakusketa, 40 urteko errepasoa erretratu, kronika zahar, garai bakoitzeko maillot eta bestelako osagaiekin osatutakoa –Bergarako udaletxeko osoko bilkuren aretoan–. Eta, lehenengo egunean Goienak bisita gidatuaz gozatu ahal izan zuen, Jon Unamunok, Peio Garitanok, Jose Inazio Albisuak eta Jorge Azantzak lagunduta.

Hain zuzen, Euskalteleko ziklista ohiak ezin izango du azaroaren 1ean egingo duten bazkari eta omenaldian egon, eta astelehena aprobetxatu zuen ziklista ohi bizkaitarrak erakusketaz gozatu eta, bide batez, denboran atzera egiteko.

**Azantzarekin, 10 urte atzera**

Hain zuzen, 2004ra atzera egiteko eskatu genion, Gorlako Igoera irabazi zuen urtera: "Dagoeneko hamarkada bat pasa da, baina amateur mailan daukadan oroitzapenik politena lasterketa horretakoa da", diosku [Urte hartan zazpi lasterketa irabazi zituen]. Eta hori, urte hartako lasterketa gogorra izan zela: "Ordurako birritan igotzen zen Gorla, baina elurra ari zuen, eta antolatzaileek behin bakarrik igotzeko erabakia hartu zuten, errepidean ia ezin zelako bizikleta gainean ibili".

Halako kontakizunekin gozatu gura duenak –ehunka egongo dira– aukera aparta du azaroaren 1ean pilotalekuan egingo duten bazkarian egoteko, eta ondorengo tertulia entzuteko. Domeka honetan amaitzen da txartela erosteko epea, Kortazar, Depor, Irish Pub eta Sirimiri tabernetan.

FUTBOLA

# Liga hasiera zuzendu nahi dutenen arteko derbia Azkoagainen

**X.U.** | BERGARA

Aloña Mendik (6 puntu) eta Antzuolak (2) derbia jokatuko dute domekan Azkoagainen (16:30). Liga hasi baino ez da egin –zazpigarren jardunaldia jokatuko dute– eta bi talde horiek badute zerbait komunean, ez dela ametsetako hasiera izan.

Oñatiarrek duela 15 egun arnasa hartu zuten, Ostadarren kontrako garaipenaz, eta joan den astean Tolosan lortutako puntua ez da txarra. Antzuolak oraindik ez du partidurik irabazi, eta esaterako, joan den astean Bergararen kontra jasotako zigorra gehiegizkoa izan bazen ere, gol gehien jaso dituen taldea da. Hala, bi taldeek dute hobera egiteko tarte handia.

**Aretxabaleta, lider**

Kontrara, Aretxabaleta (16) une gozoak bizitzen dabil, Valleren mutilak ikusgarri dabiltzalako, eta lider dira, jokatutako sei partiduetatik bost irabazi ostean –eta berdinketa bat. Bederatzigarren dagoen Tolosaren bisita izango dute etzi, Ibarran (16:30).

Eta Bergarak (10) ere etxean jokatuko du, Real Unionen kontra. Arrateren taldeak ere txarto hasi zuen liga, baina hilabetean goitik behera aldatu dute egoera, hiru garaipen eta berdinketa batekin.

Erregional preferentean Mondra ere ez da bikain hasi, eta gora begira hasteko asmoz hirugarren dagoen Lazkaori irabazteko zelairatuko dira etzi, Mojategin (16:30).

**Emakumezkoek ere derbia**

Bergarako eta Mondrako emakumezkoek ere lehia erakargarria izango dute domekan (11:30) Ipintzan.



Antzuolako Oinatz, iaz, Aloñaren kontrako derbian. | JOSETXO ARANTZABAL

KIROL EGOKITUA

# Dortoka taldea diruz laguntzeko jaialdia prestatu dute Bergaran azaroaren 2rako

## Porrotx, Ane Pirata eta herriko hainbat talde izango dira frontoiko jaialdian

**XABIER URZELAI** | ARRASATE

Azaroaren 2an Antxintxika taldea ez da atletismo jai bat antolatzera mugatuko, eta kroseko 10. urteurren honetan beste pauso bat eman nahi izan dute: "Urtetik urtera lasterketa zabaltzen joan gara. Korrikalariendako proba batekin hasi ginen, patinatzaileak sartu genituen ondoren, gurpildun aulkian lehiatzen direnak gero, eta gaztetxoendako lasterketekin jarraitu dugu", azaldu zuen Aitor Rementeriak atzo Bergaran egindako aurkezpenean. Hala, hilaren 2an beste pauso bat emango dute, kirol egokituaren alde dirua batzeko.



Atzo, eguena, Dortokako lagunekin egindako aurkezpeneko une bat. | I.BELOKI

**Dortoka taldea babestuz**

"Jakin badakigu Dortoka taldekoek –Debagoienean dagoen kirol egokituko talde bakarra– zailtasun ekonomiko handiak dituztela, eta domeka arratsaldean egingo dugun jaialdia eurei diruz laguntzeko izango da".

Urte hauetan guztietan Antxintxika taldearen helburuetako bat herritarren artean kirola sustatzea izan da: "Baina ezintasun fisikoak dituzten gaztetxo hauendako kirol jardueraren bat egitea are eta garrantzitsuagoa da, euren errehabilitaziorako lagungarri delako, oinarrizkoa". Hala, batzen duten dirua ikastaroak antolatzeko, materiala erosteko-eta erabiliko dute.

**18:00etan hasiko den jaia**

Antxintxikakoak goizetik hasiko dira lanean, krosarekin lehenengo (11:00), eta gaztetxoen lasterketekin eguerdi partean.

Dortokaren aldeko jaia, berriz, 18:00etan hasiko dute, frontoian. Hala, Porrotxek eta Ane Piratak lagunduta Bergarako hainbat taldek jaialdian parte hartuko dute: "Bergarako Buruhandi eta Kilikien Konpartsakoak, Musika Eskolako Gazte Bandakoak, Zubillagako suhiltzaileak, Dortokako partaideak, Jarduneko lagunak eta Antxintxikakoak egongo gara jaialdian". Sarrera 5 euro izango da, eta, horrez gainera, ekimena diruz babestu gura duenak horretarako aukera izango du (20955206031061226279 kontu korrontean). Sarrerak Sugoin, Lazkano oinetako dendan, Eruan tabernan eta Deporren egongo dira, eta saltzen ez diren sarrerak egunean bertan leihatilan erosi ahal izango dira.

BORROKA LIBREA

# Maider Unda: "Hurrengo Jokoetan egon gura dut"

**X.U.** | ARRASATE

Joan den uztailean ama izan ostean, Maider Unda hasi da hurrengo Joko Olinpiarretan egon ahal izateko prestatzen. Asmoa da goi mailako lehiaketetara itzultzeko gogor entrenatzen hastea, eta asteon Faduran egon da, hobekuntza teknikorako kirol zentroan: "Uste nuen ama izatearekin batera erabat ahaztuko zitzaidala elite mailako kirola, baina ez da horrela izan, lehiatzen jarraitu nahi dut eta hasteko momentua da, Las Vegasko Munduko Txapelketan egon ahal izateko (2015eko irailean izango da, eta Jokoetarako sailkatzeko baliagarria). "Orain ez du zentzurik txapelketetan hasteak, goizegi da. Gurago dut entrenatzen hasi, eta sasoian jarri.

SASKIBALOIA

# Valladolideko ezustekoaren ostean, Mikeldiren kontra lortu gura dute bigarrena

## Mondragon Unibertsitateak Iturripen jokatuko du EBA ligako hurrengo jardunaldia: bihar, 18:00etan

**MIREIA BIKUÑA** | ARRASATE

Ondo egindako lanak emaitzak ematen dituela erakutsi zuen Mondragon Unibertsitateak aurreko zapatuan Valladoliden kontra. Iaz igoera lortu zuen taldearen kontra irabazi ostean (47-53), liga bide onetik hasi duela berretsi gura dute arrasatearrek etxean. Mikeldi hartuko dute Iturripen (zapatua, 18:00). Beldur barik baina errespetuz hartuko dituzte bilbotarrak. "Maila honetan edozein talderen kontra irabazi edo galdu dezakegu. Konfiantza barik baina errespetuz irtengo gara kantxara. Horretz hitz egin dugu jokalariekin asteon", esan du Josu Larreategik.

Talde indartsua da Mikeldi. Bi jokalari garai ditu eta Araberritik fitxatutako beste batek sendotasuna eman die.

### Etxekoak irabazi behar

Valladoliden kontra lortutako puntuen balioa bikoiztu dadin, ezinbestekoa da etxean irabaztea. "Etxeko partiduak bai ala bai irabazi behar ditugu. Gure zaleen aurrean ondo jokatzen dugu, eta, etxekoak irabazita, kanpoan eman behar ditugu ezustekoak. Mikeldiren kontrakoa etxeko lehen norgehiagoka izango da, eta berezia, era berean", dio MUren entrenatzaileak.

Zaleak ere animatu gura dituzte Iturripera joan daitezen. "Punta-puntako saskibaloia ikusi gura duenak badaki non gauden hamabostean behin", dio, barrez.



EBAn lehiatzen diharduten jokalariak eta arduradunak. | JAGOBA DOMINGO

### Natra-Oñati, Portugaleten

Euskadiko Bigarren Mailan diharduen Natra-Oñatik Portugaleten jokatuko du Jarrillerasen kontra. Gorka Judezek zuzentzen duen taldeak garbi dauka helburua: partidua irabazi. Baina oñatiarrek badakite ez dela erraza izango. "Orain arteko hiru lehiak galdu dituzte, baina talde beteranoa da, eta oso lehiakorrak etxean jokatzen dutenean. Kanpoko jaurtiketak zaindu beharko ditugu", dio Gorka Judezek.

### Gipuzkoako 2. maila

Gipuzkoako bigarren mailan diharduten Soraluze BKEk eta MUk etxetik kanpo jokatuko dute aste bukaeran. Arrasatearrek lehen lekuan jarraitzeko irabazi egin beharko dute Oiarsoren kantxan. Bergararrek, aldiz, sailkapenean gora egiteko, Erroibide menderatu beharko dute.

Emakumezkoen Eskoriatzako taldeak Bera Beraren kontra jokatuko du. Donostiarrak bigarren lekuan daude eta eskoriatzarrak, berriz, seigarren.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**OHOREZKO ERREGIONALA**

**Aretxabaleta-Tolosa**
Domeka. 16:30. Ibarra.

**Aloña Mendi-Antzuola**
Domeka. 16:30. Azkoagain.

**Bergara-Real Union**
Zapatua. 16:30. Agorrosin.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**

**Mondragon-Lazkao**
Domeka. 16:30. Mojategi.

**Mutriku-Aretxabaleta B**
Zapatua. 16:30. San Miguel.

**EMAKUMEZKOEN ERREGIONALA**

**Bergara-Mondra**
Domeka. 11:30. Ipintza.

**Mutriku-Arizmendi**
Domeka. 15:30. San Miguel.

**GIZONEZKO JUBENILEN OHOREZKOA**

**Eibar-Aloña Mendi**
Zapatua. 17:30. Unbe.

**Beasain-Mondragon**
Zapatua. 15:30. Igartza.

**Aretxabaleta-Urola**
Domeka. 11:30. Ibarra.

**Ordizia-Bergara**
Domeka. 16:00. Altamira

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKAL LIGA**

**Elorrioko-Eskoriatza**
Zapatua. 18:00. Kiroldegia.

**JUBENIL OHOREZKO MAILA**

**Goierri-Eskoriatza**
Zapatua. 16:00. Aldiri.

**GIPUZKOAKO LIGA**

**Aretxabaleta-Beti Ona**
Zapatua. 17:00. Ibarra.

**Power Rangers-Mondrate**
Egubakoitza. 20:30. Oiartzun.

**ESKUBALOIA**

**LEHEN NAZIONAL MAILA**

**Askartza-Ford Mugarri**
Zapatua. 19:30. Leioa.

**SENIOR GIZONEZKOAK**

**Bidaso Irun-Bergara**
Domeka. 12:00. Artaleku.

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**

**Aiala-Aloña Mendi**
Zapatua. 16:00. Aritzbatalde.

**SASKIBALOIA**

**EBA MAILA**

**MU-Mikeldi**
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**GIZONEZKOAK 2.MAILA**

**Don Jabugo-Soraluce Bergara**
Egubakoitza. 19:30. Azken Portu.

**Oiarso-MU**
Domeka. 11:45. Galtzaraborda.



GOIENA

**ERRUGBIA** Arrasateko Kanpanzar errugbi taldeak Gernika liderraren bisita jasoko du domekan, Mojategin, 12:00etan. Arrasatearrek hiru partidu irabazi dituzte liga hasi denetik.




SAIO BERRIA
Gipuzkoa Pedalka
Gipuzkoan, bizikletaz eta bizikletagatik
Julen Iriondok aurkeztuta
▶ Eguaztena, 22:00
BABESLEA:
Gipuzkoa
BERRIA
GOIENA TELEBISTA
Bertakoa eta sasoikoa
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
goiena

# KULTURA

# Azken hegaldia

## Bergarako Musika Eskolakoek Bilboko Euskaldunan borobilduko dute bihar 'Peter Pan' musikalaren ibilbidea



Bergarako frontoian 2012ko abenduaren 29an egin zuten *Peter Pan* musikalaren lehenengo emanaldia bukatuta, parte-hartzaile guztiak pozarren, ikusleak agurtzen. | IMANOL SORIANO

A. ARANBURUZABALA | BERGARA

Herriko frontoian estreinatu zuten Bergarako Musika Eskolekoek *Peter Pan* musikala. 2012ko abenduan izan zen hori; harrezkero, hegaz joan dira Elgetara, Elorriora, Bilbora, Donostiara, Gasteizera eta Iruñera. Zazpi aretotan egin dute musikal osoa; guztira, bada, 10.000 ikusleren aurrean.

Ezin da, baina, albo batera utzi Bilboko Itsas Museoan egin zuten erakustaldi berezia. Musikalaren laburpen txiki bat eraman zuten hara eta hiru orduan hamabi aldiz erakutsi zuten, 2.500 ikusleren gozamenerako.

**Bihar, bat beharrean bi saio**

Euskalduna jauregiaren aldamenean dago Itsas Museoa eta han zeudela amets egin zuten polita izango zela Euskaldunan ere erakustea. Urtebete pasata, ametsa egia bihurtu dute eta bihar, zapatua, Euskaldunan izango da Bergarako *Peter Pan*-en lantaldea.

Saio bat egiteko proposamena jaso zuten hasieran, baina, txartel salmenta ondo zihoala ikusita, bi saio egitea eskatu zieten geroago. 16:00etan eta 19:30ean dira emanaldiak. 10 eta 25 euro bitartean daude txartelak eskuragarri; leihatilan eta *on line* ere bai honako atari hauetan: *Euskalduna.net* eta *kutxabank.es*.



Dekoratu atzetik begiratuta, Peter Pan ikusleen aurrean. | MIKEL LEGARESTA



Kako-Oker kapitaina, piratak alboan dituela. | IMANOL SORIANO

**VALEN MOÑUX**
ZUZENDARI ARTISTIKOA

### "Oso pozik eta harro gaude egindako lanarekin"



GOIENA

Sarritan abestu dute *Adiorik ez* kantua musikalaren bukaeran; biharkoa, baina, benetako agurra izango da.

**Zer sentitzen duzue?**

Jende asko gaude taldean eta ezin dut adierazi denon sentimendua. Hala ere, iruditzen zait oso pozik eta harro gaudela denok.

**Zazpi aretotan erakutsi duzue musikala. Zein duzue bereziki bihotzean gordeta?**

Denekin daukagu oroitzapen polita, baina Buesa Arenakoa azpimarratuko nuke, ez da erraza izaten gure ikuskizunak Gasteizen aurkeztea eta 2.000 ikusle izan genituen. Iruñeko Baluartekoak ere oso harrera ona izan zuen. Artistikoki, saio onena izan dela uste dut.

**Aurrekoen eskarmentuaz**

Bi musika-entsegu eta antzeztutako beste bi besterik ez dute egin oraingoan. Berrikuntza musika zuzendariaren aldaketa izan da: Jose Miguel Laskurainek jardungo du lan horretan bihar.

Eguaztenean hasi ziren dekoratuak muntatzen eta gaur amaituko dute. "08:30ean abiatuko gara bihar, eta goizean, soinu-probak eta entseguak egingo dituzte. Bazkalduta, jantzi eta makillatu egingo gara gero. 16:00etan dugu lehen saioa eta ordu erdiko atsedena hartuta egingo dugu bigarrena", diote arduradunek.

**Laguntzaile asko bidean**

Eskolako irakasle eta gurasoez gainera, laguntzaile asko izan dituzte bidelagun: "Aktoreak, musikariak, margolariak, koreografoa, tramoiariak, Udala, herriko hainbat enpresa... guztiei eskerrik asko!".

**Musikalei, adiorik ez**

Bergarako Musika Eskola urteak darama horrelako ikuskizunetan murgilduta; egitasmo handiak izan dira batzuk eta txikiagoak, berriz, beste batzuk. Eskolaren nortasunean barneratutako egitasmoak direla diote; horregatik, bada, pentsatzekoa da *Peter Pan*-ek izango duela ondorengorik.

# 'Euskera, ospela eta egutera' dokumentala oholtzara eramango da

Euskal kulturgintzak eta euskarak izan duen errepresioa batzen da

**IMANOL BELOKI** | OÑATI

Euskal Memoriak eta Gipuzkoako Diputazioak ekoiztutako *Euskera, ospela eta egutera* dokumentala oholtza gainera eroango dute Oñatiko Santa Ana antzokian. Dokumental horretan, historian zehar euskarari egin zaion jazarpena eta euskal kulturgintzak jaso duen errepresioa batzen da. Bi emanaldi izango dira, urriaren 30ean: lehena 19:00etan eta bigarrena, 22:00etan.

Antzerkia, dantza, zuzeneko musika eta testigantzekin osatutako bideoak tartekatuz ikuskizun multimedia bat sortu dute, eta sarrerak salgai daude Txokolateixan, 5 eurotan. Bigarren emanaldirako sarrerak erosi dituenak eta 19:00etako saiora joan nahi duenak sarrerak trukatzeko aukera izango du Txokolateixan.



Dantzariak eta musikariak, besteak beste, *Euskera, añubea eta eguzkibegixa* ikuskizuna entseatzen. | TXARLO MARKEZ

Ikuskizuna euskararen jazarpenaren inguruan izango da, aurretik egindako *Euskera, ospela eta egutera* dokumentalean oinarritutakoa. Hala, *Euskara, añubea eta eguzkibegixa* izenarekin deituko da ikuskizuna, Oñatiko euskaran esaten den moduan. Hori horrela, Euskal Herri mailako estreinaldia izango da.

Bernat Alberdi ikuskizuneko zuzendariaren esanetan: "Dokumental hau oholtza gainera ekarri nahi izan dugu eta horretarako ikuskizun multimedia bat sortu dugu. Hau da, proiekzioak, dantzariak, aktoreak, herri kirolak... guztir,a ordubeteko iraupena duen ikuskizuna izango da". Ikuskizunean parte hartuko duen gehiengoa oñatiarra izango da eta 60 pertsona inguruk osatzen dute lantaldea. "Gauza oso positiboa da lantaldetik %90 edo %95 oñatiarrak izatea".

### Lantalde betea ikuskizunerako

Euskal kulturgintzan eta euskararen historian parte izan diren Xabier Amuritza, Kontxita Beitia –ikastolen sorreran egondako irakaslea–, Zigor Etxeburua –Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara zuzendaria– eta Garbiñe Petriati –Behatokiko zuzendaria– izango dira, besteak beste, taula gainean. Dantza garaikidea egiten duen Ziomara Ormaetxe eta Oñatiko Oñatz dantza taldea ere izango dira. Joseba Irazoki eta Ander Etxaniz musikariak, Oñatiko Ganbara abesbatzakoak eta Ttakun txalaparta taldekoak ere izango dira; Eneritz Dueso idazle eta abeslari irundarra eta Karmen Biain, Oñatiko aktorea. Horiez gain, Oñatiarren testigantzak ere entzungo dira bideo formatuan.

### Oñatiarrak testigu

Duela bi urte ekin zion Euskal Memoria Fundazioak hizkuntza zapalkuntzaren gaia lantzeari, eta horrela hasi ziren Oñatiko kideak ere.

Oñatiko Euskal Memoria Taldeak testigantzak jaso ditu. Hala, besteak beste, Ana Mari Zumalde, Gurutz Jausoro, Jose Urtzelai eta Jokin Ezpeleta oñatiarren adierazpenak jaso dituzte. Eurei egindako elkarrizketak ikusi ahal izango dira eta haien ahotik entzun ahal izango dira euskararen kontrako jazarpenaren lekuko izan ziren istorioak; adibidez, eskolan ze zigor jasotzen zuten euskaraz berba egiteagatik...



RIP talde Arrasatearra kontzertuan. | REBELDEEMULE.ORG

# RIPeko Mahomaren eta Porturen omenaldi kontzertua Arrasaten

**I.B** | ARRASATE

RIP taldeko Portu eta Karlos Mahomaren omenezko kontzertua egiten dute bi urtetik behin Arrasateko gaztetxean. Aurten hiru talde igoko dira taula gainera: La Banda del Abuelo, Ladislao eta Screamers and Sinners. Zapatuan, urriak 25, 22:00etan.

Javi Sayes izan zen RIP taldea ibarretik kanpo ezagutzera eman zuen pertsona eta musika taldeko kideak omentzeko ekimena sustatu zuena. Donostia zein Andoainen egin zituzten omenaldiak, baina Arrasatera ekartzea pentsatu zuen. Hala, RIPeko Yulekin eta Txerrarekin eta beste hainbat lagunekin batera, Arrasateko gaztetxean egiten duten hirugarren edizioa izango da aurtengoa.

### Estilo askotariko taldeak

La Banda del Abuelo taldeak hard-rocka, punka eta beste estilo gehiago batzen ditu, haiek spaghetti-rock deitzen diotena. Baina oraingoan, hirukote moduan joko dute, didjeridu -jolea osasun arazoagatik ez da-eta etorriko. Ladislao, berriz, Lazkaoko eta Eskoriatzako musikari beteranoek osatutako talde berria da, hardcore-punkaren esentziaz betea. Azkenik, Screamers and Sinners Arrasateko eta Aretxabaletako lagunek sortutako psychobilly taldea da.

# Deabru Beltzak taldeak 'Opera abeslaria' haur-antzerkia eskainiko du

'Tabako lehortegiko sekretuak' ipuinean oinarritutako istorioa da

**I.B** | ARRASATE

Zapatuan, hilak 25, Deabru Beltzak taldeak *Opera abeslaria* haur-antzerkia eskainiko du Arrasateko Amaia antzokian, 17:00etan. Sarrerak 5 eurotan izango dira eta Kutxabank bidez erosi ahal izango dira. 50 minutu inguru dituen euskarazko emanaldiak musika eta antzerkia erabiliz August Strindberg autorearen *Tabako lehortegiko sekretuak* ipuinean oinarritutako istorioa kontatu eta kantatuko du.

Hannah izeneko opera abeslari baten arrakasta eta hondamendia kontatzen du Deabru Beltzak taldearen antzezlanak. Deabru Beltzak taldeko Garbitxuren zuzendaritzapean; Idoia Somoza Vegas sopranoak, Katrin Schlegel aktoreak eta Marta Galleguillos piano-jotzaileak modu entretenigarri eta era ludikoan, harrokeriaren inguruko hausnarketa proposatzen dute. Hala, publikoa operarengana hurbiltzea da obraren funtsa.



Deabru Beltzak taldearen *Opera abeslaria* antzezlana. | KEDIN ARGAZKILARIAXXX

### Ibilbide luzea

Euskal Herriko hainbat antzerki taldetatik datozen aktoreek sortu zuten 1996an Deabru Beltzak kale antzerkia. Orduz gero, hamar antzezlan aurkeztu dituzte, 3.000 ekitaldi egin dituzte, 50 hiritako jaien zuzendaritza artistikoa egin dute, munduko 35 talderekin egon dira elkarlanean eta hainbat erakunderekin kolaboratzen dute: Eusko Jaurlaritza; Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa; Bilboko Udaleko Kultura Saila; Gouvernement du Quebec; Le Moulin Fondu; eta Le Forneau, besteak beste.

# Oñatiko film laburren V. rallya azaroaren 8an izango da

Euskara eta zinema ikus–entzunezkoen bitartez bultzatuko dute eta izena ematen duten lehen hogei taldeek bakarrik hartu ahal izango dute parte



Iazko lehiaketako *Txantxiwood* taldeko partaideak lehen sariarekin. | OLR

**IMANOL BELOKI** | OÑATI

Azaroaren 8an plato erraldoi bihurtuko da Oñati. Izan ere, V.OLR (Oñatiko Laburmetrai Rallya) ospatuko da Oñatiko gaztelekuan. Hala, hainbat lagun ikusi ahal izango dira Oñatiko kaleetan zehar grabaketa lanetan. Hori guztiori, euskara eta zinema ikus-entzunezkoen bitartez bultzatzeko helburuarekin.

Lehenik eta behin, lehiaketaren aurkezpena egingo da; arauak eta gosaria emango zaie parte-hartzaileei Oñatiko gaztelekuan, 08:00etan. Generoa, gaia eta erabili beharko duten objektua erabiliz landu beharko dute ikus-entzunezkoa eta antolatzaileek emandako hamar tokitatik bi lekuren irudia agertzea ezinbestekoa izango da. Horretarako, 19:00ak arte izango dute lana amaitu eta entregatzeko.

Gero, 20:00ak arte luntxa izango da gaztelekuan, 21:00etan parte-hartzaileen *photocall*-a eta 21:30ean lan guztien proiekzioak Santa Ana antzokian. Egunari amaiera emateko, berriz, sari banaketa izango da, eta, talde irabazleak zeintzuk diren jakin ondoren, parte-hartzaile guztien argazki erraldoia egingo da.

Lanen iraupena, tituluak kontuan hartu gabe, minutu batekoa izango da eta gehienez hiru minutukoa, tituluak barne. Horrez gain, parte-hartzaileek beharrezkoa duten materiala eroan beharko dute eta lanak *.avi* edo *.mov* formatuetan entregatu beharko dituzte antolakuntzak emandako USB batean. Taldeek hamaika ordu izango dituzte ikus-entzunezkoak egiteko eta tentsioa izango da lana entregatzeko azken momentuan. Beraz, ideia on bat pentsatzea, azkarra izatea, denbora ondo neurtzea eta ikus-entzunezko teknikak ondo erabiltzea izango da gakoa.

Aurten, gainera, berrikuntzekin datoz OLRko antolatzaileak. Alde batetik, gosaria izango da aurkezpenaren ondoren Oñatiko gaztelekuan, eta beste aldetik, edizio honetan sari bereziak egongo dira.

**Sari bereziak aurten**

Irabazleak 300 euroko saria jasoko du, bigarren geratzen denak 150 eurokoa eta hirugarren taldeak, berriz, 100 eurokoa. Horrez gain, publikoaren saria irabazten duen lanak 100 euroko saria jasoko du eta gizonezko eta emakumezko onenen sariak ere egongo dira, aurten berezitasuna dena.

**Izen-emate epea zabalik**

Iaz izan zuen arrakasta ikusita, izena ematen duten lehen hogei taldeek bakarrik hartu ahal izango dute parte lehiaketan. Izan ere, iaz hamazazpi taldek hartu zuten parte lehiaketan, eta muga jarri dute aurten. Ruben Idigoras OLR ko antolatzaileetako baten esanetan, "parte-hartzaile kopuru maximoa taldeko hamar kidekoa izango da eta astelehenean izen-ematea zabaldu zenetik hamar taldek eman dute izena". Izena emateko azken eguna azaroaren 8a da. Lehiaketan parte hartu nahi duenak datuak bete beharko ditu *http://olrallya.wix.com/olrallya* webgunean dagoen dokumentuan, eta gero *olr.antolakuntza@gmail.com* helbidera bidali beharko du formularioa. Izena ematen duen taldeak lehiaketa barruan dagoen baieztapena edo ezeztapena itxaron beharko du lehiaketa barruan edo kanpoan dagoen jakiteko, eta mezu bat jasoko du erantzunaz.



Iazko Oñatiko Laburmetrai Rallyko lehiaketan parte hartu zuten partaide guztien talde argazki erraldoia Santa Ana antzokian. | OLR

# 'Gosariak': Arrasateko hainbat artistaren elkarlanean oinarrituta

Gosek, Iñigo Arregik, Juan Luis Goikoleak eta Joseba Sarrionandiak egin dute

**A. ARANBURUZABALA** | ARRASATE

Askotariko arte diziplinak batzen dituen lana da *Gosariak*. "Magma sinbolikoa bezain lurtarra da. Entzun, irakurri eta ikus daitekeena. Musika, literatura eta diseinuaren artea batzen dituena", horrela definitzen du Gose taldeak kaleratzear duen azkeneko lana.

Arrasateko musika taldeak bultzatutako egitasmoa bada ere, ez da taldearen aurreko lanen jarraipen hutsa; hau da, ez da Gose taldearen seigarren diskoa. Horregatik, besteak beste, lanari *Gosariak* izena jartzeko arrazoia.



Gosariak' lanak askotariko arte diziplinak batu ditu. | GOSE

**Herriko artistekin elkarlanean**

Joseba Sarrionandia idazlearen hitzak musikatu dituzte oraingoan, eta herriko bi artistarekin egindako elkarlanean dago *Gosariak* oinarrituta. Juan Luis Goikolea margolariaren eta Iñigo Arregi eskultorearen ilustrazio eta diseinuek irudikatu dituzte Sarrionandiak taldearentzako idatzitako eta ondoren Gosek musikatutako kantuak.

Zentzumen asko lantzen dituen lana Durangoko azokan izango da erosgai, eta asteburuan, *Gara* egunkariarekin eskuratzeko aukera ere izango da.

# Pettiren kontzertua Aretxabaletan, Arkupen

Folk eta rock doinuak eskainiko ditu ibilbide luzea daukan musikari beratarrak

**I.B** | ARETXABALETA

Juan Luis Perez Mitxelena (Petti) musikari nafarrak folk eta rock doinuak eskainiko ditu Aretxabaletan, Arkupe aretoan. Hilaren 30ean, eguena, 19:00etan izango da agertoki gainean eta sarrerak 4 euroren truke daude salgai.

Amerikar sustraiak dituen rocka egiten du Pettik. Bost bakarkako disko kaleratu ditu, ia denak Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin. Pettiren ezaugarri nagusia barru-barrutik ateratzen duen ahots urratu eta sakona da, eta hori, gitarrarekin ateratzen duen bluesaren arimaz kutsatutakoa eta poesia musikatua egiten duela esan daiteke.

Debagoienean lagun asko dituen eta ezaguna den abeslari eta gitarra-jolea, bakarlari moduan asko ibili arren, hainbat taldetan egon den musikaria da. Hala, Anari, Txuma Murugarren, Rafa Rueda, Barrence Whitfield, Xabi Señor No eta halako musikariekin ibilia da.

**Zuzeneko inprobisazioak**

Aretxabaletan harrera beroa izango du, seguruenik. Debagoienean egin dituen emanaldiak ikusita, etxean moduan sentitzen da taula gainean eta publikoa ere gustura egoten da. Bakarlari moduan asko ibili den musikaria da Petti, baina emanaldi askotan musikariak diren lagun oro taula gainera berarekin batera igotzera animatzen dira. Ea oraingoan ere sorpresarik dagoen...

**Jon Montiel** | Ikaslea eta GlowCoop enpresako kidea

# "Pentsatzen dugu Indiara joan behar dugula haiei laguntzera... baina haiek laguntzen digute guri"




**Jon Montiel, Bergarako Espoloian.**

ANDONI MUXIKA

**ANDONI MUXIKA** | BERGARA

21 urte bakarrik dituen arren, Jon Montiel bergararra dagoeneko aditu bihurtu da enpresagintzan. Izan ere, Oñatin Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza (Mondragon Unibertsitatea) gradua ikasten dabilen gazte horrek GlowCoop enpresa sortu zuen eskola-kide batzuekin. Gainera, horri esker, hainbat proiektu sortu ditu; adibidez, leku turistikoak promozionatzen dituen *Oh my trip*. Munduan ibilitakoa ere bada, unibertsitatearen eskutik hainbat lekutara joateko aukera izan du-eta; Finlandiara eta Txinara, besteak beste.

**GlowCoop enpresa sortu duzu taldekideekin; zertan datza?**

Askotariko proiektuak garatzen dituen enpresa da; esate baterako, *Oh my trip* eta *Glow desing*. Lehenengoan, leku turistikoak promozionatzen ditugu blogarien bidez, helburua izanda turismoa promozionatzea sare sozialen potentziala erabilita. Eta bigarren proiektuan, berriz, *Glow desing*-en, negozio batean bezeroen jarrera eta joera analizatzen dugu, zerbitzu harremana hobetzeko helburuarekin. Horrenbestez, hori da GlowCoop, kooperatiba bat, askotariko proiektuak dituena eta sei printzipio dituen Desing Thinking metodologian oinarritutakoa: bezeroarekin harreman zuzena edukitzea, irudimena, esperimentazioa, elkarlanean aritzea, ikuspuntu sistematikoa eta ikasketa iteratiboa. Azken baten, asmoa da pertsona bakoitzaren pasio eta interesak negozio eredu bihurtzea.

**Zein da enpresa horren helburua?**

Helburua enpresa munduan ikastea da, proiektuak egitea, bakoitza zertan den trebea ikustea... azken finean, horrekin esperimentatzea enpresa munduan murgiltzeko. Glow esperimentatzeko medio bat da, askotariko iniziatiba eta proiektuak dituena. Edozein enpresa bezala, gure zergak ordaintzen ditugu, bezeroak aurkitzen ditugu... Horrela, denon artean ikasita.

**Urtero hainbat bidaia egiten duzue atzerrira: Finlandiara, Thailandiara... Zein da bidaia horien helburua?**

Bada, bidaien helburua da beste ekosistema batzuetan ikastea zelan funtzionatzen duen enpresa munduak. Eta gure ikaste prozesu horretan, errealitate desberdinak ikastea. Adibidez, Finlandian eta Ameriketako Estatu Batuetan nahiko antzekoa izan ahal da, baina Indian eta Txinan beste errealitate erradikal bat da.

**Bidaia horietatik esperientzia polita aterako zenuen. Zerk eman dizu atentzioa?**

Nahiz eta bizitza estruktura desberdina eduki, edota beste erlijio batekoa izan, gauza askotan pertsonak berdinak garela. Pentsatzen dugu Indiara joan behar dugula haiei laguntzera... baina haiek laguntzen digute guri, pertsona bezala buru eta begiak zabaltzen.

**LEINN graduan *finlandiar metodologia* erabiltzen duzue. Zein da zure iritzia horri buruz?**

Metodologia hau Finlandian sortu zen 1993an. Eginez ikasi metodologian datza *(learning by doing)*, norberari ematea libertatea esperimentatzeko. Nire ustez, sistema hori aplika daiteke gaur egungo hezkuntzan. Izan ere, metodologia honekin norberak sortzen du bere bidea, hezkuntza estruktura libreagoa edukita; adibidez, nik ez dut azterketarik. Noski, pertsonaren arabera desberdina da. Batzuek sistema itxi eta finkatu bat behar dute; hau da, sistema tradizionala. Baina badago jendea, ni bezala, asko esplotatzen duena ikaste metodologia hau.

**Nola definituko zenuke ikasten ari zaren gradua (LEINN)?**

Esperimentazio konstantean gauden gradua dela esango nuke, nor bere burua ezagutzen. Eta baita taldekideak ezagutzen; izan ere, dena taldean egiten dugu, eta asko harritzen naiz jendeak zer egiten duen lanean, potentzial izugarria dago. Hala ere, tristea da oraindik gizartean ez dagoela hori ateratzeko aukerarik.

**Gradua bukatu ondoren ze asmo dituzu?**

Egia esanda, ez dakit oso ondo. GlowCoop-en ez dut uste denok jarraituko dugunik. Nik neuk atzerrira joateko gogoa dut.

### PERTSONALA

**Herrialde gustukoena:** Bidaiatzeko; India; bizi izateko, Euskal Herria.

**Zaletasun bat:** Bidaiatzea.

**Janari gustukoena:** Pizza.

**Abeslari gustukoena:** Amy Winehouse.

**Liburu bat:** George Orwell-ek idatzitako bat, *1984*.

**Amets bat:** Asko bidaiatzea.

**Lan egingo zenukeen toki bat:** Gustura egon ahal naizen edozein toki.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai Andra Marin. Erabat berritua, bizitzera sartzeko moduan. Bi logela, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua. Berokuntza indibiduala, gasarekin. 605 74 34 39 (M. Carmen) edo 645 00 90 03 (Ramiro)

### 103. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Etxea ematen da errentan San Antonion. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbakira: 943 76 21 39

**Elgeta.** Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, jangela-egongela, sukalde hornitua eta bi bainugela. Berokuntza eta igogailua. Egoera oso onean, eraikin nahiko berria. 606 08 39 92 edo 679 56 84 78

**Oñati.** Etxebizitza berria ematen da errentan Kurtzebide kalean. Hiru logela eta bi bainugela. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbakira: 652 76 50 90

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan. Lau logela, egongela -jangela, bi komun eta sukaldea. Informazio gehiagorako deitu zenbakira: 650 56 62 06

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, bi logelakoa. Partikularren artean. 662 43 08 54

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, hiru logelakoa. Hilean 500 euro ordain ditzaket gehienez. 662 68 56 03

**Baserri bila Debagoienean.** Bikote arrasatearra Debagoienean edo inguruan errentan hartzeko baserri bila dabil. 680 34 29 60 edo 699 28 99 06

**Bergara.** Bi logelako etxebizitza errentan hartu nahi dut. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbakira: 602 03 33 56

**Bergara.** Bi edo hiru logelako etxebizitza errentan hartuko genukeen bi bergarar gazte gara. Ezinbestekoa errenta kontratua. Deitu 608 78 77 71 edo 606 83 82 15 zenbakietara.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke, konponketa batzuk behar dituena. Aitor. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbakira: 608 97 38 67

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dut edo, bestela, logela bat hartuko nuke errentan prezio onean. Neska arduratsua naiz. Maider. 634 43 31 79 edo 654 92 57 92

**Arrasate.** Erdigunetik gertu etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dut. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbakira: 678 82 69 77

## 2. GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Ibargarai kalean garaje itxia ematen da errentan, merke. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbakira: 679 74 00 61

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Antzuola.** Pertsona euskalduna behar da egun erdiz, goizez, urtebeteko haur bat zaintzeko Antzuolan. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbakira: 609 81 89 52

**Arrasate.** Mutil euskalduna behar da zaintza lanetarako. Bazkariak prestatu, paseatzera irten eta abar. Astelehenetik ostiralera, goizeko ordutegian. Informazio gehiagorako deitu zenbakira: 649 70 23 90

**Arrasate.** Gizonezko euskalduna behar da astelehenetik ostiralera pertsona nagusi bati laguntzeko, 16:00etatik 9:00etara bitartean. 619 18 12 81 edo 629 42 19 79

**Bergara.** Emakume euskalduna behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbakira: 669 83 06 97

**Emakume euskalduna behar da.** Emakume euskalduna behar da Elgetako baserri batean etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko. Informazio gehiagorako deitu zenbakira: 678 32 44 36

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta edo Arrasate.** Haur hezkuntzako zikloa duen neska gazte euskalduna eta haurrekin esperientzia. Arratsaldetan haurrak zaintzeko prest . Informazio gehiagorako deitu telefono zenbaki honetara: 669 10 77 48

**Arrasate eta inguruak.** Neska euskaldun gaztea umeak edo nagusiak zaintzeko gertu, arratsaldetan eta asteburuetan. Autoa daukat. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbaki honetara: 639 44 86 30

**Arrasate.** Astean zehar ume eta nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbaki honetara: 682 31 97 37

**Arrasate.** Mutila goizetan nagusiei laguntzeko prest. Informazio gehiagorako deitu telefono honetara: 673 71 80 93

**Bergara.** Emakumea lanerako prest. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbaki honetara: 658 31 06 20

**Bergara.** Adin ertaineko emakumea umeak eta nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. 610 34 97 88

**Bergara.** Garbiketak egiten eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 688 65 10 22

**Debagoiena.** Emakumea prest goizez etxeak garbitu edo pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko. (Clara). Informazio gehiagorako deitu telefono zenbaki honetara: 633 65 19 01

**Debagoiena.** Bertako neska, esperientziaduna, nagusiak etxean zaintzeko gertu. Baita gauez ere. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Dendari, sukalde laguntzaile edo zaintza lanetan arituko nintzateke. Eskarmentua dut nagusiak zaintzen. Erreferentzia onak eta lege paperak ditut. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbaki honetara: 631 83 58 20

**Debagoiena.** Emakume arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaindu, etxeko lanak egin, tabernatan eta abar. Etxean bizi izaten, egun osoz edo orduka ere bai. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbaki honetara: 615 06 28 04

**Debagoiena.** Emakume espainiarra, eskarmentuduna, nagusiak zaintzeko gertu. Informazio gehiagorako deitu telefono honetara: 633 84 65 30

**Debagoiena.** Esperientziadun pertsona asteburuetan nagusiak zaintzeko gertu. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbaki honetara: 695 96 98 74

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

**10. RELAX**

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Simon Arrieta 68 m², 2 logela, 80 m2ko terrazarekin. 132.600 €.
- Simon Arrieta 69 m², 3 logela. 20 m2ko terrazarekin. 107.100 €.
- Ibargarai 73 m², 3 logela. 235.000 €.
- Zubieta 110 m², 3 logela. Hortua, lokala eta trastelekuarekin. 95.000 €.
- Fraizkozuri 162 m², 4 logela. Trastelekuarekin.
- San Pedro 73 m², 3 logela. 13 m2ko terrazarekin. 115.000 €.
- San Antonio 86 m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000 €.
- Angiozar 170 m², duplexa. Garajea, txokoa eta 180 m2ko lur sailarekin.
- Artekale 47 m², 2 logela. Berriztua. Trastelekuarekin. 100.000 €.
- Matxiategi 88 m², 4 logela. Igogailua. Ganbara. Prezio jeitsiera. 190.000 €.
- Barrenkale 113 m², 3 logela, duplex berria. Igogailuarekin.
- Masterreka 72 m², 2 logela, duplexa. Trastelekuarekin. Berria estrenatzeko. 160.000 €.
- San Lorenzo 65 m², 2 logela. Garajea eta trastelekua aukeran. Berria. 200.850 €.
- Zubiaurre 70 m², 2 logela. Erabat berriztua 180.000 €.
- Simon Arrieta 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000 €.
- Ibargarai 57 m², 2 logela, oso ondo. Garajearekin. 215.000 €.
- Bidekurutzeta 71 m², 2 logela, erabat berriztua. Igogailua eta terraza haundiarekin. 204.344 €.
- Angiozar 60 m², 2 logela, erabat berriztua. Trastelekuarekin. 92.000 €.
- Zubiaurre 104 m², 2 logela. Berria. Igogailua. Trastelekua, Terrazarekin.
- Martoko 60 m², 2 logela, berogailua eta igogailua. 60.000 €.
- Aranerreka 79 m², 3 logela, berogailua, trastelekua. Garajea aukeran. 164.850 €.
- Iraburu 82 m², 3 logela, berogailua. 120.000 €.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 100.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN
- Ibargarai 90 m², 3 logela. Igogailua 235.000 €.
- Ibarra 129 m², 4 logela, berogailua. 150.000 €.
- Martoko 140 m², 4 logela. Berria.Oso ondo. 225.000 €.
- Ibargarai, 60 m², 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000 €.
- Matxiategi, 115 m², 3 logela, trastelekua eta balkoia. Berriztua. Oso ondo.

**ANTZUOLA:**
- Sagasti 140 m², duplexa. 250.000 €.
- Sagasti 86 m². 3 logela. 163 m2ko terrazarekin. AUKERA BIKAINA. 216.364 €.
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Aiherra 83 m². 3 logela. Igogailua eta balkoia.Oso ondo. Prezio ona.
- Kale Goi. Oso ondo. AUKERA BIKAINA. 125.000 €.

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85 m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.

**Debagoiena.** Esperientziadun sukaldaria lanerako gertu: menuak, pintxoak, ogitartekoak eta abar egiten aritutakoa. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbaki honetara: 666 83 21 95

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbaki honetara: 688 88 38 32

**Debagoiena.** Garbiketa lanetan, nagusiak edo umeak zaintzen edo zerbitzari lanetan lan egingo nuke. 20 urte ditut. Diana. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbaki honetara: 663 46 65 17

**Debagoiena.** Mutila etxeko lanak egin, nagusiak zaindu edota sukalde laguntzaile jarduteko gertu. Esperientzia daukat nagusien zaintzan eta lege paperak ditut. 658 74 94 63 edo 632 26 01 84

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Nagusiak zaindu edota baserri lanetarako. Baita eraikuntzan ere. Gidabaimena daukat eta baita elikagaien manipulazio baimena ere. Informazio gehiagorako deitu telefono honetara: 602 06 33 80

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu: eraikuntzan, gidari, sukalde laguntzaile edota nagusiak zaintzen. 636 60 48 51

**Debagoiena.** Mutila orduka zaintza lanak egiteko gertu. Eskarmentua eta erreferentziak dauzkat. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbaki honetara: 662 43 08 54

**Debagoiena.** Nagusi edo umeak zaintzen eta garbiketak egiten lan egingo nuke. 678 84 35 81

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu eta etxeko garbiketak egingo nituzke, orduka edo jardun osoz. Sukalde laguntzaile eta zerbitzari ere bai. Nahiago dut Arrasaten bada. Deitu telefono honetara: 658 31 06 20

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke eta garbitasun lanak egin ere bai. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbaki honetara: 632 08 57 69

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Ez daukat gidabaimenik. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbaki honetara: 677 83 37 23

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbaki honetara: 678 84 45 28

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko, orduka garbiketak egiteko, zein nagusiak lagundu edo paseoan ateratzeko gertu. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbaki honetara: 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska garbiketak egiteko, nagusiak zaintzeko, sukalde laguntzaile, zerbitzari eta abarretarako gertu. Informazio gehiagorako deitu telefono honetara: 663 40 92 67

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak eta umeak zaintzeko edo garbiketak egiteko. Orduka, gauez, etxean bertan bizi izanda edo bestela. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbaki honetara: 674 55 02 98

**Debagoiena.** Neska lan bila sukaldean, zerbitzari, zaintza lanetan etxean bizi izaten, orduka edo egunez. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbaki honetara: 654 11 15 14

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Eskarmentua dut nagusiak zaintzen eta atari eta abarren garbiketan. 629 29 11 23

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: nagusiak zaindu, tabernan sukaldari, garbiketak eta abar. Autoa daukat. 636 11 23 40

**Debagoiena.** Neska orduka etxeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko gertu. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

**Debagoiena.** Neska prest lan egiteko. Geriatriako ikasketak ditut. Ospitalean gaua pasatu edo etxean bertan gaixoak zaintzen. Autoa daukat. 600 00 51 60

**Debagoiena.** Sukalde laguntzailea lan bila. Bost urteko eskarmentua. Nagusi eta umeak zaintzen edota denetariko garbiketak egiten ere lan egingo nuke. Gidabaimena eta autoa. 677 73 79 59

**Oñati.** Etxean bertan bizi izaten edo egunez lan egingo nuke. Etxe garbiketan eta umeak zaintzen ere bai. 685 79 80 81

**Umeak zaintzeko prest.** Umeak eskolara eraman eta zaintzeko prest. 605 71 09 07

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Fisikako partikularrak.** Fisikako ikasle ohia behar da larunbat goizetan Fisika graduko mekanika eta elektromagnetismoko partikularrak emateko. Iluntzetan deitu. 673 21 62 83 edo 607 33 96 85

### 502. EMAN

**Arrasate.** Esperientziadun psikopedagogo eta ingeles irakaslea eskola partikularrak emateko eskaintzen da, LMH eta DBHn. Banaka zein talde txikitan. Ingeles eskolak goizetan ere bai. 658 70 67 84

**Bergara.** Ingeniaritza eta Irakaskuntzako Masterra duen pertsona eskola partikularra emateko prest. LH edo BH-ko edozein irakasgai emateko prest, ingelesa barne (Advance titulua dut). Interesatuak deitu: 620 88 16 29

**Oñati.** Majisteritzako 3.mailako ikaslea naiz eta klase partikularrak ematen ditut. LHko edozein ikasgai (ingelesa barne). Interesatuek deitu telefono honetara: 672 25 91 89

## 6. MOTORRA

### 602. EROSI

**Autoa erosiko nuke.** Bigarren eskuko autoa erosiko nuke. Egoera onean eta gehienez 1.500 eurotan. 637 13 16 23 edo 632 61 83 43

**Furgoneta edo automobil familiarra.** Bigarren eskuko furgoneta txikia edo automobil familiarra erosiko nuke. 628 40 39 16

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Akuria.** Akuria, kaiola, liburua eta hainbat osagarri dauzkat saltzeko. Interesatuok, deitu zenbaki honetara: 671 84 15 63

### 703. EMAN

**Akuriak.** Akuriak (kuiak) dauzkat opari emateko. 605 73 68 70

**Katakumeak.** Bi katakume ematen dira opari. Uztailaren 22an jaiotakoak dira. Baserri edo txaleterako egokiak. Deitu 663 65 76 06 telefonora.

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Fagor sukaldea.** Fagor sukaldea saltzen dut: 7 modulu goikoak eta 9 modulu behekoak, granitozko bi enzimera eta bitrozeramika. 1.200 €. 666 24 17 65

### 802. EROSI

**Mendirako eskiak.** Mendiko eskiak erosiko nituzke. Baita botak ere. Saltzeko asmoa izanez gero, deitu hurrengo telefonora: 675 70 58 54

### 804. HARTU

**Bizikletak.** Botatzeko dagoen edo erabiltzen ez duzun bizikleta baduzu, nik jasoko nuke. Berdin da zein egoeratan dagoen. Iñaki. 699 06 23 95

**Eskola liburuak.** Arrasateko Institutuan, Batxilergo 1. mailako Gizarte adarrean erabiltzen diren bigarren eskuko liburuak hartuko nituzke. Ikasgaiak: ekonomia, matematika, gaztelera eta ingelesa. 696 13 91 22

**Eskola liburuak.** Oñatiko Elkar Hezi eskolan, 2. DBHn erabiltzen diren bigarren eskuko liburuak hartuko nituzke. Ikasgaiak: natur zientziak eta matematika. 696 13 91 22

**Eskola liburuak.** DBH 4.mailako liburuak hartuko nituzke. 632 17 48 38

### 805. TRUKATU

**Hizkuntza truke.** Nik frantsesa erakutsiko nizuke, modu praktikoan, eta trukean ingelesa ikasi gura nuke. 630 05 91 98

**Hizkuntza trukea.** Alemana praktikatu nahiko nuke, C1 maila ikasten nago. Euskaraz, gazteleraz edo ingelesez hitz egin dezaket. 657 72 51 65

### 806. GALDU

**Telefonoa Arrasaten.** Telefonoa galdu nuen zapatuan, urriaren 18an, goizean Iturriotzetik Zaldibarrera bidean. Zuria da. Paper bat dauka atzean itsatsita. Aurkitu baduzu, eskertuko nuke deitzea. 943 77 16 01

**Urrezko pultsera.** Irailaren 29an, astelehena, urrezko pultsera galdu nuen Malvinetatik Txondorrara jaisten den bidean. Balio sentimental handi du eta eskertuko nuke aurkituz gero deitzea. 626 01 75 33

### 807. AURKITU

**Patinetea Aretxabaletan.** Santa Kurtz kaleko Briko-Lan denda parean patinete bat agertu zen urriaren 1aren bueltan. Dendan galdetu. 943 79 68 58

### 808. BESTELAKOAK

**Arrasate-Elgoibar joan etorria.** Arrasatetik Elgoibarrera eta alderantziz joaten naiz autoan egunero, autobidetik. Arratsaldez sartzen naiz eta iluntzean Arrasatera bueltan. Norbait interesatuta balego eta gure ordutegiek bat egingo balute, gastuak partekatzeko prest egongo nintzateke. 600 77 05 56.

**Folk Musikaria.** Irlandar, eskoziar eta euskal musika herrikoia 'session' eran jotzeko musikari bila gabiltza (gitarra, trabesera, soinua, soka instrumentuak, eta abar). Momentuz Arrasaten entsaiatzen gabiltzan hiru musikari gara, ondo pasatzeko asmoarekin. 645 73 12 16 edo 695 78 52 49

**Leioara autoz.** Leioako kanpusera Arrasatetik autoz, eta arratsaldez, joaten garen bi lagun gara. Autoa konpartitzeko deitu: 696 44 43 99

## ASTEA GOIENAN


GOIENA

### Osoko bilkurak ikusgai, martitzenetik

Goiena telebistan Debagoieneko hiru herri handienen osoko bilkurak ikusi ahal izango dira aste honetatik aurrera. Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko osoko bilkurak eskainiko dira. Asteon, martitzenean Bergarakoa eta eguba-koitzean Oñatikoa emango dira.
**'Osoko bilkurak'**
Martitzena, 22:00


JULEN IRIONDO

### 'Gipuzkoa pedalka', eguaztenean

*Gipuzkoa pedalka* saioaren denboraldi berriko bigarren atala eskainiko da eguaztenean. Julen Iriondo kazetariak Gipuzkoa zeharkatuko du bizikletaz, eta, hamaika txoko erakusteaz gain, bizikletaren erabilera bultzatzeko ekimenen berri emango du.
**'Pedalka'**
Eguaztena, 22:00

## GOIENA TELEBISTA

### EGUBAKOITZA, 24

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Amaia DJ
**13:00** Ikusi irratia
**13:55** Zorion Agurrak
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Amaia DJ
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Gipuzkoa Pedalka
**17:30** Ertzak
**18:15** Ikusmira
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Sasoi betean
**19:30** Amaia DJ
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Idemtitateak
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Bertso saioa
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

### ZAPATUA, 25

**10:00** Amaia DJ
**10:30** Nafarroa Oinez 2014
**11:00** Debagoiena zuzenean
**11:55** Astea iruditan
**12:00** Gipuzkoa Pedalka
**12:30** Harira
**13:00** Onein
**13:30** Sasoi betean
**14:00** Amaia DJ
**14:30** Harira
**15:00** Debagoiena zuzenean
**16:00** Astea iruditan
**16:05** Gipuzkoa Pedalka
**16:30** Ikusi irratia
**17:15** Ikusmira
**17:30** Amaia DJ
**18:00** Harira
**18:30** Zorion Agurrak
**18:35** Nafarroa Oinez 2014
**19:00** Debagoiena zuzenean
**19:55** Astea iruditan
**20:00** Harira
**20:30** Amaia DJ
**21:00** Gipuzkoa Pedalka
**21:30** Harira
**22:00** Debagoiena zuzenean
**22:55** Astea iruditan
**23:00** Nafarroa Oinez 2014
**23:30** Gipuzkoa Pedalka
**00:00** Amaia DJ

### DOMEKA, 26

**10:00** Debagoiena zuzenean
**10:55** Astea iruditan
**11:00** Gipuzkoa Pedalka
**11:30** Amaia DJ
**12:00** Harira
**12:30** Euskal egitura
**12:55** Zorion Agurrak
**13:00** Debagoiena zuzenean
**13:55** Astea iruditan
**14:00** Gipuzkoa Pedalka
**14:30** Onein
**15:00** Nafarroa Oinez 2014
**15:30** Harira
**16:00** Amaia DJ
**16:30** Debagoiena zuzenean
**17:25** Astea iruditan
**17:30** Sasoi betean
**18:00** Ertzak
**18:45** Ikusmira
**19:00** Amaia DJ
**19:30** Harira
**20:00** Gipuzkoa Pedalka
**20:30** Debagoiena zuzenean
**21:25** Astea iruditan
**21:30** Kontzertua
**22:05** Amaia DJ
**22:30** Euskal egitura
**23:00** Debagoiena zuzenean
**23:55** Astea iruditan
**00:00** Nere herrie

### ASTELEHENA, 27

**12:00** Debagoiena zuzenean
**13:00** Euskal egitura
**13:25** Zorion Agurrak
**13:30** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Nafarroa Oinez 2014
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Harira
**17:30** Sasoi betean
**18:00** Ur eta lur
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Amaia DJ
**19:30** Sasoi betean
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Harmailatik
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Harmailatik
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

### MARTITZENA, 28

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Harmailatik
**13:00** Sasoi betean
**13:25** Zorion Agurrak
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Harmailatik
**15:30** Onein
**15:55** Zorion Agurrak
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Amaia DJ
**17:30** Nere herrie
**18:15** Ikusmira
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Harira
**19:30** Harmailatik
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Osoko bilkura
**23:15** Debagoiena zuzenean
**23:45** Berriak
**00:15** Debagoiena zuzenean
**00:45** Berriak

### EGUAZTENA, 29

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Osoko bilkura
**13:45** Ikusmira
**13:55** Zorion Agurrak
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Sasoi betean
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Osoko bilkura
**18:20** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Harmailatik
**19:30** Gipuzkoa Pedalka
**19:55** Zorion Agurrak
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Gipuzkoa Pedalka
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Gipuzkoa Pedalka
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

### EGUENA, 30

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Gipuzkoa Pedalka
**13:00** Sasoi betean
**13:30** Nafarroa Oinez 2014
**13:55** Zorion Agurrak
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Nere herrie
**15:55** Zorion Agurrak
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Osoko bilkura
**18:30** Berriak
**19:00** Sasoi betean
**19:30** Gipuzkoa Pedalka
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Amaia DJ
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Amaia DJ
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

## ARRASATE IRRATIA

### Shake! taldearen kontzerturako sarrerak zozketan

Kooltur Ostegunak egitasmoaren barruan, eguenean Bartzelonako soul talde apurtzailea den Shake! taldeak emango du kontzertua gaztetxean, 22:00etan. Hara joateko sarrerak lortu nahi izanez gero, deitu 943-25 05 05 telefonora edo, bestela, idatzi *irratia@goiena.com* helbidera.

### Asteko gainbegiratua zapatu eta domekan 10:00etatik aurrera

Asteburuan astean irratian egindako elkarrizketak entzun ahal izango dira 10:00etan. Besteak beste, Lore Gazteak taldeko Agurtzane Lizarraldek dantza taldeari buruz hitz egingo du eta Andoni Ezkurra Mondrako emakumezkoen futbol entrenatzaileak ligaz jardungo du 107.7an.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ARRASATE** | | | |
| **Egubakoitza, 24** | RUIZ | Nafarroa Etorbidea 1 | 943 79 14 09 |
| **Zapatua, 25** | ETXEBERRIA | Zarugalde kalea 38 | 943 77 16 30 |
| **Domeka, 26** | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias kalea 1 | 943 79 15 15 |
| **Astelehena, 27** | M.FCA. AZKOAGA | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| **Martitzena, 28** | FERNANDEZ | Maisu Aranbarri kalea 1 | 943 79 22 26 |
| **Eguaztena, 29** | IRIZAR | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| **Eguena, 30** | AMEZUA | Sta. Marina 32 | 943 79 09 74 |
| **BERGARA** | | | |
| **Egubakoitza, 24** | MOZOS | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| **Zapatua, 25** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| **Domeka, 26** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| **Astelehena, 27** | ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **Martitzena, 28** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Eguaztena, 29** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| **Eguena, 30** | MOZOS | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| **OÑATI** | | | |
| **Egubakoitza, 24** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Zapatua, 25** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Domeka, 26** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Astelehena, 27** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Martitzena, 28** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Eguaztena, 29** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Eguena, 30** | GARATE | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |

**Farmazien eskuko telefonoetarako 2014 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

## GAZTE INFORMAZIOA

### BEKAK

**Euskal Herriko teknologo eta ikertzaile gazteen formaziorako laguntzak.** Eusko Jaurlaritzako, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila. 4 urteko iraupena duten 6 laguntza deitu dira prestatzen ari diren ikertzaileentzako programaren barruan, eta 2 urteko iraupena duten 10 laguntza, berriz, teknologo gazteak prestatzeko programaren barruan. Epea: azaroak 14.

**Borondatezko euskal lankideentzako diru-laguntzak.** Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia. Xedea: GGKEei edo beste erakunde batzuei emandako diru-laguntzen bitartez, pobreziari aurka egiteko lan egiten duten tokiko entitateak edota erakundeak indartzen parte hartzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko lankideei emandako laguntzak arautzea. Epea: azaroak 10.

### LANA

**Arkitektoen lan-poltsa Zallako Udalean.** Zallako Udala. Hautatze-prozesua deitzen da, goi -mailako arkitekto zereginetarako aldi baterako lan-poltsa sortzeko, lehiaketa oposizio sistema askearen bidez. Baldintzak: Goi mailako arkitekto titulua, arkitektura gradua edo baliokideren bat izatea. Epea: azaroak 6.

**Gizarte langile 7 plaza Getxoko Udalean.** Getxoko Udala. Erdi mailako teknikaria (A taldeko eta A2 azpi taldeko titulazioa); lehiaketa oposaketa sistema, txanda askekoa; zazpi lanpostuetarako III. hizkuntza eskakizuna behar da. Tasak: 2,20 €. Azken eguna izango da: azaroak 4.

**INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:**
**Arrasateko Gazte bulegoa:** Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
**Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea:** Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net

## EGURALDIA ASTEBURUAN

### DEBAGOIENA



Max. 22º
Min. 8º

**ZAPATUA, 25**
Goizean goiz hotz egingo du eta zeruan hodei dezente izango dira zapatuan, nahiz eta momentu batzuetan eguzkia gailendu.



Max. 22º
Min. 8º

**DOMEKA, 26**
Eguraldi antzekoa egingo du. Zerua hodeitsu izango da orokorrean eta tenperatura beroenak 22 gradu ingurukoak izango dira.

## HILDAKOAK

**Arantza Urrutia Murgiondo.** Bartzelonan, urriaren 17an. 80 urte.
**Margarita Alberdi Arzuaga.** Oñatin, urriaren 17an. 93 urte.
**Eugenia Uriarte Bilbao.** Arrasaten, urriaren 17an. 96 urte.
**Felisa Kortabarria Kortabarria.** Oñatin, urriaren 17an. 90 urte.
**Justa Okina Abarrategi.** Arrasaten, urriaren 17an. 79 urte.
**Fermin Urkia Uriarte.** Oñatin, urriaren 19an. 69 urte.
**Margarita Beitia Urkia.** Oñatin, urriaren 20an. 89 urte.
**Lorea Miren Isasmendi Lopez.** Aretxabaletan, urriaren 21ean. 51 urte.
**Rikardo Zabala Agirrebeitia.** Arrasaten, urriaren 22an. 88 urte.



### Karmele eta Jabi / Aitor eta Asun

Karmele eta Jabi eta Aitor eta Asun orain 25 urte ezkondu ziren. "Zorionak, ondo pasatu eta urte askotarako! Familiaren partetik".





### Luis Mari eta Nieves

Luis M. Madinak eta Nieves Agirrek 50 urte beteko dituzte ezkonduta datorren igandean, urriak 26. Egunean bertan urrezko ezteiak ospatuko dituzte Araozko parrokian eta ondoren bazkaria egingo dute familiarekin. Zuen seme-alaba eta biloben partetik, "zorionak eta mila esker denagatik!".



### Santi eta Amaia

Santi eta Amaia urriaren 25ean ezkonduko dira Oñatiko udaletxean. "Egun zoragarria pasa dezazuela familia eta lagun artean eta bidaia ahaztezina igaro dezazuela. Musu handi bat, Amaiaren kuadrillakoen partetik!".



### Petri eta Paco

Petri Murillo eta Paco Galan zapatuan ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. Ostean, Lasa jatetxean bazkalduta ospatuko dute. Kuadrilla, familia eta gonbidatu guztien partetik, "gogo handiz ospatuko dugu eguna zuekin batera. Patxo handi bat, eta egiguzue lekua Costa Ricarako maletan!".

OROIGARRIA

## Fermin Urkia Uriarte



Oñatin hil zen 2014ko urriaren 19an, 69 urte zituela.

*Alkarrekin pasautako momentu*
*on-ederrak goguan txuau;*
*Ugastegiko haize garbixa hire bidelagun*
*izatia opa dostau.*

**Hire kuadrillako lagunak.**
**Oñatin, 2014ko urriaren 24an.**



### Xabier eta Nerea

Xabier Lizaur eta Nerea Sagasta urriaren 25ean ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. "Egun zoragarria igaro dezazuela familia eta lagun artean. Zorionak eta muxu handi bat familiaren eta lagunen partetik. Gora bihotzak! Altxa ditzagun kopak eta egin dezagun topa!".

URTEURRENA

## Felix Ugarte Igartua



Oñatin hil zen 2013ko urriaren 21ean, 83 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, urriaren 25ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiangeruaren parrokia-elizan.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Oñatin, 2014ko uriaren 24an.**

URTEURRENA

## Carmen Cortabarria Leceta



Goian bego

2013ko urriaren 31n hil zen, 89 urte zituela,
Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

Seme-alabek, anai-arrebek, bilobek, birbilobak
eta gainerako ahaideek bere animaren alde otoitz bat eskatzen
dizuete eta arren etor zaiteztela zapatuan, hilak 25, 19:00etan,
Mikel Goiaingeruaren elizan egingo den urteurreneko mezara.

**Aldez aurretik mila esker.**
**Oñatin, 2014ko urriaren 24an.**



### Mari Tere eta Manolo

Mari Tere Rubio eta Manolo Munarriz urriaren 24an ezkondu ziren, orain dela 50 urte. "Zorionak eta musu handi bat zuen urrezko ezteietan, familia osoaren partetik. Domekan denok ondo ospatuko dugu. Kontuz Lambrettarekin!".

ESKER ONA

## Felisa Elkorobarrutia Lazkano



2014ko urriaren 13an hil zen, 76 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali
zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
—
Ondra meza zapatuan izango da, urriaren 25ean,
19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.

**Esker on bertaratzen zareten guztioi.**
**Oñatin, 2014ko urriaren 24an.**

ESKER ONA

## Maria Angeles Garai Arregi



Juan Bautista
Mendieta Aiastuiren alarguna

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali
zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
—
*Izan zarenagaik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu inoiz ahaztuko.*

**Arrasaten, 2014ko urriaren 24an.**



### Eli eta Felix

Hilaren 18an Eli Ercilla eta Felix Galdos ezkondu ziren. "Egun ederra pasatu genuen elkarrekin. Lagunen partetik, zorionak eta urte askotarako, bikote. Segi orain arte bezala".

MEZA

## Arantza Urrutia Murguiondo



Frantziskotar misiolari lekaimea

Bartzelonan hil zen urriaren 17an, 80 urte zituela.

Bere anai-arrebak: Maximo (†), Carmen (†) eta Jose Bilbao (†),
Maria eta Anton Otaduy (†), Jesusa eta Maurizio Iturbe(†);
ilobak, lehengusuak eta gainerako senideak.

Haren aldeko meza domekan izango da, urriaren 26an, 12:30ean,
Aozaratzako San Juan Bataiatzailearen elizan.

**Aldez aurretik mila esker.**
**Etxaluze baserria. Aretxabaletan (Aozaratza), 2014ko urriaren 24an.**

**OROILORE**
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



*maribi 617 44 21 55*
*BERGARA*



GOIENA

**ARRASATE Lore Gazteak taldearen 50. urteurrena**
Arrasateko dantza taldearen urteurrena ospatzeko jaialdia egingo dute bihar, zapatua. 250 dantzarik eta musikarik parte hartuko dute. Zaldibarren elkartu eta kalejiran joango dira plazaraino. Han egingo dute ekitaldi nagusia.
Bihar, zapatua, Herriko plazan, 12:15ean.

**ARRASATE Rafa Ruedaren eta Oier Guillanen emanaldia**
Gaur, egubakoitza, Bibliotekaren Eguna da, eta, horren harira, *Munduaren neurria* izeneko kontzertu-errezitaldia egingo dute Rafa Ruedak eta Oier Guillanek. Ordubete inguruko ikuskizuna. Musika eta poesia bateratuko dituzte, antzerki ukituarekin dramatizatuta.
Gaur, egubakoitza, Kulturaten, 20:00etan.



GOIENA

# NON-ZER

URRIAK 24
URRIAK 30

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## MUSIKA

**ARETXABALETA Hilario Rodeiroren kontzertua**
Musikari galiziarrak rock eta jazz doinuak ekarriko ditu Ttun-ttun proiektuaren barruan. Sarrerak, lau euro.
Gaur, egubakoitza, Arkupen, 19:00etan.

**ARRASATE DJ Elektik**
DJ Elektik gonbidatu dute Iluntz tabernakoek.
Gaur, egubakoitza, Iluntzen, 23:00etan.

**ARRASATE RIP taldeko Porturen eta Karlosen omenezko kontzertua**
Bi urtean behin egiten den kontzertura La Banda del Abuelo, Ladislao eta Screamers and Sinners taldeak gonbidatu dituzte. Musikari debagoiendarrek RIP taldeko bi kide ohiak omenduko dituzte.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.

**OÑATI Topalekuko disko-festa**
DJ Amaiaren eskutik, dantzaldia egingo dute gaztetxoendako.
Etzi, domeka, gaztelekuan, 17:00etan.

**OÑATI Viva Bazooka**
Bikote euskaldun paraguaitarrak *Bum! Bum! Brazil!* diskoa aurkeztuko du Pako tabernan.
Etzi, domeka, Pako tabernan, 19:30ean.

**ARETXABALETA Petti**
Disko berriarekin lanean dihardu Petti bakarlari nafarrak.
Urriaren 30ean, Arkupen, 20:00etan.

**ARRASATE Shake!**
Bartzelonako taldeak bira txikia egingo du Euskal Herrian eta geldialdietako bat Arrasaten egingo du, Kooltur Ostegunetan. Bartzelonako soul eta rock-and-roll taldea dugu Sahke! eta 60ko hamarkadako artisten espiritua eta energia dute erreferentzia nagusitzat.
Urriaren 30ean, gaztetxean, 22:00etan.

## ANTZERKIA

**ESKORIATZA 'Satisfaktion' antzezlana**
Khea Ziater taldeak *Satisfaktion* antzezlana eskainiko du Huhezin. 2013an Donostia-Kulturak antolatutako Poltsikoko Antzerki Jaialdiko sorkuntza saria irabazi zuen. Sarrera, doan.
Gaur, egubakoitza, Huhezin, 22:30ean.

**ARRASATE 'Opera abeslaria'**
August Strindberg autorearen *Tabako lehortegiko sekretuak* ipuinean oinarritutako haurrendako antzerkia egingo du Deabru Beltzak taldeak. Hannah opera abeslariaren arrakasta eta hondamendia kontatzen du. Era ludikoan eta entretenigarrian, ikus-entzuleak operaren mundura eroaten ditu. Idoia Somoza sopranoa, Katrin Schlegel aktorea eta Marta Galleguillos piano-jotzailea oholtza gainean.
Etzi, domeka, Amaia antzokian, 17:00etan.

**ARETXABALETA 'Egun berri bat'**
Eidabe taldeak umeendako antzerki emanaldia egingo du. Sarrera, leihatilan, 3 eurotan.
Etzi, domeka, Arkupen, 17:00etan.

**ARRASATE 'Oh!ndas'**
PAI taldeak *Oh!ndas* ikuskizuna egingo du Bibliotekaren Eguna ospatzeko. Bi ikertzailek bat egingo dute oholtzan denboraren makina batekin...
Urriaren 30ean, kulturaten, 11:15ean eta 14:30ean.

## ERAKUSKETAK

**OÑATI 'Furtivos'**
Ilunpetan argazki taldearen eskutik *Furtivos* delako erakusketa. Vicente Paredes argazkilariaren lanak daude ikusgai domekara arte kultura etxean.
Urriaren 26ra arte, kultura etxean, 18:00etan.

**ARETXABALETA Manuel Montiel**
Manuel Montielen argazki onenen bilduma ipini dute ikusgai. Astelehenetik zapatura arte egongo da ikusgai.
Urriaren 31ra arte, Arkupen.

**OÑATI 'Euskara ospeletik eguterara'**
Oñatiko Euskal Memoria Taldearen eskutik. Hilaren 27tik aurrera egongo da ikusgai kultura etxean.
Azaroaren 9ra arte, kultura etxean.

**BERGARA Agustin Gurrutxaga**
Bergarako argazkilariaren erretratuak batu dituzte Aroztegin. Gaur, egubakoitza, zabalduko dute erakusketa. Ikusgai egongo da martitzenetik domekara arte.
Azaroaren 9ra arte, Arkupen.

**BERGARA Gorlako Igoera iruditan**
*1975-2014 Gorlako Igoerako 40 edizio* delako erakusketan, hedabideen kronikak, artikuluak eta argazkiak eta taldeen maillotak batu dituzte udaletxeko osoko bilkuren aretoko erakusketan.
Urriaren 31ra arte, osoko bilkuren aretoan.



GOIENA

**BERGARA Nazioarteko XII. Txotxongilo Mostra**
Nazioarteko XII. Txotxongilo Mostra hasi zuten atzo Taun Taun konpainiakoek. Domekara arte herriko kale, areto eta guneak ameskeriaz beteko dituzte. Egunotan zazpi taldek euren ikuskizunak eta antzerkiak egingo dituzte kalean eta Zabalotegin. Areto barruan egingo diren ikuskizunetarako sarrerak ordaindu egin beharko dira. Kalekoak, doan.
Domekara arte, Zabalotegin eta Bergarako kaleetan.

## UMEAK

**ELGETA Ipuinen ordua**
Euskarazko ipuin kontaketa saioa egingo dute neska-mutikoendako, euskaraz.
Gaur, egubakoitza, liburutegian, 17:20ean .

**ESKORIATZA Eskulanak**
Eskulanak egingo dituzte neska-mutikoekin ludotekan: *Zu sortzaile: udazkeneko collagea*.
Gaur, egubakoitza, Tortolis, 17:30ean.

**ELGETA Haur txikiendako saioa**
0-2 urte arteko umeendako saioa, euskaraz, Saroa Bikandi ipuin kontalariarekin.
Urriaren 27an, liburutegian, 18:30ean.

## OSPAKIZUNAK

**OÑATI Gipuzkoako erretiratuen ibilaldia**
Gipuzkoako erretiratuen ibilaldia egiteko 600 lagun egongo dira Oñatin. Bederatzi kilometroko ibilaldia egingo dute: Foruen plazan hasi, Bidaurreta, San Martin, Asentzio, Foruen plaza, Unibertsitatea, San Pedro eta Foruen plazan bukatu. Ostean, Zubikoa kiroldegian elkartuko dira bazkaltzeko.
Bihar, zapatua, Oñatin, 11:00etan.



GOIENA

**OÑATI VI. trikiti jaialdia**
Punta-puntako musikariak elkartuko dira Lizargarate Oñatiko Trikitizale Elkartearen eskutik. Maila handiko trikitilariek jaialdia egingo dute Santa Anan; besteak beste, Irati Gutierrez eta Amets Ormaetxeak; Imuntzo eta Belokik; Kepa Junkerak, Gozategi anai-arrebek...
Bihar, zapatua, Santa Anan, 17:30ean.

## IRTEERA

**ELGETA Gorostiagara eta Arrolara**
Taldea 08:00etan abiatuko da Mendizaleen plazatik.
Bihar, zapatua, Mendizaleen plazan, 08:00etan.

**ELGETA Bisita lubakietara familiendako**
Espaloia kafe antzokian dagoen Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentrotik abiatuta, hiru ordu eta erdiko irteera egingo dute familiendako. Doakoa eta euskaraz izango da. Interesatuek aldez aurretik eman behar dute izena: 943-71 89 11 edo 943-79 64 63 telefonoak edo *turismo@debagoiena.net*.
Etzi, domeka, Espaloian, 10:00etan.

## DEIA

**ARRASATE 'Cohousing'-a**
*Couhousing*-a zer den ezagutu eta lankidetzazko etxebizitzei buruzko solasaldian parte hartu gura dutenek aukera izango dute Arrasaten. Cover taldeko Ritxar Bacete izango da hizlaria. Interesatuek aldez aurretik eman behar dute izena: 943-77 17 38 telefonoan edo *elkarhezitzen@gmail.com* helbidean.
Bihar, zapatua, Kulturaten, 10:00etan.

**ARRASATE Zaldibarko txapelketa**
Izena emateko eguna: hilaren 27a. Talde bakoitzak 275 euro ordaindu beharko ditu.
Urriaren 27an, Kulturaten, 17:30ean.

**ARETXABALETA Odol ateratzea**
Arabako Odol Bankuko unitate mugikorra odola ateratzen egongo da Durana kalean.
Urriaren 29an, Durana kalean, 16:30ean.

**ARRASATE GUreztatu prozesuaren saio irekia**
Arrasateko Azoka Biziberritzeko GUreztatu prozesuaren inguruan, azken hilabeteotan emandako pausoen eta Udalak hartutako erabakien berri emateko, saio irekia egingo da. Haurrentzako zaintza zerbitzua egongo da, baina aurretik zerbitzua erabiliko den zehaztu beharko da, *gureztatu@bagara.net* helbidean.
Urriaren 27an, Kulturaten, 17:30ean.

**ARRASATE Santamasetako azokarako izen-ematea**
Artisau azokan parte hartzeko izen-ematea zabaltzear dagoela adierazi du Santamas Komisiñuak: urriaren 27tik azaroaren 22ra arte eman ahal izango da izena. *Santamasak.com* atarian dago izena emateko esteka.
Urriaren 27tik azaroaren 22ra arte.

## IKUS-ENTZUNEZKOAK

**ESKORIATZA Elikadura burujabetza**
Elikadura burujabetzari buruzko zikloa Elkarhezitzen eta Mugarik Gabe elkarteek. Hiru ikus-entzunezko emango dituzte: *Mujeres campesinas andaluzas*; *Tres historias y un vaso de leche*; eta *Campesinas, semillas de cambio*.
Urriaren 29an, Ibarraundi museoan, 19:00etan.

**OÑATI 'Euskera, ospela eta egutera'**
Euskal Memoriak eta Gipuzkoako Diputazioak ekoiztutako dokumentalean, historian zehar euskarari egin zaion jazarpena eta euskal kulturgintzak jaso duen errepresioa batzen dituzte. Antzerki, dantza, zuzeneko musika eta testigantzekin osatutako bideoak tartekatuz, ikuskizun multimedia sortu dute. Emanaldi bikoitza egingo dute hilaren 30ean: 19:00etan eta 22:00etan. Sarrerak 5 eurotan, Txokolateixan.
Urriaren 30ean, Santa Anan, aipatutako orduetan.

## HITZALDIA

**OÑATI Alex Huberren berbaldia**
Aloña Mendiko mendi sailak gonbidatu du eskalatzaile alemana Oñatira. Hitzaldia egingo du eta sarrera hiru euro ordaindu beharko da.
Etzi, domeka, institutuko aretoan, 19:00etan.

**ESKORIATZA Zigorrei buruzko berbaldia**
Hezkuntza Foroak antolatu du haurren heziketa eta komunikazioa ardatz dituen formazio zikloa. Nerea Mendizabal psikopedagoak *Zigorren aurrean, beste alternatiba batzuk* delako berbaldia egingo du, 12 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoendako, hezitzaileendako eta irakasleendako.
Urriaren 30ean, kultura etxean, 15:00etan.

## MAHAI-INGURUA

**ARRASATE 'Izan zaitezke feminista euskaltzale izan gabe?'**
Gai horren gainean egingo dute berba Lorea Agirrek, Ainhoa Beolak eta Idurre Eskisabelek. Moderatzailea Aitziber Aranburuzabala izango da.
Urriaren 30ean, Kulturaten, 18:30ean.

**OÑATI Euskarari buruz hausnartzen**
Gipuzkoako Diputazioaren eskutik, mahaiaren bueltan, pintxoak egongo dira. Pertsona ezagunak eta sei edo zazpi gazte elkartuko dira. Parte hartzeko, *Gaztezulo.com* helbidean eman behar da izena, aurrez.
Urriaren 30ean, Enpresagintzan, 10:00etan.

## KIROLA

**OÑATI Ziklo-kros taldearen aurkezpena**
Oñatiko ziklo-kros taldea aurkeztuko dute. Denboraldirako txirrindulariak eta asmoak zeintzuk diren azalduko dute. Gainera, Aitor Biainen *1953, historia pedalkadaz* dokumentala emango dute. Besteak beste, 1953. urtean Oñatin jokatutako Munduko ziklo-kros txapelketan parte hartu zutenen testigantzak jaso ditu.
Gaur, egubakoitza, kultura etxean, 19:00etan.

## IKASTAROAK

**ESKORIATZA Ukenduak egiteko ikastaroa**
Ukenduak eta kremak egiten irakatsiko du Sara Letamendiak
Bihar, zapatua, kultura etxean, 10:00etan.

**ARRASATE Olio-pintura ikastaroa**
San Andresko emakumeen elkarteak (Emasan), olio-pintura ikastaroa egingo du martitzenero, 15:00etatik 18:00etara arte. Interesatuek 606 04 94 81 (Cari) telefonora dei dezakete izena emateko edo informazioa eskatzeko.
Izen-emate, aipatutako telefonoan, 10:00etan.

## ZINEMA

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**La isla minima**
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Como entrenar a tu dragon 2 3D**
Domeka: 17:00.

### OÑATI

**KULTURA ETXEA**

**Lasa eta Zabala**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Maya erlea**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### EIBAR

**COLISEO**

**Marsella**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Khumba**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Lasa y Zabala**
Zapatua: 19:45, 22:30.

**The equalizer**
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**ANTZOKIA**

**The equalizer**
Zapatua: 19:45, 22:30.

**Frozen**
Domeka: 12:00.

**Lasa y Zabala**
Domeka: 20:00.

### GASTEIZ

**BOULEVARD**

**Dracula, la leyenda jamas contada**
Egubakoitza eta zapatua: 00:00.
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 16:00.

**Vamos de polis**
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Egubakoitzetik eguenera: 17:45, 20:00, 22:15.
Zapatua eta domeka: 15:30.

**El juez**
Egubakoitza eta zapatua: 00:15.
Egubakoitzetik eguenera: 18:30, 21:30.
Zapatua eta domeka: 15:30.

**Las tortugas Ninja**
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:10, 22:20.
Zapatua eta domeka: 15:50.

**Las tortugas Ninja 3D**
Egubakoitzetik domekara: 18:10.

**The equalizer**
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Egubakoitzetik eguenera: 18:45, 21:30.
Zapatua eta domeka: 16:00.

**Torrente 5**
Egubakoitza eta zapatua: 00:45.
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**El corredor del laberinto**
Egubakoitzetik eguenera: 17:40, 20:00.

**Lasa y Zabala**
Egubakoitzetik eguenera: 22:20.

**Anabelle**
Egubakoitza eta zapatua: 00:50.
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:10.
Zapatua eta domeka: 15:50.

**Relatos salvajes**
Egubakoitza eta zapatua: 00:20.
Egubakoitzetik domekara: 19:30, 21:55.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 20:00, 22:30.
Eguena: 17:30, 20:00, 22:30.

**El niño**
Egubakoitzetik eguenera: 22:15.

**La isla minima**
Egubakoitza eta zapatua: 00:40.
Egubakoitzetik eguenera: 20:20, 22:30.

**Perdida**
Egunbakoitza: 19:45, 22:45.
Zapatua eta domeka: 19:00, 22:00.
Egubakoitzetik eguenera: 19:00, 22:00.

**Lasa eta Zabala**
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Astelehenetik eguenera: 22:20.

**La abeja Maia**
Zapatutik eta domeka: 15:40.

**Frozen**
Egubakoitza: 17:30.
Zapatua eta domeka: 16:45.

**Como entrenar a tu dragon**
Zapatua eta domeka: 16:00.

**Operacion cacahuete**
Egubakoitzetik domekara: 17:30.
Zapatua eta domeka: 15:40.

**Los Boxtrolls**
Egubakoitzetik domekara: 18:10.
Zapatua eta domeka: 16:00.

**FLORIDA**

**Relatos salvajes**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**El chico del millon de dolares**
Egubakoitzetik eguenera: 17:45, 20:15, 22:30.

**Las tortugas Ninja**
Egubakaoitza: 16:30, 18:30, 20:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30, 18:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 18:50.

**La isla minima**
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:35, 22:30.

**Alguien a quien amar**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

**Torrente 5**
Egubakoitzetik domekara: 16:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Lasa eta Zabala**
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:50, 20:40, 22:30.

**Perdida**
Egubakoitzetik eguaztenera: 17:00, 19:45.
Eguena: 17:00.

**Magical girl**
Egubakoitzetik eguaztenera: 22:30.

**Dracula**
Egubakoitza: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

KRITIKA

# Harreman itogarriak

**PERDIDA** ★★★☆☆
**Zuzendaria:** David Fincher.
**Herrialdea:** AEB.
**Aktoreak:** Ben Affleck, Rosamund Pike, Neil Patrick Harris.

Istorioaren protagonista ezkonduta dagoen bikote bat da. New Yorken elkar ezagutu eta gizonaren jaioterrira bizitzera doaz. Aldaketa hori, hiri handitik Missisippi ibaia aldean dagoen hiri txiki batera joatea... magikoak ziruditen harremanak, denborarekin, higatuz joan dira. Ezkonduta bost urte betetzera doazenean emaztea desagertzen da. Hortik aurrera susmoak sortuko dira eta susmagarri nagusia desagertutakoaren senarra izango da. Istorioa *thriller*–a da. Hasieran ematen du hiltzailea nor den asmatzea izango dela filmaren helburu nagusia. Baina ez, laster konturatu gara, zinema beltzean gertatzen den bezala, hasierako istorioaren azpitik, hau da, pertsonaien arteko harremanetan, zerbait ezkutua dagoela. Filmaren egitura erakargarria eta bihurria da. Senarraren eta emaztearen ikuspuntuak nahasten dira. Harreman horien egia non dagoen jakitea izango da istorioaren mamia. Gauzak ez dira zuriak edo beltzak, erdian grisa dago, eta bi bertsioekin batera komunikabideen lana dago, kasuari buruz arinegi egindako ideia arraroekin. Bikote harremanei buruzko ikuspegi zinikoa du *Perdida* filmak. Askotan, harreman faltsuak dira, hasieran dena oso ondo dagoela ematen du, besteak ikusi nahi duena sortzen ahalegintzen gara, baina denborarekin nork bere nahia inposatu nahi duela ikusten da. Eta norgehiagokak eskuetatik ihes egiten duenean, emaitzak oso larriak izan daitezke.

Finchek harreman horien artifizialtasuna aditzera eman nahi du: iragarkian agertzen diren harremanek perfektuak dirudite. Agian, harreman horiek azaltzerakoan, zuzendariari fintasun pixka bat falta zaio, dena gehiegi markatzen duelako. Gauza bera gertatzen zaio komunikabideen jokoak azaltzerakoan. Filmak *Instinto básico* gogoratzen dit. Verhovenen filmak tonu ludikoagoa zuen; eta honetan, tonua zehaztugabeago dago.

ANTONIO ZABALA




goiena“ 2014-10-24

BUKATZEKO

# Dantzan, hamabost metroko altueran

- Denis Josselin funanbulistak ikuskizuna eskainiko du gaur, 19:00etan, Arrasateko Herriko Plazan
- Hamabost metroko altueran, 40 metroko ibilbidea egingo du elizatik udaletxeraino; eta gero, itzuli

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Arrasateko Udalak eta Arrasateko euskalgintzak antolatuta, ohikoa ez den ikuskizuna egongo da gaur arratsaldean, 19:00etan, Arrasateko Herriko Plazan: Denis Josselin funanbulistaren *Zeruaren eta lurraren artean* ikuskizuna, hain zuzen ere.

**Mundu osoan**

57 urte dituen Josselin frantziarrak bizitza erdia baino gehiago daroa kable gainean. Mimo bezala hasi zen aretoetan, eta, 28 urterekin, kaleko ikuskizunak egitea proposatu zioten. Orduan igo zen lehen aldiz kable batera, oraindik ere mimoa zela. Metro bateko altueran hasi zen, eta, funanbulista izatea proposatu ziotenean, gero eta gorago zeuden eta gero eta luzeagoak ziren kableekin jarraitu zuen. "Gaztetasunak bultzatuta esan nuen baietz. Uste dut nahiko inkontzientea izan nintzela, ez nengoen-eta ondo prestatuta", dio Josselinek bere hastapenak gogoratzean.

Mundu osoan ibili da bere funanbulismo ikuskizunekin. Hura da, esaterako, Parisko Sena ibaia kable gainean gurutzatzeko baimena lortu duen pertsona bakarra. 200 metroko ibilbidea; eta ez behin, bitan baizik.


Denis Josselin, atzo, Arrasateko Herriko Plazan. | T.M.

**Kontrol mentalaren garrantzia**

Normandian bizi da, kablez josita dagoen 6.000 metro koadroko jabetzan, eta han entrenatzen da. Arrasaten, ikuskizuna egiteko bakarrik igoko da kable gainera, aurretik entseatu barik; haren esanetan, energia guztia ikuskizunerako gorde gura du.

Zer sentitzen du batek horrelako altueretan ibiltzean? Josselinen esanetan, hitzekin azaldu ezin den zirrara; metro bat gorago edo metro bat beherago, gainera, ezberdina dena. Euriak, haizeak, eguzki izpi batek… Horiek guztiek eta faktore gehiagok baldintzatzen dute ekitaldi bakoitza, eta, komenigarria den forma fisiko onaz gain, burua kontrolatzea ei da garrantzitsuena. Horixe da, haren esanetan, segurtasun neurri handiena; hori, eta muntaketa behar den moduan egitea.

Arrasaten, hain zuzen, elizatik udaletxeko leiho bateraino joango da kable gainean: hamabost metroko altuera, eta 40 metroko ibilbidea. Joan, eta gero berriz ere bueltatu, orekari eusteko zazpi metroko barra eskuetan duela. Kable gainean ibili bakarrik ez, dantzan ere egingo du; eta dena, begiak estalita.

AZKEN BERBA



AGURNE BARRUSO

## Kutxa ez da orain arteko kutxa izango

Gaur izango da Kutxaren azken Batzarra. Banku Fundazio bihurtuko dute gaur eta 15 norbanakoren eskuetan geldituko da Kutxaren etorkizuna. Akabo erakunde publikoen eta gizarte eragileen kontrola.

Beste erremediorik ez zegoela esan digute behin eta berriz. Erremedioa aurkitu dugunean, berriz, eztabaida ekidin dute. Ez dute beraiena ez zen beste proposamenik eraman Batzarrera. Eta egon badago alternatiba.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak sortu zuten Kutxa gipuzkoarron interesei erantzungo zien finantza-entitatea izateko asmotan. Azken urteetan helburu hau alboratu eta interes merkantilistei begira bakarrik jardun da Kutxa. Hala ere, mantentzen ziren kontrolerako mekanismoak eta herrialdeko udalek, GFAk, bezeroek, langileek eta gizarte eragileek beraien ordezkariak zituzten Batzarrean eta Administrazio Kontseiluan.

Gaurtik aurrera akabo hori guztia. Mende honetan gipuzkoarroi egin diguten lapurretarik handiena burutu dute gaur arratsaldean. Kutxa ez da aurrerantzean orain arteko Kutxa izango. Ohiko Banku izango da.

